# Goienkaria

2008ko maiatzaren 30a > Egubakoitza > VIII. urtea > 334. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Larrialdietako taldeetan jarduteko, formazioa eta heldutasuna behar da"



**Mertxe Sagarna**
Psikologo klinikoa
> 09

**G2a** **AEDk aurkeztu ditu urtemugako ekintzak** > 43-44

**MUNDUMIRA**
**Aste bukaeran hasiko dira Mundumirako ibilaldi gidatuak** > 06

**IRUZURRA**
**Vodafoneren izenean iruzurra egiten dabiltzala salatu dute** > 07

**BERGARA**
**Ekainaren 9an hasiko dira Ipintza futbol zelaiko lanak** > 25

**OSASUNA** > OSPITALEA

## Ospitaleko zerbitzua, etxean

Ospitalizazioa etxean egiteko aukera, zabalik astelehenean > 02-03

**ARETXABALETA** > EURI JASA

## Larrinbe garbitzeko, hilabete

Domekako uholde txikiak utzitako zikinkeria garbitzeko hilabete beharko dela esan du Udaleko Hirigintza Sailak. Horrekin batera, gogoeta ere piztu da; izan ere, sail horren esanetan, halako euri jasak hartzeko gaitasunik ez dauka Larrinbe errekatxoak. > 31

## Azpiegituren gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 8 orriko gehigarria bailarako azpiegiturei buruz, koloretan.




**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

**EKONOMIA** > MONDRAGON TALDEA

# "Ampo-Irizar auziak, taldeari barik, irudiari egin dio min"

**NORMALTASUNA** "Prozesu normala da, eta duen baino garrantzi handiagoa eman zaio", dio Jose M. Aldekoak

**BALANTZE ONA** 2007ko balantze guztiz positiboa egin du Mondragon Taldeak, eta hala jakinarazi zuen martitzenean

**SALMENTAK, GORA** Taldearen salmentak %12,4 hazi ziren iaz, eta emaitza bateratuak 800 milioira iritsi ziren > 04-05



**UNTZILLAN** Aretxabaletako mendizalea, martitzen eguerdian egindako erretratuan, Untzillako elkartearen ondoan. XABIER URTZELAI

## Alberto Iñurrategi: "Filmak tonu zirikatzailea du, eta gogoeta eragitea izan da helburua"

ARETXABALETARRAK ARRASATEKO AMAIA ANTZOKIAN ERAKUTSI DU AZKEN LANA -'BEGIZ BEGI'-, ASTELEHENEAN > 40-41






**OSASUNA** > DEBAGOIENEKO OSPITALEA

# Astelehenean jarriko dute martxan etxeko ospitalizazio zerbitzua bailaran

**ESKUALDEETAN** Aspalditik funtzionatzen du hiriburuetako ospitaleetan eta, orain, eskualdeetakoetan gura dute abian jarri, tartean, ibarrekoan

**BALDINTZAK** Gaixotasun jakin batzuk dituztenek bakarrik jaso ahal izango dute eta, gainera, etxean zaintzailea eta telefonoa izan behar dute gaixo horiek

**TALDEA** Esperientzia duten bederatzi pertsonak osatzen dute taldea: hiru mediku, bost erizain eta administratzaile batek, bi txandatan banatuta



Atzoko agerraldian, etxeko ospitalizazio zerbitzuaz a

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Debagoiendarrek osasun zerbitzu berria izango dute eskura astelehenetik aurrera: Debagoieneko Ospitaleko etxeko ospitalizazio zerbitzua. Atzo, eguena, horren berri eman zuten Arrasaten.

Zerbitzu berri horren mediku koordinatzaile Julio Sandovalek azaldu duenez, "ospitalea etxean edukitzea" bezala da. Gogorarazi du Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ospitaletan aspaldditik dagoela martxan. Gurutzetan, esaterako, 25 urte daramatzate zerbitzu hori eskaintzen; Osakidetzak duen urte kopuru bera, hain zuzen. Orain arte, hiriburuetako ospitaleetan funtzionatu du eta, orain, eskualdeetakoetan abian jartzen hasi dira, tartean, Debagoienean.

Etxeko ospitalizazio zerbitzua baliabide pertsonal eta materialekin gaixoaren etxean emandako asistentzia jarduera da. Eskainitako baliabideak ospitalean emandakoen parekoak izango dira.

**FUNTZIONAMENDUA**

Jarduera horiek bi zatitan egongo dira banatuta: ospitalean eta gaixoen etxean. Ospitalean, lehenik eta behin, gaixoak aukeratzeko irizpideak zehaztuko dira eta jarraian, zerbitzu hori jaso dezaketen gaixoen zerrenda egingo da. Erizainek eta medikuek kasu bakoitzaren balorazioa egingo dute eta, programa horretan sar daitekeela ondorioztatzen bada, gaixoari eta haren familiari horren gaineko xehetasunak emango dizkiete. Gaixoa ospitalean dagoen bitartean, behar dituen zainketak eta tratamendua zehaztuko dira.

Behin etxean dagoela, gaixoak osasun arloko langileen bisita edukiko du, tratamendua aplikatzeko eta beharrezkoak diren probak egiteko. Besteak beste, analisiak, zundaketak edo elektrokardiogramak egin ahal izango dituzte. Horrez gainera, hondakinekin zer egin behar duten azalduko diete gaixoei eta senideei. Etxeko ospitalizazio zerbitzuak irauten duen bitartean, gainera, historia klinikoa gaurkotu beharko du eta, zerbitzu hori amaitzen denean, ospitaleko akta egiteaz arduratuko da.

**BOLUNTARIOA DA**

Sandovalek gogorarazi du boluntarioa dela zerbitzu hori onartzea. Horren harira, edozeinendako egokia ez dela azpimarratu du. Zerbitzua jaso ahal izateko, gaixoak zaintzailea eta telefonoa eduki beharko du derrigorrez etxean. Gainera, patologia kirurgikoak, patologia mediku larri eta kronikoa dituztenek edo zainketa aringarriak behar dituztenek jaso ahal izango dute.

**Gurutzetako ospitalean 25 urte daramatzate etxeko ospitalizazioa eskaintzen; hain zuzen, Osakidetzak duen urte kopuru bera. Erabiltzaileak pozik daude zerbitzu horrekin**


Bailarako udaletako hainbat ordezkari izan zen zerbitzuaren aurkezpenean. GOIENKARIA

Ohiko ospitaleratzearekin alderatuta, hainbat abantaila ditu zerbitzu berriak. Besteak beste, ospitalean har daitezkeen infekzioak eta ospitalean denbora luzea igarotzearen ondorioak ekiditeko egokia izateaz gain, pertsona nagusien artean depresioa edo nahasketa mentala edukitzea gutxitzen ditu.

Gainera, bisitak egiten dituen osasun langileen, gaixoen eta senitartekoen arteko harremana hobetzeko balio du; erosotasuna eta intimitatea eskaintzen du eta senideen joan-etorriak ekiditen ditu. Kostuak eta ospitaleko itxaron zerrendak txikitzea ere ahalbideratuko du.

**BEDERATZI PROFESIONAL**

Debagoieneko Ospitaleko taldea bederatzi pertsonak osatzen dute: hiru mediku, bost erizain eta administratzaile batek. Horien artean, euskaldun asko daude. Zerbitzu horrek urte osoan funtzionatuko du, 24 orduan. Goizeko taldean, mediku bi eta beste hainbeste erizain ibiliko dira; arratsaldeko txandan, berriz, mediku bat eta erizain bat.

Astelehenetik egubakoitzera bitartean, goizez eta arratsaldez funtzionatuko du. Zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, berriz, goizez egingo dute lan. Bi talde horiek koordinatuta egongo dira, eta. horretarako, bilera bateratua egingo dute eguerdian. Ordutegi horretatik kanpo laguntza behar duenak SOS Deietara deitu beharko du; izan ere, koordinatzaile bat izango du hor edozertarako.

**BI AUTO**

Baliabideei dagokienez, Osakidetzak bi auto jarri ditu, osasun arloko langileak gaixoaren etxera joan daitezen eta behar duten material sanitarioa eraman dezaten. Horrez gain, ospitalean gela bat izango dute koordinatzio bilerak egin ahal izateko.

Sandovalek adierazi du etxeko ospitalizazio zerbitzuka urteak daramatzala "ondo funtzionatzen· beste hainbat tokitan. Hala, zerbitzu hori jasotzen duten erabiltzaileen "asebetetze maila oso handia da, Osakidetzako onena". Era berean, gogorarazi du zerbitzu horrek ez duela lehen mailako arreta ordezkatzen. Debagoiendarrendako onuragarria izatea espero du Sandovalek.




arduratuko den lantaldea eta bisitak egiteko erabiliko duten autoa aurkeztu zituzten. GOIENKARIA

**Zerbitzuak urte osoan funtzionatuko du; gaixoak egunero 24 orduan edukiko du eskura. Bisitak egiteko, bi auto dituzte osasun arloko langileek, gaixoaren etxera joan daitezen behar duten materialarekin**

## Zerbitzuaren ordutegia

| EGUNEZ | 08:00ETATIK 15:00ETARA | 14:00ETATIK 21:00ETARA |
|---|---|---|
| Astelehena | PF* | PF |
| Martitzena | PF | PF |
| Eguaztena | PF | PF |
| Eguena | PF | PF |
| Egubakoitza | PF | PF |
| Zapatua | PF | PF |
| Domeka | PF | PF |
| Jaiegunak | PF | PF |

**GAUEZ, 21:00ETATIK 08:00ETARA**

GAUETAN, ZAPATUETAN, DOMEKETAN ETA JAIEGUNETAKO ARRATSALDEETAN SOS DEIETARA DEITU BEHARRA DAGO ETA ETXEKO OSPITALIZAZIOKO ZERBITZUAN SARTUTA DAGOEN GAIXOA DELA JAKINARAZI; KOORDINATZAILAREKIN JARRIKO DUTE HARREMANETAN.

*PF: PRESENTZIA FISIKOKO LANA.

ITURRIA: DEBA GOIENEKO OSPITALEA

## Ospitaleko eraikin berriko lanak erritmo onean doaz, eta epeak betetzen dabiltza

Eskualdeko ospitalea handitzeko lanak martxa onean doaz. Horixe jakinarazi digu ospitaleko gerente Jose Luis Angulok. Obrak abenduaren amaieran esleitu ziren eta, handik hilabete batera, makinak lanean hasi ziren. "Obretako tokian zeuden kable, hodi eta azpiegitura guztiak behar bezala berritu eta kudeatu ostean, orain lanak oso erritmo onean doaz. Lanek daramaten erritmoa ikusita, aurreikusten da markatutako epe guztiak beteko dira", dio Angulok.

Jakina denez, proiektuak hiru fase ditu. Esan bezala, anbulatorioaren atzeko partean altxatuko den eraikinarekin hasi dira dagoeneko. Debagoieneko ospitaleko muina izango da hori etorkizunean: 120 ohe izateaz gain, ebakuntza eta erditze gelak, unitate bereziko bost ohe eta larrialdiak ere hara bideratuko dira, besteak beste. Gaur egungo eraikin zaharra dagoen lekuan administrazioa, zuzendaritza, laborategiak, egonaldi laburreko unitatea, harrera eta ekitaldietarako aretoa jarriko dira. Hirugarren fasean, egungo eraikinaren zati berria berriztatuko da, kanpoko kontsultak, probak egiteko gelak eta errehabilitazio guneroko. Horrez aparte, ospitale ondoan heliportua egokituko dute.




Dagoeneko lur azpiko azpiegitura berriak jarri dituzte eraikina altxatu behar den tokian. MIRIAN BITERI





Juan Mari Otaegi, Mondragon Taldeko presidenteordea; Jose Maria Aldekoa, Mondragon Taldeko kontseilu orokorreko presidentea; eta Constan Dacosta, Mondragon Taldeko presidenteordea. A.E.

**EKONOMIA** > MONDRAGON TALDEA

# Mondragon Taldean krisirik ez dagoela azpimarratu dute urteko balantzean

2007ko balantze guztiz positiboa egin dute Mondragon Taldeko arduradunek

Txinako eredua jarraituz, Indian ere industrialdea egiteko asmoa azaldu dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Mondragon Taldeak 2007ko gestio txostena aurkeztu zuen martitzenean prentsaurrekoan. Balantze "guztiz positiboa" izan dela eta Mondragon Taldea krisian ez dagoela azpimarratu zuen Jose Maria Aldekoak, Mondragon Taldeko kontseilu orokorreko presidenteak. Aldekoaren ondoan egon ziren prentsaurrekoan Juan Mari Otaegi eta Constan Dacosta, Mondragon Taldeko presidenteordeak. Azken asteetan Mondragon Taldea albiste izan da Ampo kooperatiba taldetik irten delako eta Irizar ere hori aztertzen dabilelako. Hori dela-eta, prentsaurrekoan ikusmin handia piztu zuen gai horrek.

**SALMENTAK HAZI EGIN DIRA**

Lehenengo seihilekoaren oparoaldia eta bigarren seihilekoaren dezelerazioa. Horiek izan ziren 2007ko ekitaldiaren ezaugarri nagusiak, Mondragoneko kontseilu orokorreko presidentearen berbetan. Mondragon Taldearen salmentak %12,4 hazi ziren joan den urtean: 15.056 milioi euro, hain justu. Emaitza bateratuak ia 800 milioi eurora irisi ziren, %17ko hazkundearekin. Korporazio aktiboa guztira 32.840 milioi euroan kokatu zen, aurreko urtean baino %19,2 gehiago.

Langileei dagokienez, 2007ko ekitaldiaren amaieran ia 103.800 pertsona zeuden lanean, 2006an baino 20.130 gehiago; enplegu horietatik, 1.637 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan ziren.

**OINARRIZKO ZUTABEA**

Ezagutzan, berrikuntzan eta sustapenean ere jarraituko dute lanean, eta hor ere egongo da berrikuntza. Goi mailako zuzendaritza exekutibo bat sortzea erabaki dute, lehendakaritzaren menpe, ezagutzan, berrikuntzan eta sustapenean dihardutenerakundeak koordinatzeko. Helburua da balio erantsia sortzea eta enpresa jarduera berriak ateratzea, industrian eta zerbitzuetan.

Aldekoak azpimarratu zuen Mondragonek hastapenetatik egin duela prestakuntzaren eta ezagutzaren aldeko apustua. Jakina denez, Arizmendiarrietak sortu zuen eskola profesional xumea izan zen lehenengo ekimena.

**NAZIOARTEA**

Mondragon Taldeak nazioarteko zabalkundearekin jarraitzen du. "Txinako ereduari jarraituz, Indian ere lurzorua erosteko negoziazio prozesuan gaude", aurreratu du Aldekoak. Maharastra estatuan, Bombay hiriburutik 20 kilometrora izango du Mondragonek industrialdea eraikitzeko aukera. Indian, asmoa Elgoibarko Danobat taldearen makina-erremintarako lantegi bat jartzea litzateke, eta Fagor Industrialeko eta Kidekoko beste bi lantegi ere bai.



**INBERTSIOETAN ERREKORRA**
"Beste urte batez, inbertsioak errekor historikoa gainditu du", azaldu zuen Aldekoak. 2.809 milioi euro inbertitu ziren 2007an, aurreko urtean baino %126 gehiago. Inbertsio global horri esker, enplegua nabarmen hazi zen.

**SALMENTAK %18 HAZI DIRA**
Nazioarteko Diru Fondoak 2008ko munduko ekonomiaren hazkundea %3,7 izango dela iragarri du –iaz baino 1,2 puntu gutxiago–. Hazkundearen zutabe nagusia garapen bidean dauden herrialdeak izango dira: batez ere, Txina, India eta Errusia.

Mondragon Taldearen salmentak urteko lehen lauhilekoan ia %18 hazi dira, batez ere Eroskik Caprabo erosi izanagatik –%38 hazi da Eroski–. Industria jardueran datuak ez dira horren oparoak. Industria jarduera %3,5 bakarrik hazi da, batez ere atzerriko salmentetan oinarrituta, horiek %7 hazi dira-eta. Merkatu nazionalean, ordea, %1 jaitsi dira salmentak eta Aldekoaren ustez horrek argi erakusten du eraikuntzan eta kontsumoan dagoen krisiaren ondorioak azaleratzen hasi direla. Orain arte, eraikuntzaren sektorea aurreko urtean baino 12 puntu gutxiago hazi da eta, kontsumo produktuen sektorea, berriz, bost puntu gutxiago. Aurreikuspenek diote 4.000 lanpostu berri sortuko direla 2008ko ekitaldian.

**URTE ZAILA, EMAITZA ONAK**
Juan Mari Otaegik, Euskadiko Kutxako presidenteak, finantza arloan 2007a urte zaila izan zela esan zuen. Hala ere, emaitzak onak izan ziren. Errentagarritasunari dagokionez, 209 milioi euroko irabaziak izan zituen Euskadiko Kutxak; iaz baino %18,7 gehiago. Baina, batez ere, bezeroari emandako arreta nabarmendu zuen Otaegik. "8,1 puntuko asebetetze emaitza lortu dugu", esan zuen.

**EROSKI: "IZUGARRI URTE ONA"**
Eroski taldeko presidente Constan Dacostak eman zituen banaketa arloko datuak. Eroskirentzat "izugarri" urte ona izan zela azaldu zuen. 2007an hain emaitza onak lortzearen arrazoia Caprabo erosi izana da. Izan ere, modu horretan, bi merkatu handi bereganatu ditu: Katalunia eta Madril.

2007an Eroskik izan zituen emaitzak ondokoak izan ziren: 7.619 milioi euroko salmentak; 223,2 milioi euroko irabaziak; eta 55.482 langile.

**ESANDAKOAK GEZURTATU ZITUEN**
Tonu serioan, prentsan irakurritako hainbat titular ezeztatu gura izan zituen Aldekoak. Esan zuen gezurra dela Orona eta Ulma kooperatibak taldetik irtetea aztertzen dabiltzala. Bi kooperatiba horiek Mondragon Taldearekin guztiz "lerrokatuta" daudela gaineratu zuen.

## Oinarrizko datuak 2007ko abenduaren 31n

| | 2006 | 2008 | ALDAKETA % |
|---|---|---|---|
| **ENPRESA GARAPENA** | | | |
| Mondragoneko aktibo osoa | 27.550 | 32.840 | 19,2 |
| Mondragoneko baliabide propioak | 4.696 | 5.078 | 8,1 |
| Mondragoneko emaitza bateratuak | 677 | 792 | 17,0 |
| Salmentak guztira (Industria eta Banaketa) | 13.390 | 15.056 | 12,4 |
| Mondragoneko inbertsio guztiak | 1.243 | 2.809 | 126,0 |
| **ENPLEGUA** | | | |
| Langile kopurua | 83.601 | 103.731 | 24,1 |
| Kooperatiben plantilekiko bazkide % | 80 | 79,2 | -1 |
| **PARTAIDETZA** | | | |
| Bazkide langileen baltzu-kapitala | 2.282 | 2.290 | 0,4 |
| **ELKARTASUNA** | | | |
| Gizarte jarduueretara zuzendutako baliabideak | 34 | 39,5 | 16,2 |

ITURRIA: MONDRAGON TALDEA. (DIRU KOPURUAK, MILIOI EUROTAN)



Mondragon Taldearen irudi berria. GOIENKARIA

**JOSE MARIA ALDEKOA** > MONDRAGON TALDEKO KONTSEILU OROKORREKO PRESIDENTEA

# "Taldeari baino kanpoko irudiari egiten dio min handiagoa Ampo eta Irizar auziak"

Aldekoak onartu zuen Ampo eta Irizarrek gestio modelo berezia dutela; baina esperientzia denen fruitua dela esan zuen

**A.E.** > ARRASATE

Kazetarien galderen zain egon beharrean, Ampo eta Irizar auziaren gainean berba egin zuen Aldekoak, "duena baino garrantzi handiagoa" eman zaiolako hedabideetan. Prozesu "normala" dela esan zuen. Gaineratu zuen "erregulatuta" dagoen prozesua dela eta Ampo taldeak behar den moduan egin dituela gauzak.

Onartu zuen egia dela Ampo eta Irizar kooperatibek gestio modelo berezia dutela. Baina modelo hori esperientzia ezberdinen emaitza dela gaineratu zuen. Adierazi zuen kooperatiba bakoitzak bere gestio modeloa martxan jartzeko eskubide osoa duela.


Jose Mari Aldekoa. GOIENKARIA

**KALTEA IRUDIARI**
Erabaki horrek eragindako kaltearen gainean, Aldekoak esan zuen kaltea kanpoko irudiari egin zaiola batez ere eta ez horrenbeste taldeari. "Indartsua eta bateratua den talde batetik norbait irteten denean, beti egiten da kaltea; batez ere taldearen irudiari".

Azkenik, esan zuen elkarte barruko kooperatibek Ampo eta Irizarrekin duten salerosketek ez dutela zertan egoera nabaritu. Salerosketek berdin jarraituko dutela esan zuen.

**JON AGIRRE** > AMPO KOOPERATIBAKO PRESIDENTEA

# "Taldea uzteko arrazoia antolaketa eredua izan da"

Erabakiarekin indartuta aterako direla uste du eta orain arte bezala jarraituko dutela kooperatibekin elkarlanean

**A.E.** > BERGARA

Mondragon Taldea uzi duen lehenengo kooperatiba izan da Idiazabalgo Ampo. Jon Agirre Ampo Kooperatibako Zuzendaritza Kontseiluko presidenteak esan du antolaketa eredua izan dela Mondragon Taldea uzteko arrazoi "nagusia".

Agirrek dio antolaketa horizontala dela Ampok proposatu edo gura duena. "Kooperatibako pertsona guztien partaidetzarekin hartu behar direla erabakiak uste dugu. Guztira 500 lankide bagara, badakigu dena denen artean ezin dela erabaki; baina ez ditugu erabakiak pertsona gutxi batzuen esku utzi gura", dio Agirrek.

**ANTOLAKETA PIRAMIDALA**
1992an MCC sortu zenean Ampo ez zen sartu korporazioan. " Beste kooperatiba batzuk sartu ziren bezala", azaldu du Agirrek. MCCk Amerikeetatik inportatutako antolaketa piramidala proposatzen zuen. Botere "zentralizatua", Agirreren berbetan. "1992an sartu gabe geratu ginen, eskualdeka antolatuta zegoen kooperatiba taldea sektoreka antolatu behar zela erabaki zutelako", argitu du Agirrek. Ampo 2002an sartu zen MCCn.

**KONPROMISOA**
Agirrek dio euren gestio modeloa ez dela besteena baino hobea edo txarragoa: "Guri balio digun modeloa da". "Lan egiteko garaian, ondorio ezberdinetara iristen gara modelo ezberdinekin", dio Agirrek. Hala, norabide ezberdinak har ditzaketela eta, ondorioz, helburuak ere ezberdinak izan daitezkeela esan du Ampoko Zuzendaritza Kontseiluko presidenteak.

Agirrek, baina, argi utzi gura izan du kooperatibismoarekin guztiz konprometituta daudela. "Erabaki honekin indartuago aterako garela uste dugu; bai gu eta baita kooperatibagintza ere", dio. Gaineratu du, orain arte bezala, gainontzeko kooperatibekin elkarlanean jarraituko dutela.

**KULTURA** > MUNDUMIRA BERGARAN

# Hiru tenpluen ibilbidea egingo dute bihar, Mundumira jaia hasi aurretik

## 05:45ean irtengo da autobusa Oñatiko parrokiaren aurretik, 49 kilometro egiteko

## Bestalde, zabalik dago ekainaren 7an egingo duten mendiko bizikleta ibilaldirako izenematea



Alpha Blondy taldea egubakoitzean, ekainak 6, egongo da Bergaran. Munduko reggae talderik ezagunenetarikoa da. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Ekainaren 6an, 7an eta 8an Bergaran ospatuko den Mundumira munduko kulturen festa motorrak berotzen hasi da dagoeneko. Hain zuzen, datozen egunetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte; besteak beste, ibilaldiak, hitzaldia eta ikus-entzunezkoak.

Aloña Mendi mendi taldearen laguntzarekin, Hiru tenpluen ibilbidea egingo dute, oinez, bihar. Hain justu ere, GR-120 bidea jarraituz, Loiolako Santutegitik abiatuta, Zumarragako La Antigua ermitaraino joan, eta Arantzazun bukatzeko. Autobusa 05:45ean irtengo da Oñatiko parrokiatik Loiolara joateko.

Bestalde, mendi ibilaldien bisita gidatuen barruan, Izenen bira, gure arrastoen bila izeneko egingo dute gaur, 19:30ean hastia. Ordu bateko iraupena izango du irteerak, eta euskaraz izango da.

**HITZALDIA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA**

Bestalde, hitzaldi bat eta bi ikus-entzunezko egingo dituzte datorren astean. Hitzaldia Mozambikeko garapenaren ingurukoa izango da eta Eskoriatzako Ibarraundi museoan egingo dute astelehenean, 19:00etan. Elkarhezitzen elkarteak antolatuta, emakume generoaren inguruan berba egingo dute.

Bestalde, ikus-entzunezkoak martitzenerako eta egubakoitzerako iragarri dituzte. Mikel Bringas izango da *Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia* izeneko emanaldia egingo duena. Hain zuzen ere, datorren martitzenean izango da hori, Antzuolako Olaran etxean, 19:00etan.

Hurrengo eguenean, jaia hasi aurretik, *Shambala, la puerta secreta de la paz* izeneko dokumentala aurkeztuko dute Bergarako Aroztegi aretoan, 19:00etan.

**MENDIKO BIZIKLETA: IZENEMATEA**

Mundumiraren berrikuntzetako bat Bergara eta inguruetara ekainaren 7an egingo duten mendiko bizikleta ibilaldia izango da. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago, 902 18 14 71 telefonora deituta. Ibilbidea hau izango da: Bergara-Gorla-Irukurutzeta-Karakate-Soraluze-Bergara; eta 44 kilometro izango ditu.

**ASTE BUKAERAKO JAIA**

Mundumira jaiaren irekiera ekitaldia, ekainaren 6an, 17:30ean egingo dute Bergaran, eta domekara arte, hainbat ekitaldi egingo dituzte. Besteak beste, Alpha Blondy, Oreka Tx, Tasha's World eta Derviches del Cairo taldeen kontzertuak, Open boulder txapelketa, kultur ibilaldiak eta mendi eta bidaia azoka. Bergara erdigunean bost gune zehaztuko dituzte Mundumirako ekitaldi guztiak egiteko.

### Irteera, hitzaldia eta ikus-entzunezkoak

**Maiatzak 31**
05:45: Hiru tenpluen ibilbidea. GR-120 bidea jarraituz, Loiolako Santutegia, La Antigua ermita eta Arantzazu tarteko, 10 ordu eta 49 kilometroko ibilbidea.

**Ekainak 2**
19:00: *Alamitou, Desarrollo en Mozambique* izeneko hitzaldia, Elkarhezitzen elkarteak antolatuta. Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

**Ekainak 3**
19:00: *Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia* izeneko ikus-entzunezkoa, Mikel Bringasen eskutik. Antzuolako Olaran etxean.

**Ekainak 5**
19:00: *Shambala, la puerta secreta de la paz* dokumentalaren aurkezpena. Bergarako Aroztegi aretoan.
19:30: Bakearen mandala egingo dute monje tibetarrek, Aroztegin.

ARANZADI ikastola

**T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA**

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2008ko ekainaren 18an egingo da, **arratsaldeko seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan** bigarren deialdian, Bergara herriko San Martin plazako UNEDeko Areto Nagusian (Plazako atetik sartuz).

**GAI-ZERRENDA**
1. Akta onartzeko kideak izendatzea.
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2007/08 ikasturteko memoria.
4. 2008/09 ikasturteko egitasmoa.
5. 2007 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea.
6. Soberakinen banaketa.
7. 2008 urteko aldizkako kuoten onarpena.
8. Galde-erantzunak.

Bergaran, 2008ko maiatzaren 29an

Lehendakaria
Begoña Lasagabaster Garziaetxabe

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEA

**BATZAR OROKORRA**

**DEIALDIA**
**Data:** 2008ko ekainaren 5a
**Ordua:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.
**Tokia:** Arrasateko Kulturaten izango da, Jokin Zaitegi gelan.

**GAI ZERRENDA**
1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2007ko ekainaren 7ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2007ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2007ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2008ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Bazkide ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Hasierako ekarpenak eta bazkideen sarrera kuota eguneratzea, KPIa hartuaz eguneratze indizetzat.
9. Kontseilu Sozialeko kide berriak aukeratzea.
10. Errektore Kontseiluko kide berriak aukeratzea.
11. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2008ko maiatzaren 12an.
Errektore Kontseiluko lehendakaria.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**GIZARTE ZERBITZUAK**

## Leku gehiago Ibarreko egoitzetan

**NEREA MENOR** > BERGARA

Biztanleria zaharkitze prozesuan dago sartuta. Alor horretako arazoei aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen II. Maparen zirriborroa aurkeztu zuen. Pertsona nagusien, minusbaliatuen eta adin txikikoen beharrak asetzeko egingo dena azaltzen da bertan. Debagoienean egoitzazko zerbitzuetan 128 plaza berri egongo dira, aldi baterako egonaldietarako 35 plaza sortuko dira eta etxez etxeko laguntzan 141. Beste hainbat zerbitzutan ere igoko da plazen kopurua, adibidez minusbaliatuentzako egoitzetan, teleasistentzian eta familien sostenguaren alorrean.

**IRUZURRA** > DIRUA ATERATZEKO GUTUNAK IBARREAN

# "Iruzur handia da guztia, ziria sartu nahi digute, baina ez zaie kasurik egin behar"

Ustez iruzurretan dabilen FER enpresa Jesus Uranga arrasatearrari ziria sartzen ahalegindu da

**NEREA MENOR** > BERGARA

Vodafonen izenean FER Treym izeneko enpresa bat gutunak bidaltzen dabil ibarrean. Arrasateko Jesus Urangari heldu zaio bat, eta dioenez, Oñatiko andre bati ere heldu zaio beste bat. "Jendeari kontuz ibiltzeko esan nahi diot, eta horrelako eskutitzen bat helduz gero, jaramonik ez egiteko. Iruzur handia da guztia, ziria sartu nahi digute, ez zaie kasurik egin behar".

Jesus Urangak 1999a ezkero dauka Movistar enpresarekin telefonia zerbitzua kontratatuta. Duela egun batzuk, FER Treym enpresatik eskutitz bat bidali zioten. Eskutitzean, Vodafonerekin 21,36 euroko zorra zuela jartzen zuen. Momentu hartatik aurrera, arrasatear hori harantz eta honantz ibili da. Vodafoneko dendara lehenengo, gero epaitegira eta telefonoa eskuan egun osoa. Epaitegian, iruzurra izango zela esan zioten, eta kasurik ez egiteko. "Ez naiz trikimailu horretan jausi, baina pena ematen dit gehienbat jende nagusiak. Agian, horrelako zerbait heldu eta zorrik ez izateagatik ordaindu egingo dute. Hori ez gertatzeko jarri naiz kontaktuan hedabideekin", esan du Jesus Urangak.


**Ref.: 909111636**

En cumplimiento del artículo 347 del Código de Comercio, ponemos en su conocimiento que la totalidad de la deuda que Vd. mantiene hasta la fecha con **VODAFONE ESPAÑA, S.A.** por los servicios prestados por esta entidad ha sido transferida a **FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV,** con domicilio social en Amsterdam, Herengracht 469, 1017 BS, con fecha 19 de diciembre de 2007, resultando por lo tanto ésta legítima titular de todos los derechos de crédito que hasta dicha fecha ostentaba Vodafone España, S.A. frente a Vd.

En consecuencia, le informamos de que, a partir de la recepción de esta comunicación, **queda Vd. obligado a satisfacer el importe de dicha deuda que, con fecha de 20 de febrero de 2008, ascendía a 21,36 €, intereses no incluidos, a FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV,** no entendiéndose como pago legítimo otro distinto al realizado a ésta última, cuyos datos a efectos de pago son los siguientes:

**TITULAR DE LA CUENTA:** FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES BV
**ENTIDAD:** 0049 OFICINA: 1893 **DC:** 03 **CUENTA:** 2810373605
**Por favor, hagan constar en el ingreso en primer lugar el número de referencia de la presente comunicación, en segundo lugar su DNI/CIF y su nombre y apellidos. Pueden el justificante de ingreso al fax número: 902 881 331**

En este sentido, FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV como compradora de los derechos de crédito, le comunica que ha designado a la entidad **Treym Consulting y Servicios a Empresas, S.L.U.,** con domicilio en C/ Hermanos García Noblejas, 39-3ª Planta, **Tfno: 902 881 332** como entidad encargada de la gestión de cobro de los créditos cedidos, la cual se pondrá en breve en contacto con Vd. con el fin de gestionar el cobro de la deuda derivada de los derechos de crédito cedidos por cuenta de FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV.

Del mismo modo, y de conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal ("LOPD") y su normativa de desarrollo, VODAFONE ESPAÑA, S.A. le informa que sus datos personales se facilitarán a FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV, junto con el derecho de crédito cedido, de acuerdo a lo indicado en el párrafo siguiente de la presente comunicación, con la finalidad de facilitar la transferencia de la totalidad de la deuda que Vd. mantiene hasta la fecha con VODAFONE ESPAÑA, S.A. y que a partir de la recepción de esta comunicación deberá satisfacer a FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV.

Por tanto, FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV le informa de que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5.4 de la LOPD, sus datos personales serán incluidos en un fichero titularidad de esta empresa en la dirección arriba indicada con la finalidad de poder gestionar la totalidad de la deuda que Vd. mantiene hasta la fecha con VODAFONE ESPAÑA, S.A. y que a partir de la recepción de esta comunicación deberá satisfacer a FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, BV. Esta última, en su condición de responsable de tal fichero, tratará los datos para la exclusiva finalidad de poder ejercer y gestionar los derechos de cobro que ostenta frente a Vd., guardando estricta confidencialidad y pudiendo a tal fin enviarle cartas, comunicaciones y cuestionarios que tengan por objeto reclamar, gestionar e informarle sobre la situación de los derechos de crédito cedidos o recabar de Vd. información sobre su voluntad de satisfacer su deuda, así como la forma y plazo en que lo hará

Por último, le informamos de la posibilidad de ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición mediante petición escrita dirigida a la a la entidad Treym Consulting y Servicios a Empresas, S.L.U., gestora del cobro, con domicilio más arriba indicado, adjuntando copia de su DNI, pasaporte u otro documento que acredite su identidad. La entidad Treym Consulting y Servicios a Empresas, S.L.U. gestionará las peticiones de ejercicio de estos derechos por cuenta de FONDO ESPAÑOL DE RECUPERACIONES, B.V.

Atentamente,

Jesus Urangari heldu zitzaion gutuna. GOIENKARIA

Vodafoneko bulegora joan eta telefonia enpresatik FER-era deitu zuten. "Nire kontraturen bat edukiz gero, faxez Vodafonera bidaltzeko eskatu eta bidali ondoren, berbetan hasiko ginela adierazi nien. Baina nik badauzkat 1999. urtetik aurrera Movistareko paperak. Gainera, Vodafoneko hiru telefono linea genituela esaten didate FER enpresan, eta hori guztiz ezinezkoa da, emazteak eta biok bakarrik genuenta Vodafoneko mugikorra".

Vodafoneko bulegoan oso ondo hartu dutela diote: "Bertako neska oso jatorra izan zen. Eta azaldu zidanez, ez da beraien konpetentzia orain. Duela urte batzuk, Airtel konpainia erosi zuen Vodafonek. Kontatu zidatenez, agian Airtelekoek bidali zituzten orri edo dokumentu horiek".

**IRUZURRAREN MAMIRA**

"Ni neu lasai nago, badakit ez dudala inolako zorrik inorekin. Baina ez naiz konformatzen. Salaketa jarri dut epaitegian. Amaiera arte jarraituko dut honekin. Hedabide guztietan berri hau irtetea gustatuko litzaidake, konpainia hori ondoratzea nahi dut, iruzur honengatik", dio Urangak.

## EAE-ANVren zerrendak baliogabetzea salatu dute

Apirilaren 27an urtebete bete zen azken udal hauteskundeak egin zirenetik. Haietan, EAE-ANV alderdiaren zerrendak baliogabetu zituzten, beste hainbat herritan bezala, Aretxabaletan eta Oñatin. Hori salatzeko, elkarretaratzeak egon dira Aretxabaletan martitzenean eta Oñatin eguenean.

Aretxabaletako kasua berezitzat jo zuen Larraitz Arondo hautetsiak. Bertan, zerrenda bozkatuena izan zen EAE-ANV eta hasieran aurrehitzarmen bat lortu arren, asmoa ezerezean geratu zen.




GOIENKARIA

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

CANON KAMERA
EROSKI zurekin


KAMISETA+POLTSA
skunkfunk


ZIRA+KAMISETA
EKFB Euskal Selekzioa


KAMISETA+URTEBETERAKO HARPIDETZ +ALDIZKARI SORTA
EUSKAL HERRIA


SARI NAGUSIA:
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA


SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

## gure artekoak

**GOLF TSI** > Urteak daramatza Volkswagen etxeak Golf auto modeloarekin; orain dela urte batzuk diesel mundua irauli zuten eta orain, gasolinazko motorraren iraultza egin gura dute. Hala azaldu dute Udalaitzen.

**Felix Elortza** > Udalaitz kontzesionarioko saltzailea

# "Zilindrada txikiko motorraz prestazio ona lortzen da"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Motorrean du aldaketa handiena Golf berriak. TSI motorrekin potentzia handia eta kontsumo txikia lortu gura da. "Zilindrada txikiko motorrak izan arren, prestazio handiak lortzen dira. 122, 140 eta 170 zaldi potentziako motorrak dira. Gainera, kontsumoa txikiagoa izatea dakar motor tipo horrek", azaldu du Felix Elortzak, Udalaitz kontzesionarioko saltzaileak.



Felix Elortza, Golf auto gorri-gorriaren ondoan. ARANTZAZU EZKIBEL

**MEKANIKA IRAULTZAILEA**

Txapelketatik kanpoko motorretan, TSI motorra da turbo sistema eta konpresore sistema uztartzen dituen bakarra. *Twincharger* sistemaren bitartez, potentziaren eta kontsumoaren arteko oreka bilatzen da.

"Turbo motorrek biraketa-abiadura txikietan ez dute ondo erantzuten. TSI motorrarekin, biraketa-abiadura txikietan konpresore bolumetrikoa pizten da. Hala, hasieratik erantzuten du ondo motorrak", dio Elortzak.

**ZAZPI ABIADURA**

Beste berezitasun bat abiadura kaxa da. Eskuko aldaketa kaxa sei abiadurakoa da. Baina DSG sekuentziala zazpi abiadurakoa da. Merkatuan dagoen bakarra dela esan du Elortzak.

### Golf TSI 122 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 19.810 euro |
| Luzera | 4,20 metro |
| Zabalera | 1,76 metro |
| Maletategia | 350 litro[1] |
| Kontsumoa | 6,3 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 197 km/h[3] |
| Otik 100era | 9,4 seg. |
| CO2 isurketak | 149 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**SEGURTASUN OSOA**

Segurtasunari dagokionez, Elortzak esan du segurtasun sistema guztiak dituela: "ABS sistema; ESP sistema; aurreko, atzeko, buruko eta aldamenetako airbagak eta beste hainbat. Guztiak prezioaren barruan sartzen dira", azpimarratu du Elortzak.

Bestalde, fabrikazio kalitatea goraipatu du Elortzak. Karrozeria laser bidez lotuta dagoela dio: "Luzetara nabaritu egiten da. Gogorragoa da eta zarata txikiagoa ateratzen du", esan du Elortzak. Autoaren egonkortasuna ere azpimarratzekoa da.

## etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > iarantzabal@goiena.com

# Komunikazioan sakondu beharko kooperatibetan

Otaegi, Aldekoa eta Dacosta prentsaurrekoan: ondo ei doa MCC zena eta orain Mondragon Taldea deitzera ohituko garena. Ampoz ere diplomatiko: "Barne araudiari jarraituta utzi du taldea Ampok...". Jon Agirreren esanak irakurri ditugu *Gara*-n: "MCCrekin elkarlanean talkak sortzen dira, arrazoi nagusia antolaketa eredua da, beste leku batean lau katuren artean erabakiak hartu beharrean guk 50 lagunen artean hartzen ditugu...".

Ez dugu ulertzen. Kaleko esamesak zein bazkideenak askotarikoak dira: egiak eta ez hain egiak. Zuzendarien esanetatik ateratzen den ondorioa da beste zerbait ere badagoela, kontatzerik gura ez dutena.

> "Azaleko prentsaurrekoak laga elkarrizketa sakonagoen mesedetan"

Elkarrizketa sakonak ematea eskatzen diet Mondragon Taldekoei eta Ampori. Agiri eta prentsaurrekoak utzi eta komunikatu. Aukera dute orriotan, GOITBn, sarean, irratian...

Formazioa falta zaigu 50 urte dituen euskal esperientzia kooperatiboa askoz gehiago dela konturatzeko, gaurko ekonomia globalizatuan gizartea eraldatzeko moduetan sinisteko, izate instrumentalari bizi-zentzua gailentzeko... Bat izanda edo bi, baina ez utzi bazter amestea.

**> Mondragon** Taldean **badabiltza enpresa eredua birpentsatzen. Amporena ere sartzen ei da ereduan, zuzendariek diotenez. Hori horrela, zergatik ez daude taldearen barruan? Argituko digute inoiz?**

**> Sakondu** eta eraberri**tu beharko du Mondragon Taldeak ere estadio globalizaturako proposamenak egiten, ze hasierako karga ideologiko-utopikoa apaldua dago gaur egun, irauli eta gaurkotu beharrean.**

## begi-bistan




**Lapurrentzako abisua (Eskoriatza) 2008/05/15**

**Argazkia:** Arantzazu Ezkibel.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Eskoriatzako Aingeru Guarda ermitaren ondoan dagoen ortuan dago kartela; lapurrentzako abisua da, hain justu. Norberak erein duenaren fruitua norberak jaso behar du. Ez beste inork.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Amaia Cid**
AKTOREA

Gasteizko Ortzai antzerki taldeko kide oñatiarrak antzezlana estreinatuko du bihar, Oñatiko Santa Ana antzokian. Hain justu ere, taldeko zuzendari Iker Ortiz de Zaratek zuzendu duen *Las bodas de Figaro* izeneko antzezlana eskainiko dute, 22:30ean hasita.



**Antxon Hernandez**
SASKIBALOI JOKALA.

Mondragon Unibertsitateko saskibaloi jokalari Antxon Hernandez eta Imanol Zeziaga Euskadiko Selekzioarekin entrenatuko dira bihar.

Desarrollo Utebo taldeko jokalari Beñat Barberena arrasatearrak ere parte hartuko du entrenamenduan.



**Yerai Varela**
KORRIKALARIA

Oñatiko korrikalariak urrezko domina jantzi zuen, maiatzaren 25ean jokatutako Gipuzkoako atletismo txapelketan, Hain zuzen ere, lehenengo tokian bukatu zuen 1.500 metroko proba. Gainera, proba berean, Sergio Gartzia oñatiarrak bigarren tokian bukatu zuen.

Mertxe Sagarnak Arrasateko Aita Menni ospitalean egiten du lan. Azken urteetan, Emergentzietako Berehalako Erantzuneko taldeetan dihardu, larrialdi egoera jasan duenari edo senitartekoei laguntza psikologikoa eskaintzen. Horrelako egoeratan lan egitea ez dela batere erraza onartu du. Hala, talde horietan sartu ahal izateko heldua izan behar dela dio.

**Mertxe Sagarna** > Psikologo klinikoa

# "Larrialdietako taldeetan jarduteko formazioa eta heldutasuna behar da"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Aita Menni ospitaleko psikologo Mertxe Sagarna Emergentzietako Berehalako Erantzuneko taldeetan aditua da. Horietan esku hartzen du eta horren gaineko ikastaroak ere ematen ditu. Larrialdi baten aurrean nola jokatzen duten azaldu digu.**



Mertxe Sagarna psikologo klinikoak Aita Menni ospitean egiten du lan. GOIENKARIA

**Zer-nolako egoeratan egiten duzu lan?**

Gehienbat hondamendi eta larrialdi egoeratan egiten dugu lan. Horrelako egoeren aurrean, laguntza psikologikoa eskaintzen diegu bai biktimei eta baita senideei ere. Egoera batetik bestera alde handia egon daiteke. Askotan egoera normalak izaten dira; istripuak eta halakoak. Orain dela gutxi, esate baterako, haurtzaindegi batera joan behar izan genuen, umetxo bat hil zelako. Gurasoak lagundu genituen. Horrez gainera, atentatuetan ere laguntza eskaintzen dugu.

**Nola funtzionatzen du Emergentzietako Berehalako Erantzuneko taldeak?**

Aita Menni ospitaleak Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin eta beste hainbat erakunderekin akordioak ditu. Horri esker mugitzen gara. Normalean, Alfonso Saez de Ibarra eta ni neu joaten gara, prestatuta gaudelako. Suitzako psiko-traumautologiako eskolan prestatu gara eta baimena daukagu emergentzia egoeratan esku hartzeko.

**Zer-nolako teknikak erabiltzen dituzue horretarako?**

Laguntza zuzena eta berezia dago aurreikusita. Esan beharra dago momentuan bertan ezin dela askorik egin. Momentu hori ahalik eta lasaien pasatzen laguntzen diegu. 72 ordu pasa ostean, prebentzio lanekin hasten gara, gaixo ez daitezen. Jarraibide batzuk ematen dizkiegu, bizimodu normala jarraitzeko.

**Hortik aurrera arazoren bat edukiz gero, zer?**

Tratamenduan jartzen dira. Hori dagoeneko ez da emergentzia egoera. Tratamendu horrek ez dauka iraupen zehatzik, pertsona horrek bizi izan duen traumaren araberakoa izaten da. Normalean, urtebete irauten du, gutxienez.

**Zeintzuek osatzen dute Emergentzietako Berehalako Erantzuneko taldeak?**

Gehienak boluntarioak dira: medikuak, psikologoak eta larrialdietarako sorosleak. Guztiok osatzen dugu talde bat. Helburua da laguntza psikologikoa ematea. Bakoitzak badaki zer egin behar duen, baina norberaren lana ez da askorik aldatzen; oso antzekoa da.

**Zu zeu nolatan sartu zinen horretan?**

Txikitatik trauma zuten pertsonekin lan egiten hasi nintzen kontsultan. Formazio handirik ez nuela ikusi nuen, eta, beraz, formazio berezia egiten hasi nintzen. Dagoeneko sei urte daramatzat horretan eta oraindik asko daukat ikasteko. Izan ere, trauma aldatu egiten da. Gizartearekin aldatzen doa. Hondamendi eta emergentzien larritasunaren arabera, erreakzioak aldatzen dira.

**Zer-nolako faktoreek eragiten dute aldaketa hori?**

Zeresan handia du egoera horren aurretik norberak izan duen bizimodua. Bestalde, genetikoa ere izan daiteke; nola prestatuta zauden egoera horretatik irten ahal izateko. Larrialdiak berak ere garrantzi handia du.

LARRIALDIETAN

**"Momentuan bertan ezin da askorik egin; momentu hori ahalik eta lasaien pasatzen laguntzen diegu"**

BIZIMODU OREKATUA

**"Psiko-traumatologia egin ahal izateko, adibidez, 30 urte beteta eduki behar dira; bizimodu orekatua izatea ezinbestekoa da"**

EGOERA GOGORRENA

**"Bost hilabeteko umea hil zenean, amari laguntza eskaini nion; ama naiz, eta pena handia eman zidan"**

**Ikastaroak ere eskaintzen dituzu. Joan den astean, esaterako, Iruñean egon zinen. Zertaz dira ikastaro horiek?**

Gurutze Gorriak eskatuta eman dugu ikastaroa. Espainia osotik etorri dira. Helburu nagusia da egoera larrien aurrean zelan erantzun behar den irakastea. Ikastaro horietan parte hartu dutenek lehen laguntza psikologikoetako ikastaroa egina zuten aurretik. Lehenengo zatian teoria eskaini genien eta bigarrenerako aktore batzuk eraman genituen, erakutsitakoa praktikara eramateko. Ikasleendako gogorra izan zen.

**Ez da erraza izango horrelako egoeratan lan egitea...**

Ez da batere erraza. Baina teknika batzuk daukagu gure biziztan ahalik eta eragin txikien eduki dezan. Baina egoera larri eta traumatikoak bizitzea tokatu zaienak bezala. Kontuan hartu behar da horien %15 bakarrik gaixotzen direla.

**Horren harira, nola egiten diozue zuek aurre horri? Laguntza behar izaten duzue?**

Formazioarekin betetzen dugu. Formazio handia duena babestuago dago. Beste baldintza garrantzitsu bat dago: pertsona heldua izan beharra dagoela. Iruñeko kurtsoan, esaterako, arazoak eduki ditugu. Jende gazteegia etorri da eta praktikak egin ditugunean, batzuek ezin izan zioten egoera horri aurre egin. Psiko-traumatologia egin ahal izateko, adibidez, 30 urte beteta eduki behar dira. Bizimodu orekatua edukitzea ezinbestekoa da.

**Azkenik, zein izan da bizi izan duzun egoera gogorrena?**

Bost hilabeteko umea hil zenean, amari laguntza eskaintzea. Ama naiz, eta pena handia eman zidan. Egunero daukagu horrelakoak.



zabalik

Rufina Olasagasti

# Elkarbizitza

Pasa berri diren Musakolako jaietan Al-Andalus kultur elkarteko mastetan Arrasateko bandera, Andaluziakoa eta ikurrina zeudela jarriak ikusi dugu. Aurretik, ikusi genituen baita Arrasatekoa, Extremadurakoa eta ikurrina, San Andresko Corazon de Encina elkartean.

Andaluziako eta Euskal Herriko sinboloak Arrasaten: berdinetik berdinerako erlazioaren erakusle. Hau planteatzeak, ordea, kulturartekotasun ikuspegia eskatzen du, interkulturalitatekoa: bestearen kulturara hurbilketa kritikoa egitea eta baita norberarenera ere, eta haren kultura eta bizimodua ezagutzea, inork ez dezan pentsa berea besteenaren gainetik dagoenik.

Kulturartekotasuna kulturen nahasketa baino zerbait gehiago da, kultura ezberdinen ezagutza, errespetua eta egiazko elkarbizitza, elkar komunikatzen eta elkar errespetatzen duten pertsona ezberdinek osatzen duten gizartea.

**"Kultura ezberdinen elkarbizitza nahi dugu bailararako"**

**"Berdintasuneko elkarbizitza nahi duenak bi hizkuntza ofizialak ikastea beharrezkoa du"**

Ideia polita dirudi, baina baita zaila ere, ez baita erraza kultura ezberdinetako pertsonen arteko elkarbizitza, baina hau da gure bailararako nahi dugun elkarbizitza, guztiok eskubide eta betebehar berdinekin, emakumeak eta gizonak, bertan sortuak eta baita Estatu barneko edo kanpoko kultura batzuetan sortutakoak ere.

Emakume etorkinekin lanean ari den profesional batek aurrekoan esaten zuen "emakume erdaldunek bere garapenerako euskara ikasi behar dute", eta baieztapen honek berdin balio du gizonentzako ere, etorkinentzako nahiz bertan sortutakoentzako. Izan ere, berdintasuneko elkarbizitzan bizi nahi duenak, bi hizkuntza ofizialak ikastea eskubidea izateaz gain, beharrezkoa ere badu, gizarteko kide izateko eta hala sentitzeko, eta gizartean nahiz lan munduan aukerak gehitzeko.

herritarrak galdezka

## NON ESKA DEZAKET ONA TXARTELA DEBAGOIENEAN?

**Osasun Txartel Indibiduala ordezkatuko du Ona txartelak. Irakurle batek galdetu digu Debagoienean zein herritan eska daitekeen txartel hori, eta, bestetik, zertarako balio duen.**

Hasieran, Debagoieneko hiru herritan jarri zen Ona txartela tramitatzeko aukera: Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Horiez gain, Aramaioko KZgunean ere badago horretarako aukera. Eta, azkenik, Oñatiko KZgunean oraingo astean bertan hasi dira Ona eskatzeko tramiteak egiten; goian aipatutako herriekin batera hastea zen asmoa, baina, arazo batzuk tarteko, azkenean ere, orain eskainiko dute aukera hori.

Denetan ere, eskaera egiteko baldintzak eta prozedura berberak dira: nahikoa da 16 urte izatea eta Osasun Txartel Indibidual baten jabe izatea. Txartel hori eta Nortasun Agiria aurkeztu behar dira KZgunean. Han, eskaera orria beteko dute, eta handik pare bat astera jasoko dute Ona txartela.

Osasun Txartel Indibiduala ordezkatzeaz gain, beste era askotan erabili ahal izango da Ona: oro har, maila guztietako erakunde publikoekin –udala, Foru Aldundia, Jaurlaritza eta Espainiako administrazioa– tramiteak eta hartu-emanak egiteko balioko du, osasun, kontratazio, ogasun… arloetan eta beste askotan. Argibide gehiago dago 900 84 08 84 telefonoan edo *www.euskadi.net* webgunean.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ZER EGIN ETXEBIZITZEN ZOZKETAN PARTE HARTZEKO?

**Arrasateko irakurle batek honako galdera egin digu: "Etxebiden izena emanda nago, baina jakin gurako nuke ea hori nahikoa den etorriko diren zozketetan parte hartzeko edo beste zerbait egin behar dudan".**

Arrasateko Udalean galdetuta, erantzun digute oraindik prozedura ez dagoela erabakita: aukera bat da Etxebiden izena eman eta Arrasaten etxebizitza eskatzeko baldintza guztiak betetzen dituzten guztiak zuzenean zozketan sartzea, eta bestea, aipatutakoaz gain, Udalean berriz izena eman behar izatea zozketa jakin baterako. "Erabakitzen dena jakinaraziko da komunikabideetan eta Udaleko webgunean", esan digute.

Edozelan ere, irizpideak ez dira beti berberak. Hala, prezio tasatuko etxebizitzak direnean, udal bakoitzak beste baldintza batzuk eta izena emateko derrigortasuna ipin ditzake. Kasuan kasuko informazioa lor daiteke *www.etxebide.info* webgunean edo dagokion Udalean.

marrazkiz

Alex Ugalde




Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

blog

## Sexu-biribilguneak

**Anjel Lertxundi**
berria.info/blogak/lertxundi

Irakurle, orain ere badunk zer ikasia, Emakundek aholkatu berri dink-eta hitanoaren erabileran femeninoaren eta maskulinoaren atzizkiak elkartzea. Eta ausardia ez akademiko horri beste bat ere erantsi behar zaionk: Emakundek autoritate ez akademiko baten zilegitasuna baliatu dink aholkua indartzeko: "Antton Olariaga marrazkilariak estrategia hori erabiltzen du Zakilixut izeneko komiki tiran".

Ederra!, aipamena justizia poetikoa egitera zetorkionk-eta hainbatetan hainbatek, onkeriaren onkeriaz, obsesibokiegi ulertu duen Zakilixuten obsesioari.

Baina ni nagonk Olariagak eta Zakilixutek igandean bazekitela Emakundek aipamena egingo zietela astelehenean, apustu egingo nikenk konpontxo eginda zeudela biak Emakunderekin, erreparatu bestela Zakilixutek igandeko tiratxoan egiten zigun analisiari:

"Okerrenak sexu-biribilguneak izaten ditunk… desbideratzerik ez ta beti hor jiraka".

## Txikilikutreren kontuak

**Iñaki Atxutegi**
bizkaie.biz/blogs/bg1

Kokoteraino nago horrenbeste txiki-txikigaz. Honeek lerrook idazten dodazan bitartean Eurovisionen botazinoak dagoz martxan. Burumakur dagoz komunikabi-

plazara

**Fibromialgia eta neke kronikoa oraindik ez dira oso ezagunak; hala, mediku askok oraindik ez dituzte gaixotasun moduan hartzen, eta gaixoen ingurukoek ere, askotan, ez dute ulertzen. Egoera horri buelta emateko Bizi Bide elkartea dago, Gipuzkoako Fibromialgia eta Astenia Kronikoaren Elkartea; orain, Arrasaten egoitza dauka. Artikuluan, kide batek gaixoen egoera eta eskaerak azaltzen ditu.**

Arantza Altzibar *

# Ezjakintasunak, gaitzak baino min handiagoa

Ohiko egun baten hasten da dena; pixkana-pixkana, konturatzen zara zer edo zer zugan aldatzen dabilela: lehen aktibitatea, lanerako gaitasuna, izpiritu ekintzailea eta dibertitzeko gogoa zirenak beste zerbait bihurtzen dira: min etengabeko eta sakon, erabateko neke, muskuluen zurruntasun, loaren kalitate txar, memoria eta kontzentrazio arazo, antsietate, depresio eta zure gorputza, burua eta, are okerrago, zure arima hartu duten sintoma multzo amaigabe.

Gertatzen dabilena ulertu barik, egiten dizuten proba guztiek "normaltasun" osoa erakutsi ondoren, eta "gaixotasun honek" zure bizitzan eta inguruan egiten dituen kalteak ikusi ondoren, gertatzen zaizuna jakin ez baina aurretik epaiak egitera arriskatzen direnei entzun ondoren… orduan, zure buruko osasuna hondatzen hasten da, zoratuta ote nago? Gertatzen dabilena asmatzen egongo ote naiz?

Beharbada zorteko izango zara eta aurpegira begiratuta diagnostikatuko zaituen mediku bat topatuko duzu, benetako gaixotasun bat diagnostikatzen dabilela ziur dagoena. Horiek gutxiengoa dira.

Beharbada, ere, zorteko izango zara eta diagnostikatuko zaituen medikuak ez du gaixotasunean sinistuko, baina errespetatu egingo zaitu. Talde hori gero eta handiagoa da.

Kasu txarrenean, mediku horrek ez du sinistuko gaixotasuna existitzen denik, ez dizu begiratuko edo mespretxuz begiratuko dizu eta, are okerrago, ez zaitu errespetatuko. Horiek oraindik gehiengoa dira.



MIKEL ARROIABE

Zure gertukoenek zuregatik eta zurekin sufritzen dute, gertatzen zaizuna eurek ere ez dutelako ulertzen, eta, batzuetan, tokatuko zaizun medikuaren arabera sinisten dizute… oinarri-oinarrizko lanak egiteko ezgai ikusten zaituzte, gozatzeko ezgai eta lehen gustuko eta lagun zuten zure alde hori eurei ukatuz.

Zer esanik ez lagunak! Behin eta berriz huts egiten diezu, euren erritmoa ezin jarraituta…

Lana, lan bedeinkatua! Mina ezin duzunean jasan, nekeak ez dizu lana egiten uzten, eta zure lan eguna bukatuta etxera iritsi eta zure burua ohean botatzen duzu, sufrimendua pixka bat leuntzeko. Bitartean, lankideek susmoz begiratzen zaituzte, eta zure lana euren gain botatzea aurpegiratzen dizute, eta lan egin behar duzu baja ez dizutelako ematen, edo hura bukatu eta ezgaitasun epaimahaira joan ondoren, "lanera, ez daukazu ezer-eta!", esan dizutelako. Batzuetan, lana utzi egiten duzu; beste batzuetan, ezin duzu bete, edo justiziarengana jotzen duzu eta beste bide zail bat hasten da: gaixotasuna ez dago errekonozituta. Autonomoa baldin bazara, oraindik okerragoa da.

**"Kasu txarrenean, medikuak ez du sinistuko gaixotasuna existitzen denik; horiek gehiengoa dira"**

**"Orain, Arrasaten lokal bat daukagu, eta handik, inguruko kaltetu guztiei Bizi Bideren ekintzak gerturatuko dizkiegu"**

Pribilegiatu gutxik dituzte babesa ematen dieten familia eta lagunak. Gutxiago dira lanpostuan moldatzen direnak edo ezgaitasuna errekonozituta dutenak. Eta oso gutxi, gainera, ingurukoen errespetua dutenak.

Hori da askoren bizitza, populazioaren %4, kalkuluen arabera.

Bide zail bat, Bizi Bide leunago egiten saiatzen dena. Denon artean, egoera berria ahalik eta ondoen hartzeko –terapia, laguntza psikologiko, informazioarekin…– guregana datozenak laguntzeko itxaropenarekin. Fibromialgia eta Neke Kroniko Sindromea ezagutarazteko, eta giza eta lan errespetuaren, osasun arloko prestakuntza eta gaixoenganako tratu on eta gaixo eta langile gisa dauzkagun eskubideen alde lanean jarraituko dugu.

Orain, Arrasaten lokal bat daukagu, Jose Luis Iñarra pasealekuko 32.eko 3B-n, Udalak utzi diguna. Handik, inguruko kaltetu guztiei Bizi Bidek egingo dituen ekintzak gerturatu nahi dizkiegu.

* Bizi Bide elkarteko presidenteordea da Arantza Altzibar.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Jatetxe famatu baten egon zara inoiz?

| | |
|---|---|
| BAI | %40 |
| EZ | %60 |

**> BETIKOA, NAHIAGO**
Nahiago izaten ditut betiko errezetak. Hala ere, gustura joango nintzateke; eta gonbidatzen banaute, hobeto.
**Iñaki**

**> PRIMERAKO BESTE ASKO**
Ez naiz inoiz halakoetan egon, oso garestia da guztia. Sukaldari famatuak ez dituzten primerako jatetxeak ditugu inguruan.
**Enara**

**> HILARIO ARBELAITZ**
Behin egon naiz, Hilario Arbelaitzen jatetxean ezkontza batean. Eta, oso ondo bazkaldu genuen.
**Maialen**

**> NAZKATUTA**
Entzun dudanaren arabera, halakoetan plater handia eta jateko gutxi!
**Xabier**

**> ARZAKENEAN**
Arzaken jatetxean afaldu nuen eta oso gustura irten nintzen. Izugarri gustatzen zaizkit plater berriak.
**Estitxu**

**DATORREN ASTEKOA: Euskal hondartzak ondo daude, zure iritziz?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

de espainiarrak Belgradon txistuka hartu dabelako *Chikichikia*. Botazinotan be ez dabilz ondo espainiarrak. Eta poztuten naz, ze demonio, horrenbesteko kaparradea emon eta gero!

Kanta barregarria egin gura izan eben espainiarrek Eurovisionerako (…). Eta halaxe atara jake espainiarrei. Betiko Espainia atara da: barregarria izan gura eta erridikulua egin.

Erridikulua be egin izan dabe Euskadin dagozan Espainiako adar politikoek. María San Gil popularrak kolpea (politikoa) emon gura izan eutson Raxoiri. Bera atara da kolpatua. Euskadiko bere alderdikide gehienak kontra agertu dira. Ondorioa begibistakoa da: Legebiltzarretik etxera doa María San Gil.

Beste horrenbesteko erridikulua egin izan dau Patxi Lopezek. Hilebeteak emon izan ditu Lopezek euskaldunon arteko akordioak aldarrikatuten. Ibarretxek euskaldun batzuen gurariak baino ez ditu defendiduten Lopezen eretxiz.

Aste honetan bertan Madrileko Congresuan alderdi politiko guztiek adostutakoa botazinora eroan da. Kontzertu Ekonomikoaren "blindajea" eskatuten zan. Badakizue Kontzertu Ekonomikoa euskal autogobernuaren zutaberik garrantzitsuenetako bat dala, erasotua izan dan zutabea, hain zuzen. Gogoan izan alderdi politiko guztiak bat etorri zirala bere defentsan, bertoko popularrak eta sozialistak barne. Eta gogoan izan daigun Madrileko sozialistek eta popularrek eskaera honen kontrako botua emon ebela, Euskadin aukeratutako diputaduak barne (…).

Badago zer sinisterik sozialistei eta popularrei? Honeek arotzarena egin guran dabilz. Arotzak dira eta ez politikoak. Politikearen Txikilikutreak dira.

koplak

Enaitz Alustiza

## Azterketak

Egutegia begiratuta
azkar etorri zait gaia
askorentzako laster hasiko
Da azterketa garaia.

Hilabetean liburu eta
apunte arteko talka
nahiz ta goserik ez den izaten
txuletarik ez da falta.

Ta azterketan, jarri ezkero
irakasleei begira,
lanez aldatu ta egun batez
polizi bihurtzen dira.

Hilabetean ez jan ta ez lo
eta presio bortitza.
ta gero esan onena dela
ikaslearen bizitza.

Nik aurten ez dut azterketarik
ez naiz ipiniko triste
hori guztioi pasatzen zaigu
ta kontsolatu zaitezte.

Ikasi eta errepasatu
orriz orri, testuz testu
eta gogorik ez badaukazu
milagroetan sinestu.

## Argitzeko asmoz

**Xabi Larrañaga**
Bergara

2008ko maiatzaren 16ko GOIENKARIAn Bergarari dagokion atalean, herri horretako eremu megalitikoak garbitzeko egitasmoaren berri ematen zen. Testuaz gainera, argazki batzuk azaltzen ziren.

Testuan irakurri zitekeen Udala-Intxortako eta Elosu-Karakateko eremuak garbitzeko asmoa zegoela. Lehen eremuaren izena zuzena da; ez ordea, bigarrenarena; Elosu-Karakate delako hori Elosua-Plazentzia bezala ezagutzen da historiaurreko eta arkeologiako argitalpenetan (horrela izendatu zituzten 1921ean eta 1922an, eremu industen aritu ziren J.M. Barandiaranek, T. Aranzadik eta E. Egurenek).

Erreportajean bi argazki azaltzen ziren; bigarrenaren argazki-oinean horrela zioen: "Keixeta hegoaldean dagoen trikuharria eta tumulu batzuk". Elosua-Plazentzia eremu megalitikoan Keixeta lekuizena hiru eraikin megalitikoetan azaltzen da. Lehena, Azkoitiko udalerrian kokatuta eta trikuharritzat jotzen dena da (Keixeta); beste biak, aurrekoaren hegoaldean daudenak, Bergarako udalerrian kokatzen direnak dira: Keixetako-Egiya Hegoaldekoa eta Keixetako-Egiya Ifarraldekoa (gazteleraz Keixetako Egiya Sur eta Keixetako Egiya Norte); lehena trikuharritzat eta bigarrena tumulutzat jotzen dira. Beraz argazkian ikusten dena Keixetako-Egiya Hegoaldeko trikuharria da eta ez "Keixetako hegoaldean dagoen trikuharria". Eta bukatzeko: argazkian ez dira "tumuluak" ikusten, tumulua baizik. Gure inguruko trikuharri gehienek bere tumulu bakarra izaten zuten. Argazkian trikuharria estaltzen duen tumulua, indusketa lanak eraginda, erdibiturik ikus daiteke.

## Oñatiko lasterketa: eskerrik asko, guztioi

**Asier Osinaga**
(Antxintxiketan Kirol Elkartea)
Oñati

Eskerrik asko. Igaro da eguna. Horrenbeste buruhauste eman digun lasterketak egin du berea. Zalantzarik gabe maiatzaren 24a iritsi bitarteko lan eskergak saria jaso zuen.

Larunbatean, goizeko 8etan, euria zen nagusi Oñatin. Egun seinalatua zen Antxintxiketan Kirol Elkartearentzat. Oñatiko Nazioarteko VI. Herri lasterketa ospatu behar baitzen. Eguerdiko 12:30ean gaztetxoendako lasterketak zeuden iragarrita, baina gosaria erretze aldera lehendabizi, Kontzejupean, puzgarriak izan ziren ditxosozko euria saihestu nahian. Dena dela, eta agian txistulariek horrela nahi izan zutelako, eguzkia atera eta goiz ederra izan genuen. Gaztetxoen lasterketek arrakasta izan zuten; 140 txapeldun izan ziren nor bere kamiseta laranjarekin. Festa giroa nagusitu zitzaion euriari. Arratsaldeko 07:00etan ospatuko zen nagusien lasterketarako, ordea, euria agertu zen berriro. Hala ere, ikuskizuna bikaina izan zen. Afrikarrak jaun eta jabe izan ziren. Peter Kirui eta Sarah Kerubok eskuratu zituzten irabazleentzat diseinatutako txantxikuak. Euskaldunetan azkarrena Imanol Cruz izan zen eta honen atzetik, Asier Cuevas. Azken honek, gainera, Antxintxiketan Kirol Elkartearen partetik omenaldi xume bat jaso zuen. Esker onak: babesle guztiei, omenaldiko txistulari eta dantzariei, asto lanak egiten ibili zirenei, izenemate eta sailkapenen arduradunei, Oñatiko Udalari eta, borobildu aldera, oñatiar guztiei. Zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen Oñatiko Nazioarteko VI. Herri Lasterketa antolatzea.

## Osasun zerbitzuak euskaraz

**Olatz Aran**
(Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz)
Bergara

Euskaraz bizitzeko ezintasunaren egunerokotasunera ohitu gara euskaldunok. Borroka iraunkorra da euskaraz aritu nahi, baina ezin izatea. Hizkuntza eskubideak errespetatzen direla uste badugu ere, XXI. mendean gauden honetan lehen eta bigarren mailako hizkuntzak, eta beraz herritarrak, existitzen direla inoiz baino argiago ikusten dugu. Euskaldunok, bestelako herritar batzuen ondoan, ez ditugulako hizkuntza eskubideak aitorturik.

Arrasateko osasun etxean egindako mediku aldaketetan ez da hizkuntza eskakizunik kontuan hartu. Herritar euskaldunak berriz ere bigarren mailan gelditu gara. Horrelako jarrerekin gure eskubideak zapaltzen dira etengabe. Nekez eman ahal izango dira urratsak euskaldunon hizkuntza eskubideak aintzat hartzen ez badira.

Horretaz jakitun izanik, bi dei luzatu nahi genituzke: batetik, egungo agintariei, behar adina ausardia izan dezatela gaiari heldu eta beharrezkoak diren neurriak eman ditzaten. Aldaketaren beharraren jabe egin daitezen, euskararen normalizazioa bilatzea badute helburu bederen. Bigarrenik, herritarrei, orain arte egindako moduan, aldarrikapen eta eraikuntza lan horretan tinko jarrai dezaten: euskaraz artatuak izatea exijituz. Guztion indarrez lortuko baitugu Euskal Herri euskaldunaren aldeko harriak jartzen joatea.

## Auzoko sarbidea txukun-txukun

**Marilu Unamuno**
Bergara

Orain dela hilabete batzuk idatzi nuen gutun bat kexatzen Bergarako San Martin auzorako sarbidea negargarri zegoelako. Candy enpresaren ondoko aparkalekua, kamioiek-eta erabiltzen dutena, zaborrez beteta zegoela, espaloirik ez zegoela, errepidea zuloz beteta zegoela...

Bada, orain idazten dut esateko txukun eta dotore ipini dutelako inguru hori. Candy enpresako sarreratik Irizar zerrategiko goiko sarreraraino txukundu dute: errepidea zabaldu eta asfaltatu dute, espaloia jarri dute, ur eta argiteriarendako hodiak sartu dituzte, farolak ipini dituzte eta aurki, esan dutenez, argiztatu egingo dute. Oso ondo geratu da. Berandu etorri da, baina primeran geratu da.

Hala ere, nire ustez zaborrontziak falta dira, jende asko ibiltzen delako pasiatzen. Gainera, egunetan egoten dira kamioiak aparkatuta eta ez legoke txarto kamioi ilariendako ere zaborrontziak ipintzea. Horixe, bada, bestelakoan, egoki eta dotore laga dute ingurua.

## Horrela, ez!

**Mikel Rodriguez**
Arrasate

Esango didazue zertara natorren bazterrak nahastera orain, Reala une erabakigarrian dagoenean, lehen mailara itzultzeko lehian. Eta, neurri batean, arrazoi izango duzue. Zertara orain honekin?

Kontua da Badiolaren jokabidea ez zaidala zuzena iruditzen eta oso larria iruditzen zaidala egin duen hainbat gauza: Aiestaranekin apurtzeko modua; Olivari egindakoa eta haren gainean esandakoak hedabideen aurrean; Iriarte eta behe mailako beste teknikoak klubetik bota izana eta botatzeko modua; elkarteko langileen laurdena bota nahi izatea; langileak mehatxatu eta modu txarrean gutxiestea; gauza bat esan eta beste bat egitea; atzo esandakoa gaur ezeztatzea; gezurretan aritzea; ETBri ez uztea Anoetatik zuzenean ematen Salamancaren aurkako partidua...

Lagunak egiten...

Helburua lortzea garrantzitsua da, baina ez edozein modutan; formak zaindu behar ditu Realeko presidenteak.

Ez diot itxura onik hartzen.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** **943 25 05 05**
**Faxa:** **943 25 05 12**
**Posta elektronikoa:** **goienkaria@goiena.com**

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55


CREDIKUTXA
AUTOMOBILA
*%7,471ko
UTB
*Hilean
69,67€
bakarrik
Interesa ikusita
autoa aukeratzea da
zure egiteko bakarra.
Familiarra, coupea, monobolumena… autoa erosteko unean, modeloa eta marka aukeratzea izango dira zure kezka bakarrak.
Credikutxa Automobilak eskaintzarik onena eskura jartzen dizulako: %7ko interesa 10 urterako 6.000€ kredituarentzat, hileko 69,67€ kuotarekin, eta %7,471ko UTBa.
Argibide guztiak, Kutxanet-en edo, bestela, zure ohiko bulegoan jasoko dituzu.
%0,50eko
hobaria, $CO_2$
gutxi isurtzen
duen autoa
izanez gero
credikutxa
P.A.G.V. 08/02/07
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

OÑATIN

**Erdi Maila**
- Mekanizazioa
- Talde gidaritza natur ingurunean
- Mantentze-lan elektromekanikoa

ARETXABALETAN

**Erdi Maila**
- Soldadura eta galdaragintza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa

**Goi Maila**
- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa




Ate irekiak: Ekainak 3 • 18:00

**RM Zuazola - Larraña Institutoa**
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
E-posta: onatikobhi@goieskola.net
www.onati.net

ikasLAN Gipuzkoa

**Aretxabaleta GLHBI**
Etxebarri auzoa, z/g • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00
E-posta: ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com




Prezio baliagarria Penintsulan eta Balear uharteetan Chevrolet Avero 1.2 3p LS bertsioarentzako. (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Kontsumo mistoa ( l/100 km): 5,5 –7. CO2 emisioa (g/km): 132-173

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33 **Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Agerre eremuan etxebizitzak egiteko plana ikusgai dago **> 19**




**> BERGARA**
Moñux familia arbasoen herrian egon da, Sorian, bigarrenez **> 29**



**> OÑATI**
Korpusaren pausoen erakusketa etzi irekiko dute **> 33**



**> ELGETA**
Aste Berdearen barruan, ibilaldia antolatu dute etzi goizerako **> 37**



**LANAK** Bigarren faseko azpiegitura lanak egiten Gatzagako kaleetan, saneamendu hodiak aldatu eta gasarenak sartzen.

MIRARI ALTUBE

**LEINTZ GATZAGA** > DIRULAGUNTZAK

# Gatzagak dirulaguntza jasoko du herriko bizi kalitatea hobetzeko

**LANDAGIPUZKOA**
Aldundiak 40 milioi euro eskainiko ditu Gipuzkoako herri txikiak hobetzeko

**PROIEKTUAK**
Herriko bideak eta urhartuneak konpontzeko asmoa du Gatzagako Udalak

**NEREA MENOR** > LEINTZ-GATZAGA

Joan den martitzenean, Landagipuzkoa 32 egitasmoa aurkeztu zuten Markel Olanok, Gipuzkoako diputatu nagusiak, eta Rafael Uribarrenek, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko diputatuak. Egitasmo horren bidez, 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten Gipuzkoako 32 udalerrien aldeko apustua egin nahi du Aldundiak. 40 milioi euro baino gehiago zuzenduko dira ekimenak beren kabuz egiteko zailtasun handienak dituzten herriei laguntzeko. Bailaran, Leintz Gatzagak betetzen ditu ezaugarri horiek, eta laguntza horien kopuru bat egokituko zaio, proiektua Aldundiari aurkeztu ondoren. Landagipuzkoa 32 Aldundiaren 2007-2011 eperako gestio planaren barne dago.

Herritarren ongizatearen eta bizi kalitatearen ikuspuntuetatik hutsune handiak dituzte landa eremuek. Halaber, bazterketa geografikoak ekarri ohi dituen arazoak izan ditzakete herri horiek. Aldundiak landa eremuak zaindu nahi ditu: "Eginkizun garrantzitsua dute udalerri horiek, eta, horregatik bada, onuragarriak dira gipuzkoar guztiontzat", esan du erakundeak.

**ORAIN ARTEKO HANDIENA**

Gatzaga 263 biztanleko herria izanik, Aldundiaren laguntzak egokitzen zaizkio. Bertako alkate Eusebio Villarrek hauxe dio: "Laguntza handia izango da Aldundikoa, orain arte inoiz eduki ez duguna. Konfiantza ematen du eta beharrizan handiena estaltzeko emango duela uste dut; hala ere, beharrizanak beti egongo dira. Gatzaga eta Dorleta arteko bide berria eta pista egiteko ez zaigu helduko laguntza horrekin".

Datorren hilean buletin ofizialean azalduko dira proiektuen nondik norakoak, eta behin baldintzak ikusi eta gero, herri bakoitzak bere proiektua egiteari ekingo dio. "Gatzagan zerbait badugu pentsatuta, baina ez guztiz erabakita. Baserri irteerak konpondu nahi ditugu, Gaztainuzketan-eta. Ura ere falta da hainbat lekutan, eta arazo horrekin amaitu nahi dugu", esan du alkateak.

Aldundiaren laguntzaz gain, Gatzagak beste batzuk ere eskatu ditu: "Eskolan eta museoan berogailuak ipintzeko laguntzak eskatu ditugu, dokumentazio guztia bidalita dago, baina oraindik ez dakigu emango diguten".

ESALDIAK

**"Gaztainuzketako baserri irteerak konpondu eta ur faltari irtenbide bat eman nahi diogu, besteak beste"**

**"Leintz Gatzaga eta Dorleta arteko bide berria eta pista egiteko ez zaigu helduko laguntza horrekin"**

**Eusebio Villar** > Gatzagako alkatea

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 1 | Ruiz | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 2 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 3 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 4 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 5 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 6 | Irizar | Ergin, 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 1 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 2 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 3 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 4 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 5 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza,06 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 1 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 2 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 3 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 4 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 5 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 6 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 31 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 1 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 2 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 3 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 4 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 5 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 6 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 31**
Zerua estalita ikusiko dugu egun osoan, eta euri jasak botako ditu tarteka. Tenperaturak jaisten hasiko dira, eta fresko jarraituko du aste bukaera osoan.



**Domeka, 1**
Ekaina giro desatsegin eta nahasiarekin hasiko dugu. Zapatuko antzeko eguraldia izango dugu, hodeitsu eta euritsua, eta iparraldeko haizea.

### EUSKAL HERRIAN

Asteburuan ezegonkortasuna eta giro nahasia izango ditugu. Zerua estalita egongo da, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin. Tarteka euri arina egingo du, eta noizean behin zaparrada mardulak botako ditu eta trumoitsuak izango dira. Haizeak iparraldetik ahul joko du.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguaztena, 21 — **7 ºC**

**MAXIMOA** Egubakoitza, 23 — **24 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **80,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 21** | 24 ºC | 7 ºC | 0,9 l/m² |
| **Eguena, 22** | 24 ºC | 12 ºC | 5,6 l/m² |
| **Egubakoitza, 23** | 24 ºC | 14 ºC | 30,7 l/m² |
| **Zapatua, 24** | 19 ºC | 13 ºC | 24,4 l/m² |
| **Domeka, 25** | 20 ºC | 11 ºC | 16,1 l/m² |
| **Astelehena,26** | 20 ºC | 10 ºC | 0,3 l/m² |
| **Martitzena, 27** | 16 ºC | 8 ºC | 2,5 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA EKAINEAN



| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| **3** | **10** | **18** | **26** |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Nesken topaketa, berdintasunaz jarduteko**
Arrasateko neska talde batek topaketa antolatu du biharko, zapatua, Monterrongo atean, 10:30ean. *Neska izateagatik bizi* da izenburua, eta, besteak beste, "neska eta mutilen artean dauden ezberdintasunek" eragiten dieten kezkaz jardungo dute.

ESKORIATZA
**> Mendekotasunaren gaineko ikastaroa**
*Zure nagusiak maite dituzunez, hobeto zaintzen ikasi* delako ikastaroa emango dute Ibarraundi museoan ekainaren 16tik 20ra, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak antolatuta. Izena emateko edo informazio gehiagorako, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da.

ARAMAIO
**> Erlaxazio eta emozio orekaren tailerra**
Arabako Foru Aldundiak antolatuta, adineko pertsonak zaintzen dituztenendako erlaxazio tailerra egongo da ekainaren 2an, 4an eta 6an. Argibideak: 945 43 01 67.

ARRASATE
**> Dantza eta bitxigintza ikastaroak izango dira**
Gazte bulegoak dantza –erromeriakoak eta dantza garaikidea– eta bitxigintza ikastaroak antolatu ditu, eta izena emateko epea zabalik dago. Argibideak: 943 25 20 65.

ARETXABALETA
**> Lore Leanizbarrutia senataria, batzokian**
Lore Leanizbarrutia senataria gonbidatu du EAJk bihar, zapatua, batzokian, 12:00etan. Interesa duen edozein joan daiteke.

ARAMAIO
**> Izarrak ezagutzeko ikastaroa antolatu dute**
Aramaio Zainduz elkarteak izarrak ezagutzeko tailerra antolatu du. Bi irteera egingo dituzte, ekainaren 6an eta 26an, Jesus Arregi EHUko Fisika irakasleak gidatuta. 30 euro da matrikula.

ARETXABALETA
**> Umeendako masaje ikastaroko eskolak**
Umeei masajeak emateko ikasteko jardunaldiak atzo, eguena, ziren hastekoak. Hurrengo saioak ekainaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an izango dira, Kurtzebarrin, 17:30ean.

ARRASATE
**> Sahararen aldeko bingoa izango da gaur**
Nubi eta Iesbaa elkartasun taldeen eskutik, Sahararen aldeko elkartasun bingoa jokatuko dute gaur, egubakoitza, Iamai kafetegian, 22:00etan. Txartel bakoitza euro bat kostatuko da. Hainbat dendak emandako opariak emango dituzte saritzat.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
**> Odola emateko aukera dago egunotan**
Odol-ateratzeak egongo dira: astelehenean, ekainak 2, Aretxabaletako osasun zentroan, 16:15etik 20:00etara; eta martitzenean, ekainak 3, Eskoriatzako osasun zentroan, ordutegi berean.

BERGARA
**> Mariaren Lagundiko zozketako irabazlea**
Zumaiako Zelai talasoterapia zentroan bi pertsonarentzako bazkari, zirkuitu eta masajearen zozketako zenbaki saritua 0987 da. Txartelaren jabea jar dadila harremanetan ikastolarekin.

BERGARA
**> 1949an jaiotakoek bazkaria izango dute**
1949an jaiotako bergararrek batera bazkaltzeko aukera dute ekainaren 7an, Agorrosingo jatetxean. Izena emateko: 625 70 01 80 edo 943 77 70 30.

DEBAGOIENA
**> Mintza egunerako autobusa antolatu dute**
Getxon ospatuko dute Mintza eguna ekainaren 14an, eta Arrasateko Zahar Berri eta Bergarako Berriketan egitasmoek autobusa antolatu dute. Izenematea zabalik dago AEDn (943 77 12 28, Ainhoa) eta Jardunen (943 76 36 61, Irune).

OÑATI
**> Komunikazioa eta gatazkak familian**
*Komunikazioaren ikuspuntutik, nola egiten diogu aurre gatazkari familian?* delako berbaldia egingo du Joxe Amiama psikopedagogo eta EHUko irakasleak bihar, zapatua, Arantzazuko Ama kaleko egoitzan, liburutegian, 10:30ean.

ELGETA
**> Gipuzkoako bolo txapelketaren azken jardunaldia jokatuko dute bihar, zapatua**
Bihar, zapatua, 39. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren azken jardunaldia jokatuko dute Elgetako bolatokian. Bolo jaurtiketa bat egingo dute 12:00etan, sailkapena erabakitzeko. Angel Ibarluzea elgoibartarra doa lehenengo, 30 txirlorekin; jarraian, hiru bolari daude, 27na txirlorekin.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Aste berdea da Elgetan. Ur kontsumo arduratsua egiten duzu?



**Tomas Beteta**
Erretiratua
Elgeta

Banatu dituzten ur-erreduktoreak ipini ditugu. Hala, ur kontsumoa txikiagoa da, ura presio handiagoarekin datorrelako. Ura garesti dago, eta kontsumo arduratsua egiten saiatzen naiz.



**Mirari Larrañaga**
Langilea
Elgeta

Orain arte, ez. Ur-erreduktoreak ipini ditugu eta nabaritzen da ur gastuak behera egin duela. Hala eta guztiz ere, dena dago garesti. Ahalegintzen gara ur kontsumo arduratsua egiten.



**Jose Manuel Sarasua**
Erretiratua
Elgeta

Saiatzen gara ur kontsumo arduratsua egiten, izan ere, gaur egun, garesti dago ura. Herrian banatu dituzten ur -erreduktoreak probatu ditut etxean, eta, nire kasuan, ez dute balio.



**Elena Elkoro**
Langilea
Elgeta

Duela sei hilabete inguru ipini genituen ur-erreduktoreak etxean. Egokiak direla uste dut, ez baitut nabaritu ur kopuru gutxiago datorrenik. Hala, kontsumo arduratsuagoa egin daiteke.



**Juan Unzetabarrenetxea**
Erretiratua
Elgeta

Ura garesti dago, beste gauza guztiak bezala, eta saiatzen naiz kontsumo arduratsua egiten. Horregatik, ipiniko ditut ur-erreduktoreak etxean, ura aurrezteko bada, ondo dago-eta.

txistuak



GOIENKARIA

# Zaldibarko txirrista berritzea, noizko?

Aste honetan, arrasatear batek bidali digu kexa. Zaldibarren dagoen jolasparkean txirrista apurtu zen duela hilabete batzuk, eta oraindik ez dute ipini. Neska-mutiko asko joaten dira beraien gurasoekin bertara jolastera. Bertako txirristak, zabuak, e.a. ez badaude egoera onean, min hartu dezake edozeinek. Irakurle honek txirrista ipini dezatela eskatzen du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 7

Udaero izango dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteek. Dagoeneko zabalik dago antolatu diren ekimenetan izena emateko epea. Ekainaren 25ean amaituko da hori. Uztailean hasiko da Udaero programa. Zazpi ekimen egongo dira: egun pasak hondartzara, *paint ball*-a... besteak beste.

usteak uste

**Mirari Altube**

# Durana kalea erreka bihurtuta

Aretxabaletan, ez dugu beste konturik izan azken egunotan kafe orduan, lan lekuan eta eguneroko ibilalditxoan: domekako euri jasa eta haren ondorioak. Gure herri modernoan uholdeak izango genituela iragarri baligute barreari ezin eutsi ibiliko ginatekeen. Baina halaxe gertatu da. Eta ez aste betean euria egin duelako, ezta egun osoko euri jasengatik ere, 20 minutuko kontuagatik. Euria sendo bota zuen, egia da, eta oso zakar, txingorrarekin. Eta Durana kalea eta Ilargi plaza aurreko kalea erreka bihurtu ziren.

Anekdota hutsean geratu da askorendako kontua, helbide elektronikoarekin zabaldu dituzten argazki ikusgarrietan –kalteak jasandakoek seguruarekin konpondu behar orain–. Baina agerian utzi du azpiegitura lanek duten garrantzia. Errekatxoak eta errekak ezkutatzeko ohitura dago sarritan, dagokien ibilbidea aldatzekoa, baina errekek euren bidea dute, eta haraxe jotzen dute. Euri jasak, gainera, erakutsi digu mantenu lanak ezin direla ahaztu. Saneamendu lanak, ur hodiak berritzea eta antzekoak lan gogaikarriak izaten dira herritarrondako, baina argi dago behar beharrezkoak direla.

5 galdera...

# Josune Moreno

Badabil dendakoa
Arrasate

**1. Noiztik daukazu denda zabalik, eta zein adinendako arropa saltzen duzu?**

Duela hiru hilabete zabaldu nuen denda. Denetariko arropa eta oinetakoak saltzen ditu, jaioberrietatik hasi eta 12 urtera bitarteko neska-mutikoendako.

**2. Zer jantzi dago modan, adin horretako umeendako, udaberri eta uda honetarako?**

Pirata prakak asko eramaten dira. Kolore aldetik, kolore ilunak; eta arropa informala. Oinetako aldetik, berriz, Victoria markako zapatilak modan jarri dira berriz. Lehengo garaietatik hona, gehien moldatu dena arropak egiteko era da.

**3. Askok diote umeen arropa, orokorrean, garestia dela. Hala dela uste duzu?**

Nik ez dut uste hala denik. Zuk denda batean semearendako niki edo praka batzuk erostea nahi baduzu, prezio guztietakoak dituzu, 17 eurotik hasi eta 50 euro arte, aukera zabala dago. Beraz, nire ustez, norberak gastatu nahi duenaren arabera aukera ezberdinak daude.

**4. Dendan umeendako marrazki lehiaketa bat ere antolatu duzu. Nondik sortu zen ideia?**

Gurasoak seme-alabekin etortzen direnean dendara, eta gurasoek arropa ikusten duten bitartean, umeendako marraztekoa arbel bat jarri nuen, eta hortik etorri zen ideia; gainera, ikusi nuen umeek marrazki oso politak egiten zituztela. Bi taldetan banatu dugu lehiaketa: 6 urte artekoa bat, eta bigarrena, 6tik 10 urte arte. Marrazkiak dendan entregatuko dira, eta azken data ekainaren 14a izango da. Ekainaren 21ean irabazleen izenak esango ditugu.

**5. Zure dendara joan nahi dutenak nora zuzendu behar dira?**

Biteri kaleko 11. zenbakian gaude, Aldedi dendaren parean, Zaldibarko frontoi ondoan.



> FEMINISMOA

### Hausnarketa egiteko hitzordua, herriko neska gazteendako

*Arrasateko nexka gaztien topaketia*. Horixe da biharko, zapatua, egin gura duten ekimen berri baten izena. 10:30ean egin dute hitzordua, Monterrongo atearen aurrean. Helburua, berriz, da hausnartzea eta eztabaidatzea berdintasun, feminismo, feminitate eta halako kontzeptuen gainean.

**BALIABIDEEN LANKIDETZA**

Antolatzaileek hala azaldu dituzte, besteak beste, ekimen berritzaile horren nondik norakoak: "Asko gara eskubide eta betebeharrei dagokienez berdintasuna aldarrikatzen dugun pertsonak, baina *feminismo* berba agertzen denean eta beronen aldarrikapen ideologikoak azaleratzen direnean, erreakzio alergiko baten tankerako zerbait sortzen da jende askoren baitan. Feminismoaren eta feminitatearen arteko dilema antzeko batek gure barrenak aztoratzen dituela dirudi, biak batera joatea ezinezkoa balitz bezala". Dena kontuan hartuta, eztabaida proposatzen dute, "baina batez ere, neska eta gazte izanagatik bizi ditugun iritzi eta bizipenak" elkartrukatu gura dituzte.

**GAZTEAK** > KALE HEZIKETA

# Nerabeengana iristeko kale hezitzaileak

Irailean abiaraziko dute Kale Heziketa programa, 11-17 urte bitartekoekin

Gazteekiko harremanen bitartez, besteak beste, nerabeen arazoak eta zailtasunak identifikatu gura dituzte

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Kale Heziketa programa berria abiarazi behar du Udalak irailean. 11 eta 17 urte bitarteko ume eta nerabeei zuzendutakoa da eta helburua da aisialdi gehiena kalean ematen duten gazteengana heltzea, haiek ibiltzen diren gunean, bertan, hau da, kalean.

Bi hezitzaile arduratuko dira lan horrekin, hau da, bi lagun ibiliko dira gazteekiko harremana bultzatzen. Kale Heziketa programa, berriz, Udaleko Gizarte Ongizate eta Gazteria sailek elkarlanean bideratu dute.

Sail horietatik emandako azalpenen arabera, gazteekin harremanak indartzearen bitartez, honako hau landu gura dute: "Nerabeek izan ditzaketen zailtasun eta arazoak identifikatu eta horiei konponbidea emateko bitartekari lana; nerabeen interesak, motibazioak... ezagutu,



Gazte askok kalean ematen du aisia.

nerabeei haien gustuko ekimenak gauzatzen lagundu eta herri mailako baliabide eta ekipamenduekin zubi lana egin eta herri mailan nerabeei zuzendutako baliabide eta zerbitzuak nerabeen beharretara egokitzeko proposamenak bideratu".

**BALIABIDEEN LANKIDETZA**

Modu horretan gura dute "nerabeekin lan egiten duten herri mailako zerbitzu eta baliabideen lankidetza sustatu, nerabeek bizi duten errealitatearen inguruan irakurketa konpartitua egin eta ahal den heinean esku hartze koordinatuak abian jarri".

Behin Kale Heziketa programa abiarazita, Udal Gizarte Zerbitzuen barruan, sail horren beste zerbitzu egonkor baten moduan funtzionatuko du, hau da, ez dauka epe-mugarik.

Oraingo asteko gobernu batzordean jaso du onespenaprogramak horrek. Buletinean argitaratu ostean jendaurrean ipiniko dute, alegazioak jasotzeko, eta gero lehiaketa abiaraziko dute.

**HIRUGARREN ADINA**

## Erretiratuen Egunean ia 1.000 lagun izango dira

Musakolako kiroldegian egingo dute bazkaria

**U.M.** > ARRASATE

925 erretiratuk izena eman du bihar, zapatua, ospatuko duten Erretiratuen Egunean parte hartzeko. Urterokoari segituz, goizetik iluntzera arteko egitaraua prestatu die SUDC elkarteak.

Luis Arkauz SUDCeko presidenteak esan duenez, 1:00etan hasiko da jaia; erretiratuak plazan elkartu eta 12:30ean mezetarako hitzordua dute, San Juan parrokian.

Ostean, 13:30ean, Garibaitik autobusa aterako da, Musakolako kiroldegira, han egingo dute bazkaria eta osteko dantzaldia. Tartean,hainbat saltokik emandako opariak zozkatuko dituzte. Eta jakina, Arrasateko aitaita-amama nagusienei omenaldia egingo diete: Marina Sanchezi, 100 urte dituelako eta Ladislao Ginaldori, 97 urte dituelako.

PROMOCIONES ARAMAIXO
11 etxebizitza berri Aramaioko erdigunean





- Aramaio, zerbitzu guztiak dituen herria.
- Eraikuntza-fase oso aurreratua.
- Erabilgarriak diren 166 m²-tik gorako etxebizitzak, 89 m²-ko beheko solairua bi-hiru ibilgailurentzako garajearekin.
- 480.000 €-tik aurrera.
- Lursaila eta 24m²-ko terraza.
- Polo Garaia berrikuntza gunetik 8 minutura.



Informazio gehiago:
630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65
Nardeaga kalea 26

**HIRIGINTZA** > AGERRE EREMUKO PLAN PARTZIALA

# Agerren 100 etxebizitza eraikitzeko plana, ikusgai

Agerreko plan partzialaren arabera, 250 aparkaleku ere eraikiko dituzte gune hartan

Jendaurrean ipini dute plana 20 egunez, kontsultatu ahal izateko eta alegazioak jasotzeko



Gaur egun ortuak eta ortuendako txabolak daude etxeak eraikiko dituzten orube horretan. UBANE MADERA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Agerre inguruan 100 etxebizitza eraikitzeko plan partzialari hasierako onespena eman dio oraingo asteko gobernu batzarrak.

Planaren arabera, 37.789 metro koadro erabiliko dituzte etxebizitzak eta ekipamenduak eraikitzeko. Makatzena bukatzen den lekuan eraikiko dituzte etxeok, Agerre eta Doneztebe Portuko kaleen atzeko partean. Gaur egun ortuak eta ortuendako txabolak daude han.

**TASATUTAKO ETXEBIZITZAK**

Planean zehaztu dute 100 etxebizitza horietatik 20 izango direla tasatutako preziodunak. Hirigintza Sailak esandakoaren arabera, "hobekuntza da hori, Egitamu Orokorrari dagokionez; izan ere, egitamuan aurreikusita zegoen guztira 82 etxebizitza eraikitzea, eta, gainera, etxebizitza horiek guztiak izango lirateke promozio librekoak eta dentsitate txikikoak; hau da, txikiak. Orain, berriz, plan partzialean planteatu dutena da etxeen blokea handitzea eta etxebizitza gehiago sortzea; batzuk, gainera, tasatutakoak".

Etxebizitza horiekin batera, bestelako azpiegiturak ere eraikiko dituzte Agerre inguruan. Adibidez, etxebizitza berri horieara joateko errepidea egingo dute; hain zuzen ere, horixe izango da bide nagusia eta errepide horrek Santa Marina eta Santa Teresa kaleak lotuko ditu.

Horrekin batera, bigarren mailako bide bat ere eraikiko dute; horrek Makatzena kalea eta bide nagusia lotuko ditu. Era berean, han inguruan dagoen baserrira joateko bidea ere egokituko dute.

Eta, zelan ez, bestelakoen artean aparkalekuak ere eraikiko dituzte. 250 aparkaleku, guztira. Eta berdegunea ere bai; besteak beste, 100 zuhaitz landatuko dituzte, etxebizitza bakoitzeko bat.

Agerreko plan partziala jendaurrean ipini dute asteon, 20 egunez, kontsultatzeko eta alegazioak hartzeko.

KONTUAN HARTZEKO

## Galizia kalea itxita dago ibilgailuendako

Agerre-Santa Teresa ingurutik aldendu barik, abisua bidali du Udalak jakinarazteko, Galizia kaleko obren ondorioz, kale hura itxita dagoela ibilgailuendako, astelehenaz geroztik. Ondorioz, autobus urbanoaren 1 linearen Galizia kaleko geltokia Elkano kalera pasa dute, eta Joan Bengoa kaleko geltokiaren ordez, Musakolakoa erabili beharko da.

## Balleta eta kontzertua, urteurrenean

Uribe auzoko Iturripe elkartekoak autobusa alokatu eta Bilbo ingurura joan ziren joan den zapatuan. Kideetatik erdiak Arriaga antzokira joan ziren, Cloud Gate Dance del Theatre de Taiwan taldearen ballet ikuskizunera. Gainerakoak, berriz, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu bat ikusten izan ziren, Euskalduna jauregian. Iturripe elkarteak 25 urte bete dituela-eta antolatu zuten irteera hori.



ITURRIPE

> OSASUNA

### Bularreko minbiziaren gainean jardungo dute datorren eguenean

Bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia izango da datorren eguenean, ekainaren 5ean, Amaia Udal Antzokian, 17:30ean. Katxalin elkarteak antolatu du, bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen elkarteak, eta hizlaria Lourdes Aritziturri izango da, Donostiako Onkologia Institutuko onkologia zerbitzuko ginekologoa. Besteak beste, azpimarratuko dute titi minbizia goiz detektatzeari geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaiola, eta, hain zuzen, horren gainean jardungo dute.

> OSASUNA

### Umeen masajea, shantala, lantzeko ikastaroa ekainean

Umeen masajearen gaineko lantegia antolatu dute ekainaren erdialderako. Antolatzaileen esanetan, "guraso eta seme-alaben artean, azala, ukimena eta presentziaren bidez ematen den komunikazioaz gozatu eta esperimentatzeko gunea izan nahi du ikastaro horrek"; oinarri moduan shantala haurren masajea hartuko dute. Ordubeteko iraupena duten zazpi saio egingo dituzte, talde txikietan.

Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko honako telefono zenbakira deitu beharra dago: 657 72 00 49.

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta
arrasate
beinke

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

**MUSIKA** > ABESBATZA

# Bihartik aurrera hasiko dira ikasturte amaierako Goikobaluren kontzertuak

Txikien, gazteen zein helduen kontzertuak izango dira. Bestalde, gazteek ekainaren 15ean CDa grabatuko dute, lagunen artean banatzeko izango dena



Goikobaluko Gazte abesbatzako gazteek, ondo abesteaz gain, interpretaziorako abileziak ere badituzte. GOIKOBALU ABESBATZA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Goikobalu abesbatza elkarteak ikasturte amaiera dela-eta hainbat kontzertu antolatu ditu. Beraz, bihartik eta ekainaren 8a bitartean Goikobalu Txiki, Goikobalu Gazte eta Goikobaluren kontzertuez gozatu ahal izango da.

Bihar bertan hasiko dira kontzertuak. Hala, 19:00etan, Arrasateko Goikobalu Txikik eta Goikobalu Gaztek kontzertua emango dute Villabonako Udal Antzokian, bertako abesbatzekin batera. Arrasaten bezala, Villabonan ere betidanik izan da musika koralarekiko zaletasuna. Eta biharko zein ekainaren 8ko Arrasateko San Frantzisko elizako kontzertuak bi abesbatzek –Arrasatekoak eta Villabonako Eresargi abesbatzak– ikasturtean zehar antolatzen dituzten elkartruke programaren emaitza dira. Rakel Murgiondo Goikobalu abesbatzako haur eta gazteen arduradunak adierazi duenez, bi abesbatzen lankidetzak kantuaren bitartez lagunak egiteko aukera ematen die. Horretaz gain, "lan egiteko beste modu batzuk ezagutzen ditugu, eta hori beti da aberasgarria", gaineratu du Murgiondok.

**HELDUEN TXANDA, EKAINAREN 7AN**

Murgiondok arestian aipatutako emanaldietara hurbiltzeko gonbita egin nahi dio musika korala gustuko duen edonori. Bi abesbatzek elkartrukatu duten programa "polita, dibertigarria eta ikusgarria" dela dio eta hurbildutakoak damutuko ez direla gaineratu nahi izan du.

Harrobiak berebiziko garrantzia badu ere, ezin da Goikobaluko nagusien emanaldia aipatu gabe utzi. Datorren zapatuan izango da, 20:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan. San Felipe Apostol elkartearen 110. urteurrena ospatzeko kontzertua izango da. Bertan, Murgiondok aurreratu duenez, hainbat kantu folkloriko interpretatzeaz aparte, Mozarten *Vesperae solennes de confessore* obra estreinatuko dute. Kontzertu berezi horren zuzendaritza lanak Iñaki Maidaganek egingo ditu.

Ekainaren 15ean, bestalde, Goikobalu Gazte abesbatzak CDa grabatuko du egun osoan zehar. Bertan, ikasturtean landutako errepertorioa grabatuko dute, baina ez dute merkaturatuko.

**JAIAK** > SANJUANAK

# Ia 300 ume haurren danborradarako

**U.M.** > ARRASATE

Bihar, zapatua, bigarren entsegua izango dute aurtengo haur danborradan parte hartuko duten 293 neska-mutikoek. SUDC elkartearen gidaritzapean, San Viator Handin elkartuko dira 11:30ean eta hurrengo zapatuan ere hala egingo dute. Izan ere, buru-belarri dabiltza danborrada prestatzen, Luis Arkauz SUDCko presidenteak esandakoaren arabera: "Ilusioz beteta datoz".

**HAMAIKA KONPAINIA**

Ia 300 neska-mutiko horiek 11 konpainiatan banatu dituzte: mikeleteak, neska barril-jotzaileak, mutil barril-jotzaileak eta barril-jotzaile mistoak, eskoziarrak, kantinerak, sukaldariak, konpainia berria, danbor-jotzaileak, gastadoreak eta 3 eta 5 urte artekoen konpainia. Horrez gainera, karroza ere izango da eta karrozan 25 neska-mutiko joango dira, baserritar jantziarekin.

Bestalde, danborradako banderadunak eta jenerala ere izendatu dituzte SUDC elkartekoek. Hain zuzen ere, elkartearen bera-ren bandera eramango du Laura Balantzategik; Ikurrina, berriz, Anize Uribarrenek; Arrasateko bandera Oihana Iborrak eta jenerala izango da Julen Larrañaga.

**EGUN HANDIA**

Danborradakoendako egun handia, berriz, ekainaren 14a izango da. Ohiko tokitik aterako dira, Nafarroa etorbidetik, 19:00etan, eta danborrak astinduko dituzte, Sarriegiren doinuen erritmora eta Arrasate Musikalek lagunduta. Garibai etorbidea, Maala eta Erdiko kaletik zehar pasa eta gero, Herriko Plazan bukatuko dute ekitaldia, 21:00ak inguruan.



Argazkian, Sukaldarien konpainia, Zaldibar inguruan. GOIENKARIA

**MENDIA** > ESKALADA

# Alberto Iñurrategiren 'Begiz begi' dokumentala ikusgai

Eskaladaren inguruko gogoeta datorren astelehenean emango dute, Amaian (20:00)

**J.B.** > ARRASATE

Alberto Iñurrategi mendizale aski ezagunak bere azken dokumentala aurkeztuko du datorren astelehenean. Mendizale aretxabaletarrak gaur egungo eskaladari buruzko gogoeta egiten du kaleratu berri duen lanean. Dokumental horren bitartez, besteak beste, espedizio eta bidaien antolaketa edo mendizale ospetsuari mendiak eman dizkion lagunekin duen harremana ezagut daiteke.

**MENDIZALETASUNARI BEGIRATUA**

Lan hori mendizalearentzako egina dago erabat. Mendiaren aurrean gizarteak duen jarreraren inguruan Iñurrategik bere iritziak plazaratzen ditu. Hitzordu interesgarria, ezbairik gabe.



## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!




























hemen bada giro!




hemen bada giro!

**ATLETISMOA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Urrea Markel Blancok, eta Maialen Axpek, errekor

Arrasateko taldeko hamasei atleta izan ziren modalitate ezberdinetan lehian

Azpimarratzekoa pertika jauzian Maialen Axpek egindako jauzia (3,25)



Arrasateko taldeko atletak, Anoetako atletismoko instalazioetan egindako erretratuan. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Euskadik kadete mailan errekor berria du, joan den asteburuan Gipuzkoako txapelketan Maialen Axpek 3,25 metroko jauzia egin zuen-eta –lehenago ere Axpek zuen kategoria horretako marka onena–, eta zilarrezko domina jantzi zuen. Urrea, noski, Naroa Agirrerendako izan zen.

Pertika jauzilari horrekin batera, aipatzekoa da Lore Marren 3 metroko jauzia (15 urte), eta baita ere gaitasun galanta erakusten dabilen Malen Azuaren marka ere. 11 urteko gaztetxoak 2,60 metroko jauzia egin zuen, eta egindako markarekin harrituta, Naroa Agirre atleta olinpikoak urrezko domina oparitu zion.

Txapelketak, baina, utzi zituen bestelakoak. Markel Blancok urrea jantzi zuen 800 metrotan (2 minutu). Distantzia horretan bere marka pertsonala hobetzeko lanean dabil (1.56), eta hori lortzen duenean, punta-puntan ibiliko da. Atleta horiek, baina, ez ziren Arrasate ordezkatu zuten bakarrak izan, guztira 16 lagun ibili ziren-eta lehian. Taldeka, laugarren sailkatu ziren.

**PILOTA** > DEBARROKO TXAPELKETA

# Aretxabaletakoak bisitan, gaur 19:30ean

Kadete mailako plotariek finalaurreko partidua jokatuko dute gaur Uarkapen

**X.U.** > ARRASATE

Debarroko Txapelketa finalerdietan da dagoeneko, eta gaur arratsaldean Arrasateko Etxagibel eta Goitia Aretxabaletako pilotarien kontra lehiatuko dira.

Aste barruan, berriz, Antzuolako Olaldeko ordezkariek Arrasateren kontra jokatu zuten. Hala, Mendizabalek eta Biterik 22-14 irabazi zieten Aspe eta Uribarreni. Arrasatekoek ondo estutu zuten hasieran (12-13), eta ikustekoak izan ziren Asperen gantxoak. Ondoren, baina, Arrasateko aurrelariak kale larregi egin zituen, eta Mendizabalek ez zuen bakarra barkatu. Datorren egubakoitzean, hilak 6, jokatuko dute itzuliko partidua.



Uribarrenek –irudian– eta Aspek ezin izan zuten Mendizabalekin. GOIENKARIA

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer-Iturriotz | 1-0 |
| Iriztu-Cicatrus | 1-0 |
| HLB-McAwen Dauen | 1-3 |
| AT Celaya-Cipris | 5-7 |
| Total Disaster-Kokots | 7-3 |
| Dribling-Equs | 0-0 |
| Dublin-Lasagabaster | 3-4 |
| Kokots-Kalapatxak | 3-4 |
| Saukelu-Abokajarro | 5-3 |

**PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| **Maiatzak 28, zapatua** | **Epaileak** |
| **17:00** Cipris-Dribling | **Antolatzaileak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | McAwen Dauen | 52 | 19 |
| 2. | Dribling | 39 | 19 |
| 3. | Cipris | 38 | 19 |
| 4. | Lasagabaster | 38 | 19 |
| 5. | Betrayer | 37 | 19 |
| 6. | Saukelu | 35 | 19 |
| 7. | Dublin | 34 | 19 |
| 8. | HLB 108 | 34 | 19 |
| 9. | Iriztu Taberna | 32 | 19 |
| 10. | Kalapatxak | 32 | 19 |
| 11. | AT Celaya | 31 | 19 |
| 12. | Abokajarro | 20 | 19 |
| 13. | Iturriotz Taberna | 20 | 19 |
| 14. | Equs | 20 | 19 |
| 15. | Bar Kokots | 15 | 19 |
| 16. | Cicatrus | 15 | 19 |
| 17. | Total Disaster | 15 | 19 |
| 18. | Ekaitz Taberna | - | - |
| 19. | Iluntz | - | - |
| 20. | | | |
| | THC | - | - |

### Cipris eta Dribling taldeak, kopako finalean

Bihar arratsaldean jokatuko dute bi talde horiek kopako finala (17:00). Eskoriatzarrek iaz egin zuten Zaldibarren debuta, eta bigarren urtean ligan hurrengo fasera sailkatzearekin batera, kopan finalera iritsi dira.

Bestalde, Dribling taldearen gainean gutxi dago esateko, bide horretatik jarraitzen badute Zaldibarren titulu gehien eskuratu duen taldea bilakatu behar daeta. Hor ibiltzen dira urtero-urtero, ez bada txapelketa batean bestean, baina beti finaletatik gertu.

Azkenik, zorionak hurrengo fasera sailkatutako taldeei, baina oraindik ezer dago eginda.

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Deskontu bereziak!!
Laster bertan zabalik:
UME ITURRIOTZ
KLAS
Iturriotz 23 ARRASATE • Tel: 943 77 02 76

112
SOS DEIAK

nire bidaia hura

**Xabier Izquierdo**
Txilera > 2005eko urria

# "Arriskurik handiena eguraldi aldaketak dira: Antucon 45 soldadu hil ziren ekaitzak irentsita"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Ikaragarri gustatzen zaio Xabier Izquierdori mendia, eta baita eskiatzea ere. Duela hiru urte, aitarekin batera, Txilera joan zen, Bio-Bio eta Los Lagos herrialdeko sei sumendi igotzera. Behin sumendietako bakoitzera igota, Xabier Izquierdok snowboard taula batekin jaitsi zituen.**

Txileraino joatea, sumendi bateko magalak snowboardeko taula batekin jaisteko ideia nola bururatu zitzaion galdetuta zera esan digu Xabier Izquierdok: "Behin postal batean sumendi ezin hobea ikusita bururatu zitzaidan ideia; nire buruari bueltak ematen hasi nintzen orduan, eta nire barrenerako pentsatzen nuen: 'Hori bai sumendi puska snowboard taularekin jaisteko...'. Eta hala hasi nintzen Interneten informazioa bilatzen".

Hiriburura, Santiagora, hartu zuten hegaldia aitak eta semeak. Santiagotik autobus bat hartu eta Chillan herrirako bidea hartu zuten: "Han auto bat alokatu genuen, eta orduan jarri zen martxan gure abentura".

**CHILLANEKO SUMENDIAK**

Chillaneko sumendiak izan ziren Xabierrek eta aitak igo zituzten lehenak. Guztira, 3.186 metro zituen mendiak. "Sumendiek erraztasun bat daukate: ia denbora guztian kraterra ikus dezakezu, eta norberak ikus dezake zein den bide errazena tontorreraino igotzeko", adierazi digu Xabier Izquierdok. Herritarren laguntza ere izan zuten tontorrera igotzeko. Behin bertan zeudela, snowboard taulekin mendi tontorretik behera jaitsi nahi zuten." Sumendi hartan konturatu ginen zernolako bizitza izan dezakeen lurrak. Benetan harritzekoa izan zen nolako formak sortzen dituen elurra urtzerakoan", adierazi zigun Xabier Izquierdok. Bigarren sumendia Antuco izan zen, 2.985 metrokoa. "Teknikoki igo genituen sumendi guztiak nahiko errazak ziren, pioleta eta kranpoia erabilita nahiko", Izquierdoren ustez. "Leku hartan, arrisku handienetakoa eguraldi aldaketak dira: 2005eko neguan Antucon 45 soldadu hil ziren ekaitz batek irentsita. Guri, berriz, izugarrizko eguraldia egokitu zitzaigun, eta izugarri disfrutatu genuen". Beste igoera bat ere egin zuten: Lonquimay sumendira. Hark 800 metroko glaziarra zeukan kraterrean. Txileko jendea apenas ibiltzen zen mendietan: "Jende gutxi ibiltzen zen mendi haietan. Azken hartan, adibidez, ez genuen inor ikusi egun osoan, eta besteetan ikusten genituen guztiak atzerritarrak ziren. Txilen oraindik ez dago mendira joateko guk daukagun kultura hori", azpimarratu zuen Izquierdok. Laugarren igotzen saiatu ziren sumendia Llaima sumendia izan zen (3.125 m), baina ez zuten lortu. "Igotzen gindoazela, eguraldi txarra hasi zen, eta erdia baino pixkat bat gehiago eginda geneukanean bueltatu egin ginen", adierazi digu Izquierdok. Bosgarren saiakera Villarrica sumendi famatuarekin egin zuten (2.841 metro); Izquierdoren iritziz, sumendi masifikatua da hura. Igo zuten azken sumendia Casa Blanca (2.240 metro) izan zen. "Guztietatik errazena eta motzena, baina aurreko bostak bezain hunkigarri eta zoragarria".

**BERTAKO JENDEA, IREKIA**

Txiletik gehien harritu zituena garraio falta izan zen. Asfaltatu gabeko bideak, telefono eta argi sare korapilatsuak ikusten ziren. "Bertakoa jendea irekia, berritsua eta jatorra da. Diru aldetik, hemen baino merkeagoak dira han gauzak, baina ez desberdintasun handiarekin, batez ere lo egiteko eta autoa alokatzeko orduan", adierazi digu Izquierdok. Txileko paisaiaz liluraturik gelditu ziren: "Zoragarriak eta edozeini gomendatzeko modukoak".


Xabier Izquierdo.

**"Benetan harritzekoa izan zen nolako formak sortzen dituen elurrak urtzerakoan"**

**"Casa Blanca sumendia errazena eta motzena izan zen, eta, besteak bezala, hunkigarria "**



Xabier Izquierdo eta haren aita, Patxi, Lonquimay sumendia igotzen. XABIER IZQUIERDO

bere ustez


Oihan Zubizarreta

## Putreendako bazka gara

Etzan tripaz gora eta begiraiezu zeru urdinean lainoek marrazten dituzten formei. Lainoak atzera eta aurrera, zerua iluntzen hasiko da. Ezer ere ez baita perfektua bizitzan. Baina dena gaizki doanean, pentsatu hobera egin dezakeela. Denborak ihes egiten dizulako ez kezkatu, beti egongo da zure alde. Irribarre batekin begiraiozu bizitzari.

Baina berbok autokonplazentzian buka dezakete errealitateari erreparatu ezean. Iluntzen ari den zeruari begiratu berriro. Azkenaldian, bizitzari darion iluntasuna erreparatuko duzu bertan eta iluntasunari batu zaion putreen hegaldia.

Horixe baita gertatzen ari zaiguna... putre gehiegi hegan, jateko gutxi dagoen lekuan. Eta tripaz gora etzanda, tripak (eta burua) ireki eta putreei bazka emateko prest dauden autokonplazitu ugari. Horixe da bizitzaren tragikomedia, gure herri txiki hau politikomediaren kapital bihurtu duena. Mendeku gosearen eta bizitz(e)aren errenuntzien eskutik helduta, gainontzekoen begietara gutaz egin duten espektakulua. Eta zeru ilundua urdin ikusi nahi baduzu, piztu telebista... putreek begiak jan arte eskertuko dizute.

**"Lainoak atzera eta aurrera, zerua iluntzen hasiko da. Ezer ere ez baita perfektua bizitzan"**

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

margo industriala
margo orokorra
margo dekoratiboa
erreformak orokorrean
fatxadak
margolan
margoak
Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

**OSOKO BILKURA** > TRANSGENIKOEN AURKA

# Bergara gune ez transgeniko izatea erabaki du Udalak

EHNE sindikatuak egindako proposamena aho batez onartu du udalbatzak



Bergarako lurretan dagoen nekazari landa bat. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergara transgenikorik gabeko gune izatea onartu du udalbatzak, aho batez. Bergarako lurretan genetikoki eraldatutako organismorik ez duela gura adierazi du Udalak.

**EZIN KONTROLATU**

Agurne Barruso alkateak azaldu duen moduan, "ekintza sinbolikoa da, praktikoa baino gehiago. Egun, Udalak ez du mekanismorik kontrolatzeko zer landatzen den herriko lurretan. Produktu transgenikoen aurka gaudela esan gura izan dugu".

Munduan erakunde asko dira euren lurraldea genetikoki eraldatutako organismoetatik libre izendatu gura dutenak. Hego Euskal Herrian EHNE sindikatua da egitasmoa bultzatzen eta zabaltzen ari den erakundeetako bat. Nekazaritza sindikatu horrek dioenez, egia da udalek eurek ezin dituztela produktu transgenikoak kontrolatu, baina bai Eusko Jaurlaritzak. EHNEren esanetan, Jaurlaritzak lege aldetik badu aukera horrelako produktuak saltzen diren edo ez kontrolatzeko eta pentsuak tratatzen dituzten edo ez jakiteko, adibidez.

Hego Euskal Herrian, dagoeneko 56 herrik esan dute ez dutela transgerikorik gura euren lurretan. Debagoienean, Elgetak eta Bergarak apirileko osoko bilkuran hartu dute erabaki hori.

## Espaloien muturrei altuera kentzen dabiltza udal langileak

Irisgarritasun planari jarraituz, herriko espaloietako muturretan altuera kentzen, arrapala jartzen, ari dira udal brigadakoak. Barrenkaletik plazara sartzeko espaloian egin dute egokitze hori egunotan. Asmoa da herri guztian egitea, baina lehenengo erdigunekoak egokituko dituzte. Hurrengo lanak Irizar jauregi alboan egingo dituzte.



OIHANA ELORTZA

> AGIRIAK

### Erroldaren agiria momentuan ere eskura daiteke

Erroldako eta elkarbizitzako agiriak, bolanteak, egunean bertan eskura daitezke orain. Udalak horrela erabakita, momentuan eskura daiteke erroldaren edo elkarbizitzaren agiria eskaera 10:00etatik 11:00etara bitartean egiten bada. Ordu horretatik kanpo eskatutako agiriak ondorengo lanegunerako egongo dira prestatuta, orain arte bezala.

Bolantea zein biztanleen erroldako ziurtagiria telefonoz ere eska daiteke. Zenbakia hauxe da: 943 77 91 09.

> OSPAKIZUNA

### Raizabal gozotegiak sari bat zozketatuko du bezeroen artean

Raizabal gozotegiak bezeroekin ospatu gura du sortu zeneko 100. urteurrena. Horretarako, Zumaiako talasoterapian bi lagunendako asteburua zozketatuko du bezeroen artean. Raizabal gozotegira doanak bere datuak idatziko ditu paper batean eta dendan dagoen kutxa barruan sartuko du. Dagoeneko hasi da kutxa betetzen. Bezeroen arteko zozketa ekainaren lehen hamabostaldian egingo dute Raizabal gozotegikoek.

> JAIA

### Mariaren Lagundiak ikastolako jaia ospatuko du domekan

Mariaren Lagundiak ikastolako jaia ospatuko du domekan, ekainak 1. Jaia 10:00etan hasiko da etxafuegoekin eta horren segidan kiroletako finalak jokatzen hasiko dira. 10:30ean, marrazki lehiaketa egingo dute eta Jardunekin batera, tailerrak eta jolasak ere egingo dituzte. 12:15ean, kiroletako sari banaketa egingo dute eta 12:45ean, paella lehiaketa. Jaialdia 14:00etan amaituko da.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

**AZPIEGITURAK** > KIROL INSTALAZIOAK

# Ekainaren 9an hasiko dira Ipintza guneko lanak

Abuztuaren 20rako lanek amaituta egon behar dute, belar artifizialeko zelai berria ipinita

**JASONE ZABALA** > BERGARA
Martitzenean, Bergarako Udaleko eta Amenabar enpresako ordezkariek egindako bileran erabaki zen Ipintzako futbol zelaiko lanak ekainaren 9an hasiko direla.

**EGINGO DITUZTEN BERRIKUNTZAK**
Proiektuaren aurrekontua 698.000 euro izango da, eta horren barruan sartzen da bi urteko garantia eta mantentze-lan orokorrak. 90x52 metroko zelaia egingo dute. Bertan, 11nako futbolean jokatzeko marrak margotuko dituzte, eta baita zazpinako futbolean jokatzeko bi zelaien marrak ere. Zelai artifizialaz gain, futbol zelaia inguratzen duen hesia ere aldatuko dute. Horrekin batera, zelaia argiztatuko duten lau kale-argi ere jarriko dituzte. Aldagelei dagokienez, oraindik ez dira jarriko, nahiz eta urtea amaitu aurretik diru kantitate bat emango den horretarako. Dena den, behin-behineko aldagelak ipini nahi dira, sei, eta beste bi epaileendako. Proiektua aztertzen ari dira, eta horrelako aldagelak dituzten beste herri batzuk ikustera joango dira udal ordezkariak. Egingo duten beste berrikuntza bat, urte honen amaierarako, igerilekua dago. Kanpoko aldeak dituen 4.000 $m^2$ tatik, ume txikientdako egingo den igerilekuak 400$m^2$ izango du.



Irudian, Irizar kalean egiten ari diren lanak. J.Z.

**LANAK** > IRIZAR KALEA

# Irizar kalea, beste astebete itxita

**J.Z.** > BERGARA
Irala kalean egiten ari diren lanen ondorioz, Irizar eta Irala arteko bidegurutzean bi aste iraungo duten lanak hasi dituzte asteon, eta maiatzaren 26a ezkero itxita dago zirkulazioarendako Irizar kalea.

**ZIRKULAZIO DESBIDERAKETAK**
Lanokin datorren astean ere jarraituko dute. Ondorioz, lan horiek zirkulazio moldaketa ekarriko dute herrira. Irizar kaletik doazen autoek Kruz Gallastegi kaletik joan beharko dute derrigorrez; lanok aurrera egin ahala, kalea guztiz moztuta geldituko da. Beraz, aste honetan eta hurrengoan San Martin plazara joateko modu bakarra Barrenkaletik, Masterreka kaletik edo Burdiñate kaletik joanda izango da. Lanok iraun bitartean birziklatze eta zaborrontziak Irizar kalera, Egino Maileara eta Kruz Gallastegira eramango dira. Kruz Gallastegin dauden garajeetara Bideberritik sartu beharko da. Behin Irizar eta Irala kaleen bidegurutzean egiten ari diren lanak amaituta, orain arte bezala jarraituko du egoerak, hau da, Irala kalea itxita egongo da zirkulazioarendako.

**POLITIKA** > ZINEGOTZI ALDAKETA

# Maite Barrena da zinegotzi berria

Belen Abarzuzaren (EAJ) dimisioaren ondoren, Maite Barrenak hartuko du haren postua Udalean

**J.Z.** > BERGARA
Joan den astelehenean egin zen osoko bilkuran, EAJko zinegotzi Belen Abarzuza Zabalak dimisioa aurkeztu zuen. Dimisioaren arrazoiak, osoko bilkuran irakurri zen idatzi batek zioenaren arabera, "arazo pertsonalak" izan dira.

Eta, hain zuzen ere, haren ordezkoa aukeratuta dago. Maite Barrena Aranburu (EAJ) izango da Abarzuzak utzitako zinegotzi postua beteko duena. Abarzuza urtebete egon da Udalean zinegotzi –2007ko maiatzaren 27an izan ziren hauteskundeak–, eta, esan bezala, Barrenak hartuko du haren kargua datorren ekainaren 26an egingo duten osoko bilkuran.



Maite Barrena Aranburu.

> HEZKUNTZA

### Miguel Altuna institutuan bi proiektu berriren aurkezpena egin zuten martitzenean

*Orga eta garabien trebakuntza* eta *Lantokiko prestakuntzaren jarraipena mugikorraren bidez* izeneko proiektuak aurkeztu zituzten. Aurkezpenean, besteak beste, Ina Larrañaga zuzendaria eta Ignacio Barrondo Gipuzkoako Lanbide heziketako zuzendaria egon ziren.

> LEHIAKETA

### Mendekoste jaietako argazki rallyko argazkiak entregatzeko azken eguna ekainaren 2a da

Mendekoste jaietako argazki rallyko lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 2an izango da, 12:00etan. Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira. Sari banaketa, berriz, ekainaren 16an izango da, lehiaketako lanon erakusketaren inaugurazioarekin batera.

> ZERGAK

### Ondasun higiezinen zerga ordaintzeko epea ekainaren 30a arte egongo da zabalik

Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago. Ekainaren 30a izango da azken eguna, eta epez kanpo gelditzen direnek errekarguaz ordaindu beharko dute. Ordainketa banketxean helbideratuta dutenei, handik kobratuko zaie. Besteek, berriz, agiriarekin banketxetik edo Udaletik pasa beharko dute.

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Guisasola burdindegia "Erratzu"
Zerbitzu berria
labanak eta guraizeak zorrozten ditugu
San Pedro, 8 Tel. / Faxa: 943 76 27 70
20570 BERGARA (GIPUZKOA)

> ERAKUSKETA

### Eguenean zabalduko dute Venezuelako argazki erakusketa

Eguenean, ekainaren 5ean inauguratuko dute Venezuelako gobernuz kanpoko Saprendeh Venezuela elkarteak egindako argazkien erakusketa. Espoloiko Hamaika tabernan izango da, arratsaldeko 7etan. Venezuelako talde horrek gutxitasun mentala eta fisikoa dutenekin egiten du lan; eta integrazio soziala lortzea dute helburu.

> ERAKUSKETA

### Domekan amaituko da Bergara Hiria argazki erakusketa

Domeka izango da Bergara Hiria argazki erakusketako lanak ikusteko azken eguna. Aroztegi aretoan daude ikusgai. Ordutegia: gaur 18:00etatik 20:30era, zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domekan 12:00etatik 14:00etara.

> ERAKUSKETA

### Euskal Herriko landaretza ikusgai kultura etxean

Jose Antonio Aperribaik batutako landare erakusketa dago ikusgai kultura etxean. Euskal Herriko hainbat landare eta hosto ikusteko aukera dago. Hilaren 10a arte dago zabalik erakusketa. Ordutegia: astean zehar 18:00etatik 21:00etara eta zapatu goizean.

**ERROMERIAK** > MUNIBE PLAZA

# Bihar, erromeria eta afaria Munibe plazan

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Udalak, Jardunek eta Abarka dantza taldeak antolatutako erromeria da

Afarirako txartelak salgai daude Kortazar tabernan; 12 euro da salneurria



Iazko irudian, dantzariak Munibe plazan. GOIENKARIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Bihar egingo dute Maiatzeko Erromeriak programako azken saioa. Orain arte egin diren erromerietan egon den parte-hartzearekin gustura geratu dira Kultura Saileko arduradunak.

**TRIKITILARIEKIN KALEJIRA**

Azken jai horri hasiera emateko, Bergarako trikitilariek kalejira egingo dute. Kalejira 18:30etik 20:00etara izango da; eta trikitilariek herriko kaleak dantza doinuekin beteko dituzte. Ondoren erromeria egingo dute Munibe plazan; ordu erdi iraungo du herriko trikitilariek eskainiko duten erromeriak. Gero, tripa ondo betetzeko aukera izango dute dantzari guztiek.

**AFARIA MUNIBEN**

Afaria Munibe plazan bertan izango da; eta, eguraldi txarra eginez gero, Seminarioko aterpean egingo litzateke afaria. Afarirako txartelak salgai daude 12 eurotan Kortazar tabernan. Dagoeneko 150 txartel saldu dira; eta, hori ikusita, beste 50 txartel jarri dituzte salgai oraingo astean. Horiek eskuratzeko aukera Kortazar tabernan egongo da. Afariko menua: pasta entsalada, oilasko izterra patata eta piper gorriekin eta izozkia. Ogia, edaria eta kafea ere sartzen dira prezioan. Afalondoren Izer, Alabier eta Lutxurdiok izango dute herritarrak dantzan jartzeko ardura.

**TRIKITI ZALETASUNA**

Herrian dantzarekiko eta trikitiarekiko zaletasuna sustatzeko helburuarekin jarri ziren abian erromeriok. Udaleko Kultura Saila, Jardun elkartea eta Abarka dantza taldea ibili dira antolatzaile lanetan.

**HITZALDIA**

# Klima aldaketaren gaineko hitzaldia

Gaur izango da hitzaldia, Angiozarko saloian arratsaldeko zazpietan

**A.E.** > BERGARA

Elen Mendiola Elhuyar elkarteko kideak klima aldaketa eta horrek lurrean duen eraginaren inguruan egingo du berba gaur arratsaldean Angiozarko saloian. Hitzaldia 19:00etan izango da.

Gaur egun oso modan dagoen terminoa da *klima aldaketa*. Hala, esaten den guztia zein puntutaraino den egia azaltzen ahaleginduko da Mendiola Elhuyar elkartekoIngurumen arloan dihardu.

**ALDAKETAREN ZERGATIAK**

Hainbat termino azalduko ditu Mendiolak. Baina batez ere klima aldaketaren zergatia azalduko du. "Denon ahotan dabilen gaia da klima aldaketa; hala, klima aldaketa zerk eragiten duen eta esaten den guztia egia ote den azalduko du", dio Mila Elortzak. Hedabideetan entzuten denak ze oinarri duen, alegia.

Hitzaldia Bergarako Udalak eta Kutxak elkarlanean antolatu dute. Kutxak urtero eskaintzen duen jardueren artean sartzen da hitzaldia.

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK:
- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:
ekainaren 2tik 13ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
ekainaren 30etik uztailaren 4ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es


Zure nahiak eta ahalmenak gertutik landu eta garatu nahi dituzu ?
Etorkizunerako prestakuntza eguneratua jaso nahi duzu ?
Bi urte barru zure inguruko enpresa batean lan egin nahi duzu ?
Bidal ezazu SMSa imaltuna hitzarekin 5533ra eta hori egia bihurtzeko informazio guztia zure mugikorrean izango duzu.
AURREMATRIKULA DATA:
Ekainaren 2tik 13ra.
GLHBI Miguel Altuna
Ibargarai, 1. 20570 Bergara
Tfnoa.: 943 76 38 40/943 76 24 91
www.imaltuna.com
e-mail: imaltuna@sarenet.es
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
INVESTOR IN PEOPLE


hamaika
taberna
AFARIAK EGUNERO
eta UDA PARTEAN, ostiral, larunbat eta igandeetan BAZKARIAK ere bai!
espoloia 10-12 bergara 943 03 45 85

FUTBOLA > BIGARREN ERREGIONALA

# BTLS eta Sanpedrotarrak taldeek bihar erabakiko dute zein den onena

Zumaian jokatuko dute bihar (17:00) bigarren erregionalean onenak izan direnen arteko finala; Bergarako taldeak sari moduan hartu du final hori

XABIER URTZELAI > BERGARA

"Guretako final hau sari bat baino ez da, urte osoan egindako lanaren errekonozimendua. Izan ere, garrantzitsuena kategoriaz igotzea zen, eta hori dagoeneko lortu dugu; horrenbestez, gozatzeko partidua izango da", adierazi du aste barruan taldeko arduradunetako bat den Jose Luis Beitiak. Dena dela, Beitiak ez du uste final ikusgarria izango denik: "Ez da ligan egon den tentsioa egongo, inor ez da egongo gertu hanka orain arte moduan sartzeko; horregatik ez dut uste aparteko finala izango denik, baina hori ikusteko dago oraindik".



BTLS taldeko jokalariak, joan den asteko partidu erabakigarrian, Kostkasen zelaian. BEITIA

**ARAZOAK HAMAIKAKOA OSATZEKO**

Norgehiagoka berezia bada ere, Beitiak onartu du sekulako arazoak izan dituztela biharko partidurako gutxieneko jokalariak batzeko, hamaikakoa osatzeko: "Taldekideek hainbat konpromiso zituzten oraingo asteburuan, eta batek baino gehiagok alde batera utzi ditu kontu horiek, partidura joateko. Momentu batean finalera ez aurkeztea ere pasatu zitzaigun burutik, baina azkenean jokatuko dugu partidu hori. Hori bai, denboraldian zehar futbola utzi duen bati baino gehiagori deitu behar izan diegu, eta horiek ere jokatu egingo dute". Ondoko erretratuan daude, goian ezkerretik eskumara: Jose Luis Beitia, Pol Lopez de Subijana, Julen Muguruza, Arkaitz Arejolaleibar, Asier Arbulu, Asier Bolinaga (entrenatzailea), Urko Irizar, Nathan Olabarria, Jon Igartua, Mikel Gallastegi eta Andoni Martin. Behean, Javi Berraondo, Alex Abajo, Iker Orgaz, Iñaki Lasa, Alvaro Macho, Ibon Leibar eta Ander Macho.

**ARETXABALETA ERE SALTSAN**

BTLS eta Mondra dira lehenengo erregionalera igo diren taldeak. Eta beste multzoan Sanpedrotarra eta Anaitasuna taldeek egin dute gora. Baina, gorago dauden kategorien gorabeherak tarteko, baliteke bosgarren sailkatuak ere mailaz igotzea. Hori erabakitzeko, bi multzoetan hirugarren sailkatu diren taldeek elkarren kontra jokatuko dute. Aretxabaleta eta Getaria dira bi talde horiek. Hala, lehenengo partidua domekan jokatuko dute Ibarran (16:30).

KARATEA > TXAPELKETA

# Kyoku txapelketa bihar Labegaraietan

X.U. > BERGARA

Bihar arratsaldean egingo dute, 16:00etan, kluben arteko Debagoieneko Kyokushinkaiko 5. torneoa. Eta, Labegaraietako kiroldegian egingo dute Giartzu karate taldeak antolatu duen txapelketa. Arte martzial hori Masutatsu Oyamak maisuak sortutako karate estiloa da, eta ibarrean lagun askok praktikatzen dute. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, txapelketan kategoria guztiek hartuko dute esku, baina maila txikienetan txapelketa beharrean erakustaldia egingo dute.

**70 KARATEKA BAINO GEHIAGO**

Biharko hitzorduan antolatzaileek aurreikusten dute 70 karateka batuko direla. Hala, txapelketan esku hartuko duten kluben artean daude Arrasateko Saioa Gimnasioko karatekak, Aretxabaletako UDAkoak eta, noski, antolatzaile lanetan dabiltzan Giartzukoak ere lehiatuko dira.



Giartzu karate taldeko kideak, Gorlan egindako erretratuan. GIARTZU

> ARETO FUTBOLA

## Labegaraietako kopako finala domekan, (18:00)etan

Finalerdietan indarrak parean egon eta gero, Carboneros eta Niu Tim taldeak iritsi dira kopako finalera.

Carbonerosek lanak izan zituen jokalari bat gutxiagorekin aurkeztu zen ligako txapelduna mendean hartzeko (4-3). Niu Tim, berriz, maila oso oneko taldea bada ere ligan kaskar ibili dira, eta kopa irabazita gura dute urtea zuzendu. Finalerdian 8-5 irabazi zioten aurten lehenengoz jokatu duen Los Blus taldeari. Finalaren ostean, antolatzaileen eskutik luntxa izango da.

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!

**943 76 16 63** BERGARA

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA

# Azpiegiturak

Egubakoitza / 2008ko maiatzaren 30a / **Arduraduna:** Iker Barandiaran / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



TRANBIA
•
ABIADURA HANDIKO TRENA
•
EIBAR - GASTEIZ
•
BEASAIN - DURANGO
•
BIDEGORRIAK
•
INDUSTRIALDEAK

ARGAZKILARIA: XABIER URTZELAI


"Euskal Y" trenbideak nola hobetuko du segurtasuna gure errepideetan?
Abiadura handiko trenaren bitartez pertsonak eta salgaiak garraiatuta, ibilgailuak gutxitzen dira errepide sarean.
"Euskal Y" trenbideak segurtasun eta erosotasun handiagoak bermatuko ditu errepideetan, eta bidaiariek garraio eroso, fidagarri eta seguru bat gozatuko dute 230 kilometro orduko abiaduran.
Eta Euskal Herriko abiadura handiko trenaren inguruko informazioa azkar izateko, hau da bidea:
www.euskaly.com
adif
ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS
ets
euskal trenbide sarea
EUSKAL Y
trenbidea da bidea

■ TRANBIA

# Herritar eta agintariekin adostutako tranbiaren zain

GOIENKARIA

**Jaurlaritzako Garraio sailburu Nuria Lopez de Gereñuk nabarmendu du hobe dela tranbiaren proiektua ondo adostutakoa izatea, horrek eraikitzea atzeratuko duen arren. Hala, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako udalek jarritako alegazioekin aldaketak egiten dabiltza hasierako proiektuari.**



Debagoieneko tranbia Euskal Herriko luzeena izango da. Guztira, 28 kilometro izango ditu. GOIENKARIA

Debagoieneko tranbiaren egitasmoa aspalditik dator. Hain zuzen ere, tranbiaren hasierako ibilbidearen gaineko proiektua 2004aren bukaeran erakutsi zuten jendaurrean.

Horri jarraitu zion jendaurrean erakusteko epeak eta horri dagozkion alegazioak egiteko tarteak ere. Are gehiago, informazio epea luzatu egin zuten.

**LEHENENGO ALEGAZIOAK**

Lehenik eta behin, Bergarako Udalak hamahiru alegazio egin zizkion aurkeztutako ibilbideari. Besteak beste, eskatu zuten Matxiategiko geltokitik Ozaeta kalera bitarteko bidea aldatzea.

Aretxabaletako Udalak ere beste horrenbeste egin zuen proiektuaren aurrean. Hala, ibilbidearen aldaketa bat eskatu zuten herrigune barruari dagokion zati baten, hain justu.

**IBILBIDEARI ALDAKETAK**

Aipatutako udaletako alegazioen ondorioz, Jaurlaritzak erabaki zuen ibilbidearen proiektuari hainbat aldaketa egitea, eta hori idaztea. Horren ostean, 2006ko azaroan, hain zuzen ere, aldatutako proiektua jendaurrean jarri zuten eta aipatutako udaletara bidali zuten, udalerri horietan berriro aztertu eta kontrakorik bazuten, jakinarazteko.

**Lehenengo faseko lanak egiteko, 36 hilabetetako aurreikuspenak dituzte**

Hori baino apur bat lehenago, 2006ko apirilean, tranbiaren lehenengo fasearen eraikitze proiektua idaztea onartu zuten. Iberinsa-LKSk hartu zuen horren ardura.

**AZTERTZE LANAK EGITEN**

Gerora, udal hauteskundeen ostean, Arrasateko Udalak, udal gobernua aldatuta, beste aldaketa batzuk egitea eskatu zuen.

Jaurlaritzak, hala ere, prozedurak abian dauzka, neurri baten: hala, herri kanpoko tramuen eraikitze proiektuak idazten dabiltza; geoteknikari dagozkion lanak hastear daude, eta beste. Hala ere, kontuan hartu behar da Arrasateko Olandixoko tunelaren proiektuak eta Aretxabaletan egin gura duten biribilgune berriak lanok neurri baten mugatzen dituztela.

**HIRU FASE IZANGO DITU**

Debagoieneko tranbiaren lehenengo fasea Bergara eta Aretxabaleta artekoa da, eta 17,5 kilometro izango ditu. 19 geltoki izango ditu: bederatzi Arrasaten, zazpi Bergaran eta hiru Aretxabaletan. Lanak hasi eta bukatu bitartean 36 hilabete pasako direla aurreikusi dute.



PUBLIZITATE GEHIGARRIA
2008ko maiatzaren 30a



Donostiatik datorrela, Antzuolatik pasatu ondoren (argazkian) Bergarara, Angiozarrera, iritsiko da, eta han, Bilborako bidea hartuko du Elorriotik. GOIENKARIA

■ ABIADURA HANDIKO TRENA

# EAEko hiru hiriburuak lotuko dituen azpiegitura

GOIENKARIA

**Hasi dituzte Abiadura Handiko Trenaren Euskal Y-a egiteko lanak. Proiektu erraldoia da, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko dituena. Merkantziak eta bidaiariak, biak, garraiatzeko azpiegitura da Abiadura Handiko Trena.**

*Euskal Y*-a Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak batuko dituen Abiadura Handiko Tren sarea da. Europako Batasunaren Garraiorako Sare Transeuropearra izeneko azpiegitura egitasmoaren barruan kokatuta dago *Euskal Y*-a. Espainiako Estatuko Sustapen Ministerioak dauka Estatuan trenbide azpiegiturak egiteko eskumena. Baina *Euskal Y*-aren kasuan EAEko administrazioarekin lortutako akordio baten bitartez, Sustapen Ministerioak eskumen horren zati bat eman dio Eusko Jaurlaritzari.

*Euskal Y*-ak eragina izango du Debagoienean. Izan ere, Elgetatik, Oñatitik eta Aretxabaletatik izan ezik, ibarreko gainontzeko herrietatik pasatuko da.

**BIDAIARI ETA MERKANTZIENDAKO**

*Euskal Y*-ak Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune nagusiak lotuko ditu. Distantzia erdi eta luzeetarako balioko du, eta bai bidaiariak eta baita merkantziak ere garraiatzeko erabiliko dute.

Merkantziak garraiatzerakoan 90 kilometro orduko hartuko ditu; eta bidaiariak eramaterakoan, berriz, 230 kilometro orduko. Hala, Jaurlaritzaren esanetan, Gasteiz eta Bilbo arteko bidea 28 minututan egingo du; Gasteiz eta Donostia bitartekoa 24 minututan; eta Bilbo eta Donostia 38 minututan lotuko ditu, hurrenez hurren.

Debagoienean ez da geltokirik egingo. Hortaz, ibarretik trena pasatuko da, baina trena erabili ahal izateko Gasteizera edo beste hiriburu batera joan beharko dira erabiltzaileak.

**Elgetatik, Oñatitik eta Aretxabaletatik izan ezik, ibarreko beste herrietatik pasatuko da**

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, proiektuak 4.178 milioi euroko aurrekontua izango du. Horietatik, Espainiako Sustapen Ministerioari dagokion Trenbide Azpiegituren Administrazioak 2.536 milioi euro jarriko ditu; eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, 1.642 milioi euro.

**172 KILOMETROKO LUZERA**

Ibilbideak 172 kilometro izango ditu guztira. Horietatik zati handi bat tuneletatik joango da; hain zuzen ere, ibilbide osoaren %60,4. Hala, 104 kilometro aurreikusita daude lurpetik eta horiek 80 tuneletan banatuta egongo dira. Horietako batzuk Debagoiena igaroko dute. Esaterako, 3.160 metro dituen bide bikoitzeko tunela pasatuko da Udalatx mendiaren barrutik.

**4.178 milioi eurotatik 2.536 Espainiako gobernuak jarriko ditu**

Biaduktuetan 17 kilometro eraiki beharko dira. Guztira, halako 71 eraikitzea aurreikusten du proiektuak. Horien artean, Aramaion egingo dutena nabarmendu beharra dago: 1.400 metroko luzera eta 70 metroko garaiera izango du horrek. Gainazaletik, azkenik, 51 kilometro igaroko dira.

**23 METROKO ZABALERA**

Bestalde, trazatuaren gutxieneko zabalera 23 metrokoa izango da. Hain zuzen ere, plataformak 15 metro izango ditu, eta albo bietara doazen itxiturek beste lau metro hartuko dituzte. Horrez gain, alboetara zorti metro arteko desjabetzea egingo dute. Horren baitan, trenak berak behar dituen baliabideak eta baita segurtasun neurriak ere sartuko dituzte.

**Trenaren hiru norabideak ibarrean elkartuko dira, *Y*-aren irudia osatuta**

Trazadurak 671 hektarea hartuko ditu; eta hondakindegiek, 518 hektarea. Horren harira, proiektuak 64 hondakindegi aurreikusten ditu. Inpaktu akustikoari dagokionez, 250 metrora inpaktua 79-94 dezibeliokoa izango dela jakinarazi dute.

**IBARREAN, BIDEGURUTZEA**

Proiektuak 47 udalerri ukituko ditu, eta horietatik sei Debagoienekoak. Ibarrean bidegurutze lana egingo du trenak: hiru norabideak bertan elkartuko dira eta Y-aren hirukia Bergara, Arrasate eta Elorrio artean egongo da.

Gurean Leintz Gatzagatik sartuko da AHT. 600 metro egingo ditu tunel barruan. Eskoriatzan Marin auzoan sartu eta Zarimutz eta Mazmelatik igaroko da. Aramaion 1.401 metroko Induspeko tunelean sartuko da. Arrasaten bitan banatuko da *Euskal Y*-a, Udalatx parean. Adar bat Bergaratik Donostiarantz joango da, eta bestea Bilborantz. Donostiatik datorrena Antzuolatik pasatu ondoren Bergarara, Angiozarrera, iritsiko da, eta han Bilborako bidea hartuko du Elorriotik. Bestea Arrasatetik Gasteizera bidean joango da.

■ EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

# Aurten ireki gura dute autobidea



Argazkian ageri den biaduktua, Zarimutz eta Marin zeharkatu ostean, Isuskitz aldera arte helduko da. GOIENKARIA

GOIENKARIA

**Eibar-Gasteiz autobidea zabalik egongo da 2008a bukatu aurretik. Horren ahaleginetan dabil Gipuzkoako Foru Aldundia. Horretarako, 500 langile dabiltza buru-belarri azkeneko lanak egiten. Eibar eta Arrasate bitarteko zatia aspalditik dago zabalik, baina Isuskitza bitartekoa bukatzear dago.**

Eibar-Gasteiz autobidea 2008ko bukaerarako osorik zabalik egongo dela uste du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Falta diren tramu garrantzitsuenak Arrasate eta Eskoriatza bitartekoa eta Eskoriatza eta Isuskitza bitartekoak dira, hain zuzen ere.

AP-1 edo Eibar-Gasteiz autobideak, guztira, 46,2 kilometro izango ditu; horietatik, 31,9 kilometro Gipuzkoan. Bestalde, tunel guztiak batuz gero, horien luzera 10,5 kilometrotakoa izango da, eta zubien luzera, berriz, 4,9 kilometrotakoa izango da.

### 500 LANGILE BURU-BELARRI

Foru Aldundiko arduradunek jakinarazi dute lanak lehenbailehen bukatzeko egunotan 500 bat langile dabiltzala buru-belarri tramu horietan.

Egin beharreko lan garrantzitsuenak honako hauek dira: biaduktu eta bestelako estrukturei azkeneko ukituak egitea, Isuskitzako tunelari estaldura berria jartzea, Zarimuzko tunelean jazotako lur-jausien kalteak konpontzea, San Bernabeko bide-sarirako geltokia eraikitzea, tuneletan segurtasun ekipamenduak jartzea, eta bukatzeko, falta diren tramu guztietan asfaltatze, margotze eta seinaliztapen lanak egitea.

Autobidea zatitan banatzen badugu, honako hauek dira ezaugarri nabarmenenak:

Eibar eta Bergara Iparra arteko tramuak 140 milioi euroko aurrekontua izan zuen eta 7,2 kilometroko luzera dauka. Bere baitan lau tunel eta hiru zubi ditu. 2003ko abenduan zabaldu zuten.

Bergara Iparra eta Bergara Hegoa artekoa 2004ko uztailean zabaldu zuten: 4,2 kilometroko luzera dauka, eta 77 milioi euroko aurrekontua izan zuen. Tunel bakarra eta bi zubi egin zituzten zati horretan.

Bergara Hegoa eta Arrasate bitarteko zatia, berriz, 2005eko uztailean zabaldu zuten. 3,5 kilometro ditu eta 71 milioi euroko aurrekontua. Bi tunel eta bi zubi dauzka bere baitan.

### LEINTZ INGURUA BUKATZEAR

Hala, Arrasate eta Isuskitza (Arlaban) bitarteko zatiak dira oraindik falta direnak. Hala, Arrasate eta Eskoriatza bitarteko tramuko lanak 2006ko urtarrilean hasi zituzten eta 2008a bukatu aurretik bukatuta izan gura dute. 106 milioi euroko aurrekontua dauka, eta 3,5 kilometroko luzera izango du. Aipatutako tarte horretan bi tunel eta bi zubi egitea aurreikusita daukate Aldundiko arduradunek.

Horrez gain, Eskoriatza eta Isuskitza (Arlaban) bitarteko tramua ere bukatu barik dago oraindik. 2004ko irailean hasi zituzten lanok, eta asmoa da aurten irekitzea.

Lanek 192 milioi euroko aurrekontua dute, eta tramuak 10,8 kilometroko luzera. Azken tramu horretan bi tunel eta bost zubi egiten dabiltza.

LKS
www.lks.es

■ BEASAIN-DURANGO AUTOBIDEA

# Urretxu-Bergara tramua idazten

GOIENKARIA

**Beasain-Durango autobideko Gipuzkoako zatia bukatutzat emateko, Urretxu eta Bergara arteko zatia egin beharra dago, proiektua idazten dabiltzaeta. Horren aurretik, baina, Zumarraga eta Urretxu bitarteko zatia ere bukatu beharko dute. Tramu horri dagozkion lanak 2007aren bukaeran hasi zituzten.**

Beasain-Durango autobidea egiteko asmoa aspalditik dator, eta herritar asko hori bukatzeko deseatzen daude. Gure ibarrari dagokion zatia, Urretxu eta Bergara artekoa, hain zuzen ere, hasi barik dago oraindik.

Autobidea horren helburua da N-1 eta Eibar-Gasteiz lotzea eta, bide batez, Goierri eta Durangaldea batzea ere. Beasain eta Zumarraga arteko zatia aspaldidik dago zabalik, 2005a ezkero, hain zuzen ere. Zumarraga eta Urretxu bitartekoan, berriz, lanean dabiltza aspaldi honetan. Hala, 2007ko bukaeran hasi ziren tramu hori egiten, eta, Aldundiaren aurreikuspenen arabera, denbora luzea beharko dute hori bukatzeko, lan handiak dira-eta.

**Urretxu-Bergara zatiak 9,7 kilometro ditu, eta 120 milioi euroko aurrekontua**

**Tramu berri hori zerbitzuan jartzen dutenean, AP-1 eta Beasaingo N-1 lotuko ditu**

Urretxu eta Bergara arteko tramuari dagokionez, une honetan eraikuntza proiektua idazten dabiltza. Hori idazteko ardura Euroestudios enpresak hartu zuen 2007ko udan. Horretarako, 1,7 milioi euroko aurrekontua jarri zuten, eta 14 hilabeteko epea, besteak beste.

**9,7 KILOMETROKOA**

Hala, 2008a bukatu aurretik proiektua idatzita egongo da eta erakusketa publikoa egingo dute jendaurrean. Horren ostean, alegazioak aurkezteko epea zabaldu eta proiektuaren egilea, enpresa jakin bat, aukeratu beharko dute.

Urretxu-Bergara zatiak 9,7 kilometro izango ditu, eta proiektuak 120 milioi euroko aurrekontua izango du.

Zati hori zerbitzuan jartzen dutenean, zuzenean lotuta geratuko dira Bergara (AP-1) eta Beasain (N-1).



Lan eta lan dabiltza Beasain-Durango egiten. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

■ BIDEGORRIAK

# 2009aren hasierarako, hiru bidegorriren lanak abian

GOIENKARIA

**Eskoriatzan, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin bidegorri sarearen bost tramu berri egiteko proiektuak abian daude. Horietako gehienen lanak 2009aren hasieran jarriko dituzte abian, eta une honetan idazten dabiltza. Hala ere, bada 2008a aurretik hasiko duten zatirik ere.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak ingurumen iraunkorraren alde egin gura du, eta programa horren barruan bidegorriak egiten dabil.

Epe laburrean Debagoienean hainbat proiektutarako prozedurak abian jarri dituzte. Hala, Oñati eta Elorregi (San Prudentzio) batuko dituen bidegorriaren lanak 2009a heldu bezain laster hasiko dira. LKSk idatzi du proiektua, eta tramuak 8,5 kilometro izango ditu.

Eskoriatzari dagokionez, bi proiektu daude abian: bata, udalerri hori eta Arabako muga lotuko dituena. Injelan enpresak idatzi du proiektua eta 18,66 kilometro izango ditu. Aurreikusitako aurrekontua, berriz, 6.315.861 euro da. Hain zuzen, Aldundiaren asmoa da lanak 2009an berehala hastea.

Eskoriatzako proiektuekin jarraituta, Aingeru Guarda-Sorautz tramua ere Injelanek idatzi du. 0,95 metroko luzera dauka, eta 1.980.039 euroko aurrekontua. GI-627 errepidearen paretik joango da bidegorri hori.

**BERGARAN ERE BAI**

Bergaratik Antzuolara 2,9 kilometroko tramua egingo dute datorren urtean. Harremanek idatzi du proiektua, eta 1.350.000 euroko aurrekontua du. Horrez gain, Bergara eta Urretxu lotuko dituena, 17 kilometrokoa, Peyco SAk idatzi du, eta aurten hasiko dute.



Hainbat kasutan trenbide zaharrak baliatuko dituzte bidegorriak egiteko. GOIENKARIA

■ INDUSTRIALDEAK

# Gero eta industria gune gehiago

GOIENKARIA

**Ezagun da gure ibarrean industriak garrantzia handia daukala. Hala, ia herri guztietan industria garrantzitsuak daude, eta udalek dagoeneko dauden industria guneak handitu edota berriak egin gura dituzte. Horrez gain, industria berrantolatzeko asmoa ere badute.**

Arrasatek sei industria gune nagusi ditu. Horietatik mugimendu handiena dutenak Markulete eta Garaia Berrikuntza Guneak dira. Lehenengoan bigarren fasearekin dabiltza; eta bigarrenean, apurka doaz enpresa berriak sartzen. Bestalde, Arrasateko Udalaren Plan Orokorrak Emaldi inguruko, Matz-Errekako eta Zalduspeko industria-mapa berrantolatu gura du.

Bergaran ere, azkenaldian, gune asko garatu dituzte eta gaur egun Larramendikoa egiten dabiltza. Eusko Jaurlaritzako Sprilur dabil hori bultzatzen, eta

**Bergaran gune asko garatu dituzte eta Larramendikoa egiten dabiltza**

**Arrasateko Udalaren Plan Orokorrak hainbat gune berrantolatu gura ditu**


Eskoriatzako Torrebaso industria gunean, esaterako, hainbat pabiloi daude salgai. GOIENKARIA

diotenez, guztira, 300.000 metro koadro izango ditu. Hori egiteko lanek bi urte iraungo dute.

**ARETXABALETAN, BERRANTOLAKETA**

Oñatin ere industrialde asko egin dituzte azken urteotan, eta horietako batzuk, Migelenakoa, kasu, beteta daude. Horrez gain, Amestoiko, Zugaztuiko eta Urbietako eremuak eraikitzen hasiko dira.

Aretxabaletako kasuan, berriz, Udalak industrialdeen berrantolaketa bat egin gura du, horietako batzuk etxeen artean daudelako. Hala, erdigunean diseinu, teknologia eta zerbitzu alorretako enpresak bakarrik jartzearen alde daude.

**TORREBASON, AUKERAK**

Eskoriatzan, berriz, Eskoriatzako Industrialdea SAk Torrebaso industrialdeko hainbat pabiloi eta bulego salgai ditu, eta azken hilabeteotan ez dute eskaerarik izan. Hori kudeatzeko Sprilurrekin harremanetan daude.

Antzuolako Udalak herriko enpresa txikiak batuko dituen industrialde berria egin gura du Deskarga inguruan, Ipurtikan.

Elgetan Patzagako bigarren fasea bukatu zuten; eta Berraondokua eta Iburuerreka poligonoak ere badaude.

Bukatzeko, Aramaion oraindik ez dago industria gunerik, baina aspaldian idazten dabiltzan Plan Orokorrean aurreikusten dute industrialde bat egiteko asmoa.



DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA
Basabe Ind. E-0-10 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 62 80 Faxa: 943 79 76 19
debagoiena@industrialdea.spri.es

MARKULETE POLIGONOA
Arrasate
F-12 lursaila eraikitzen hasi gara
Pabiloiak, bulegoak eta taberna-jatetxea


Etorkizunerako bideak
Hobetzeko ari gara lanean, segurtasun eta erosotasun handiagoak eskeintzeko.
Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak 331 milioi euro inbertituko ditu 2007an:
• Eibar-Gasteiz autobidea (AP-1).
• Donostiako Bigarren Ingurabidea.
• A-8 autobidearen 3. Erreia.
Gipuzkoaren etorkizunera irekitako bideak dira.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa


Etorkizunerako bideak
Hobetzeko ari gara lanean, segurtasun eta erosotasun handiagoak eskeintzeko.
Gipuzkoaren etorkizunera irekitako bideak dira.
GIPUZKOA
zurekin, aurrera
BIDEGI
Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia
Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras



Moñux familia guztiaren argazkia, Moñux herriko sarreran. MOÑUX FAMILIA

**MOÑUX FAMILIA** > ARBASOAK EZAGUTZERA

# Moñuxtarrak, Moñuxera berriz bueltan, 36 urte igaro ondoren

Duela 36 urte egin zuten Moñuxtarrek lehenengoz bidaia Moñux herrira; aurten egin dute bigarrenez

Moñux familiako kide zaharrenak 82 urte ditu, eta gazteenak, berriz, hilabete batzuk baino ez

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Historia luzea baina berezia, Moñuxtarrena. Cipriano Moñux Gomara herrian jaio zen (Soria) eta Juana Angulo, Ledesma de Sorian; XIX. mende bukaeran ezkondu ziren. XX. mendeko lehenengo urteetan –1905ean, gutxi gorabehera– Soriatik Bilbora joan ziren, eta urte gutxi batzuk geroago Cipriano eta Juana Bergaran finkatu ziren behin betiko, San Antonio auzoan. Seme zaharrenak Gomaran jaio ziren, baina beste guztiak, Euskal Herrian. Seme-alabak honako hauek izan ziren: Valentin, Valeriana, Francisco, Miguel, Hilario, Tomas, Martin eta Vicente. Anai-arreba gehienak Bergaran finkatu ziren behin betiko, eta Hilario, berriz, Donostiara joan zen bizi izatera.

**LEHEN BIDAIA**

1972. urtean, familiako zenbaitzuek arbasoen jaioterria ezagutzeko bidaia antolatu zuten, Gomarara, eta herrian bizi ziren senideak ere bisitatu zituzten. Orduko txangoaren bultzatzailea Jabier Moñux Otxoa izan zen. Jabier oso gazte hil zen, 1980an, 55 urte zituela. Gipuzkoan, Moñux abizena dutenak laurogei baino gehiago dira gaur egun. Horrela, 2008ko maiatzaren 24 eta 25eko asteburua aukeratu zuten berriz ere Moñuxera joateko. Oraingo honetan, bidaiaren bultzatzailea Elena Moñux izan da, eta antolatzaileak, Maria Isabel Moñux eta Valen Moñux. Arrakasta handia izan zuen deiak, 70 senitarteko elkartu ziren-eta, adin guztietakoak gainera: zaharrena, 82 urtekoa, eta gazteena, berriz, hilabete batzuetakoa bakarrik.

**ASTEBURU BOROBILA**

Bergaratik zapatu goizean irten ziren, eta txangoaren lehen geldialdia Gomaran egin zuten, euren arbasoak zireneko herrian. Herriko plazan, joan zirenek argazkia atera zuten, duela 36 urte bertan egon zirenek egin zuten antzera. Ondoren, Moñuxeko gaztelua bisitatu zuten Moñux herrixkan; Viana de Duero udalerrian dago Moñux. Joan aurretik, Viana de Dueroko kondea eta Moñux gazteluko jauntxoa aukeratu zituzten bertakoen artean. Moñuxeko alkatea, Fortunato Rodriguez, ere bertan zen. Eta umoretsu hartu zuen parte gipuzkoarrek antolatutako txantxan. Soriako beste leku eder batzuk bisitatu eta gero, bertan bildutakoek, asteburu ederra pasatu ondoren, berriz ere itzuliko direla adierazi zuten. Noiz? Beste 36 urte pasatu aurretik, seguru!


Moñux herriko dorrea. MOÑUX FAMILIA


Moñuxtarrak, Moñuxeko alkatearekin (irudian erdian). MOÑUX FAMILIA

LEHENENGO BIDAIA

## Orain dela 36 urte, lehen aldiz Moñuxera

Moñuxtarrek 1972an egin zuten bidaia Moñux herrira. Argazkian azaltzen dira, ezkeretik eskumara, hauek: Jose Mari Moñux, Elisabeth Arzelus, Jose Antonio Moñux, Pilar Biain, Ana Mari Moñux, Inazita Larrañaga, Vicente Moñux, Inaxi Etxaniz, Maria Dolores Moñux, Jose Ibarra, Miguel Moñux, Mari Carmen Moñux, Loren Gorrotxategi. Falta dira Jabier Moñux eta Mari Tere Uribesalgo; azken hau bigarren bidaiara ere joan da.


Duela 36 urte, 1972an, Moñuxera bisita egin zuten Moñuxtarrak. M.F.


JOSE DE AZPIAZU
Musika Eskola
Oñatiko Kultura musikalaren harrobia
Haurrak 4 urtetik gora eta Helduak
kalitatezko heziketa, pertsonalizatua
Kaleko kontzertuak
Euskadiko beste Musika Eskolekin emanaldiak
Musika Eskolako taldeetan matrikulatzeko aukera, bakarrik. (ikasle ohiak, e.a.)
MATRIKULAZIOA
zabalik espezialitate guztietan
ekainaren 2tik 20ra
Musika Eskola
J. Moiua kalea, 26
20560 OÑATI
Tel: 943 78 31 74
Kontzertua Oñatiko plazan:
Ekainak 6, ostirala. 18:30etan


Udaberriko promozioa
-%10 +
3 CFT- DEEP 90 X modeloa
780 € tan baloratutako tximinia
iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
Nahi al duzu gehiago?
250 € tan baloratutako eta marko bateratua duen MW4 - 17 EX mikrouhin labea. (17 litro)
Beti ere ekipamenduak ACTIVA BR, SELECTA BR, ACTIVA BR PLUS, BRISA, ZEN, AURA edo ALTIA baldin badira.
Promozio hau apirilaren 15etik ekainaren 15era izango da.
FAGOR
Sukaldeko altzariak

**EURI JASA** > GARBIKETA LANAK

# Larrinbeko errekatxoa garbitzeko hilabete inguru beharko dute

## Hirigintza Sailak uste du errekak ez daukala gaitasunik hilaren 25ekoa moduko euri jasak hartzeko



Garbiketa lanak egiten ibili dira astean. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Domekan ordu erdian botatako euri jasak utzitako hondakin eta zikinkeriak garbitzeko astea izan da. Baita balorazioak egin eta kalteen gaineko kontuak ateratzeko ere. Lur azpitik datorren Larrinbeko errekatxoak gainezka egin zuelako bihurtu ziren Ilargi plaza pareko kalea eta Durana kalea erreka. Irudi ikusgarriak jaso zituzten hainbat herritarrek kamerekin.

**22 URTEAN HALAKORIK EZ**

Astelehenean bertan sartu ziren udal langileak Larrinbeko errekan, Basabe bidean dagoen estoldatik. Bertan oztoporik ez zegoela ikusi zuten, harriak eta lurra asko, baina aparteko ezer ez: "Horrek esan gura du domekakoa moduko euri jasa handi bat hartzeko gaitasunik ez daukala erreka horrek", argitu digu Hirigintza teknikariak. Era berean, jakinarazi digu 22 urte daramatzala Udalean lanean eta halakorik sekula ez duela bizi izan.

Hirigintza Sailak eta alkateak Larrinbeko errekatxoa garbitzea erabaki zuten, eta martitzenean hasi ziren horretan. Langileen arduradunak jakinarazi zigun hilabete behintzat beharko dutela barruan dagoen lur guztia ateratzeko.

**EROSKI, KALTETUENA**

Kalterik handienak Lezama merkataritza etxean dauden hainbat lokalek, bertako garajeek eta Eroskik jasan zituzten. Aseguru etxeekin dabiltza lanean orain. Bi eguneko garbiketa lanak izan dituzte Eroskin; izan ere, belauneraino zegoen ura barruan domekan. Beheko apaletako produktuak izan dira kaltetuenak. Eguaztenean zabaldu zuten.

## Udal gobernuko kideak, bakarrik ohiko osoko bilkuran



EAko eta Aralarko zinegotziak, asteleheneko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean, eta EAko zinegotzi bat –Lore Martinezek hilaren 24an umea izan zuen– eta Aralarko hirurak bakarrik agertu ziren; hau da, hamarretik lau. Ezker Batua-Berdeek eta EAJk aurrez azaldu zuten ezingo zirela joan. Eta udal gobernua haserre azaldu zen aurrez azalpenik ematen ez dutenekin.

Bi gai onartu zituzten: igogailua jartzeko lanak luzatu diren hiru atarteri hobaria aplikatzea eta 2009ko egutegian abuztuaren 17a jaiegun izendatzea.

**KIROLA** > V. MENDI MARTXA

# 26 kilometroko zeharkaldia Aretxabaleta inguruan

## Copreci lantegitik irtengo dira (07:30) domekan, eta orduan eman daiteke izena

**M.A.** > ARETXABALETA

Murrukixo Mendizale Elkarteak bi urtean behin antolatzen duen mendi zeharkaldia egingo du etzi, domeka. 26 kilometroko ibilaldia izango da, eta edonork parte har dezake. Izena egunean bertan eman daiteke 5 euroren truke.

**JANARIA ETA EDARIA BIDEAN**

Copreci lantegiko aparkalekuan emango diote hasiera zeharkaldiari (07:30) eta bukaera Durana kalean izango du, Murrukixok egoitza duen lokalean, hain zuzen. Helmuga 11:00etan zabalduko dute.

Ibilbidea markatuta egongo da, eta janaria eta edaria eskainiko dute hainbat gunetan. Hona ibilbidea: Copreci-Iraban baserria-Erdiko Esatea-Ugaztegi (janari-edariak)-Atxuloko arkua-Degurixa-Bizkarlatza-Leizargarate (janari-edariak)-Arlutz-Kurtzebarri-Murrukixoren lokala. Arduradunek ez dituzte euren gain hartuko bidean gerta daitezkeen ezbeharrak; hori bai, erizainak egongo dira hainbat gunetan.

Zeharkaldia bukatzen duten guztiei diploma emango diete antolatzaileek helmugan, eta parte-hartzaile guztien artean zozketa egingo dute.

Herriko gastronomia elkarteen laguntza izan du Murrukixok zeharkaldia antolatzeko: Eguzki Alde, Ibai Gain, Murualde, San Kristobal, Uratz Alde, Urbaltz eta Urkulu batzokia.



Mendizaleak Copreciko aparkalekuan, zeharkaldia hasteko zain. M.A.

> POLITIKA

### Lore Leanizbarrutia senataria izango da bihar batzokian, hainbat gairen gainean jarduteko

Espainiako Senatuan dagoen Lore Leanizbarrutia aretxabaletarra etorriko da bihar, hilak 31, batzokira (12:00). Gaurkotasuna duten hainbat gairen inguruan jardungo du, eta Aretxabaletako EAJk zabalik izango ditu batzokiko ateak herritarrendako.

Martxoaren 7ko hauteskundeetan hautatu zuten herritarrek Leanizbarrutia senatari, eta Madrilen dagoen Debagoieneko politikari bakarra da. Zuzenbidean lizentziaduna eta Irakaskuntzan diplomaduna, Donostian bizi da. Euskara irakasle izandakoa, Oñatiko Txantxiku ikastolan hasi zuen ibilbidea irakaskuntzan (1975-1982). Gipuzkoako Foru Aldundian Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia izan zen.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14


**KIROLAK** > ESPAINIAKO TRIALSIN TXAPELKETA

# Aitor Murua eta Unai Zuntzunegi, lehenengo postuetan

Domekan, ekainak 1, L'Escalan (Girona) izango dira aretxabaletarrak, laugarren proba jokatzen

**M.A** > ARETXABALETA
Apirilean hasi zuten Espainiako Trialsin Txapelketa, eta Aitor Murua eta Unai Zuntzunegi aretxabaletarrak lehenengo postuetan dabiltza. Dagoeneko hiru proba jokatu dituzte, eta domekan L'Escalan (Girona) laugarrena daukate.

**HIRU PROBETAN, ONDO**
Lehenengo proba Teruelen izan zuten. Murua hirugarren geratu zen haurren mailan, eta zortebenetan txarra izan zuela aipatu behar da, bizikleta apurtu zitzaiolako proba jokatzen zebilela. Zuntzunegi, ostera, laugarrena izan zen kimuetan. Bigarren proba jokatzeko Azuaga herrira (Badajoz) joan ziren. Laugarren geratu zen Murua, eta bigarren, Zuntzunegi. Hirugarren proba San Martin de Valdeiglesias (Madril) herrian jokatu zuten. Muruak lehenengo postua eskuratu zuen, eta Zuntzunegik, laugarrena.

**GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK**
Terueleko eta Azuagako probak biketrial modalitatean jokatu zituzten, gure txirrindulariendako arrotzagoa. Euskal Herrian trial modalitatea da ezagunena, eta bizikletak edo kirolariak lurra ukituz gero, zigorra jasotzen dute txirrindulariek. Biketrialean, ostera, bizikletako hainbat zatik uki dezakete lurra: pedalek eta karterrak, hain zuzen. Katalunian jokatzen duten modalitatea da biketriala.

Aretxabaletako txirrindulariek bi modalitateetan jokatzen dute; eta ondo, gainera. Martxoan bukatu zen Gipuzkoako trialsin txapelketako txapeldunak dira biak, Murua haurren mailan eta Zuntzunegi kimuetan. Eta orain, ekainaren 15ean Euskadiko txapelketa hasiko dute. Oiartzunen da lehenengo proba.



Aitor Murua eta Unai Zunzunegi entrenamendu saio baten. M.A.

**Bego Urieta** > Barriketan egitasmoko kidea

# "Egitasmo bikaina da euskaldun berriendako, eta herri guztietan izan beharko luketela uste dut"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
**Azpeitiarra da Bego Urieta, baina urrian lau urte beteko dira Aretxabaletara etorri zela. Udalak, Euskaltegiak eta Loramendi EEk abian jarritako Barriketan egitasmoan dabil martxoa ezkero. Astean ordubetez euskaraz jardutea da Urietaren konpromiso bakarra.**



Barriketan taldeko kideak: Idoia Elexpuru, Bego Urieta eta Lorea Iturricastillo. M.A.

**Zeinek eman zizun Barriketan egitasmoaren berri?**
Eskuorritxo bat jaso nuen etxean, eta hasieratik eman zidan atentzioa. Bota egin beharrean, publizitatearekin egin ohi dudan moduan, gordetzea erabaki nuen. Neuretako zela eskuorritxoak zekarrena sentitu nuen, eta, hilabetetan gordeta izan ostean, deitzea erabaki nuen.

**Zergatik erabaki zenuen pausoa ematea?**
Aretxabaletarrak ezagutzeko aukera izango nuela pentsatu nuen, herrian integratzeko bidea ikusi nuen. Izan ere, Aretxabaletan bizi arren, Azpeitian egin dut lan urtarrila arte eta herrian oso gutxi egoten nintzen. Era berean, euskaldun zaharra izanda pentsatu nuen neure aletxoa jar nezakeela euskaldun berriei laguntzeko.

**Zer iruditzen zaizu egitasmoa?**
Aukera bikaina dela euskaldun berriendako euskara modu naturalean praktikatzeko. Herri guztietan egon beharko litzatekeela uste dut.

**Astean ordubete elkartzen zarete euskaraz jarduteko. Zeren gainean egiten duzue berba?**
Euskaldun berri bi eta euskaldun zahar bi elkartzen gara martitzen goizetan kafetxo bat hartzeko, eta edozein gai da ona berba egiteko: pasatu berri den zerbait, herriko kultura etxea, domekako euri jasa...

**Eta zure euskara ulertzeko arazorik badute?**
Ez dut halakorik igarri. Uste dut naturaltasuna gura dutela ikasten dabiltzanek.

**"Aretxabaletarrak ezagutu eta herrian integratzeko aukera ikusi nuen"**

**"Hasieran ezer gutxi zegoela Aretxabaletan iruditu zitzaidan; orain, bizitasun handiagoa du"**

**Laster bukatuko da ikasturtea; jarraitzeko asmorik baduzu?**
Ekainean bukatzen dela esan didate, baina talde batzuek jarraitu egingo dutela jakin dugu. Gure taldeak ez dakit zer egingo duen, baina datorren ikasturtean jarraitu gurako nuke. Gainera, ordutegi aukera zabala dago, eta ezin da esan arazoa hori denik.

**Eta beste batzuk animatuko zenituzke parte hartzera?**
Bai, horixe; euskaldun berriendako aukera bikaina dela deritzot, eta jakin arren egiten ez dutenei ere etortzeko esango nieke ohitura hartzeko. Eta noski, euskaldun zaharrak derrigorrez behar dira taldeek aurrera egiteko. Haien borondatea izugarri eskertzen dute ikasleek.

**Zer esango zenuke Aretxabaletaren gainean?**
Azpeitia handiagoa da eta hasieran ezer gutxi zegoela iruditu zitzaidan; herriari segituan ematen genion buelta eta etxera. Orain, bizitasun handiagoa du, eta kultura etxea zabaltzen dutenean, Herriko Plazako lanak bukatu eta ibaiaren osteko etxeak egiten dituztenean mugimendu handiagoa egongo da.

**Eta herri euskalduna dugu?**
Baiezkoan nago, baina badaude oso erdaldunak ere.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

> BERBALDIA

### Artzaintzaren gaineko berbaldia eguenean, Bixente Pagoagarekin

Loramendi Euskara Elkarteak artzaintzaren gaineko berbaldia antolatu du. Aitor Unamuno eta Areantza auzoko Mitarte Garai baserriko Bixente Pagoaga izango dira hizlariak. Artzaintzaren orainaren eta geroaren gainean jardungo dute udaletxe zaharrera doazenekin, eguenean, ekainaren 5ean (17:30).

> ERRETIRATUAK

### Imsersok antolatutako oporraldietarako izenemate epea, zabalik

Ekainaren 13a arte dago zabalik Imsersok antolatutako bidaietara joateko izenemate epea. Interesatuek edo argibide gehiago gura dutenek udaletxeko Prebentzio Zerbitzura jo behar dute (Myriam) astelehen, martitzen edo egubakoitzean. Nortasun agiria eta pentsioaren diru kopurua eroan behar dira izena emateko.

> KIROLAK

### Klub arteko karate txapelketara 22 aretxabaletar doaz

Bihar, hilak 31 (16:30-19:30) jokatuko dute klub arteko Kyokushinkai karate txapelketa Bergarako kiroldegian. Arrasateko Saioa klubak, Bergarako Giartzuk eta Aretxabaleta Kirol Elkarteko karate taldeak jardungo dute norgehiagokan. 69 jokalari izango dira guztira, eta horien artean 22 aretxabaletarrak.










Argazkietan, Arantzazuko Ama, Pragako umea, San Migel eta erakusketako panoramika bat.

MIREIA BIKUÑA

**KULTURA** > ERAKUSKETA

# Bihar zabalduko dute Gorpuztiko prozesioari buruzko erakusketa

## Urriaren 26ra arte egongo da ikusgai parrokiako klaustroan, zapatu, domeka eta jaiegunetan

## Prozesioko 15 pausoak, palioa eta San Migel eta dantzarien eta apostoluen arropak jarri dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Gorpuzti eguneko prozesioan parte hartzen duten pausoak, palioa eta San Migel, apostoluen eta dantzarien jantziak gertutik ikusteko aukera egongo da bihartik. Atzo, parrokiako klaustroan egindako prentsaurrekoan, erakusketa prestatzen lagundu duten guztiak egon ziren: hain zuzen,Kofradiako kide Jesus Irizar eta Jon Amundarain, Jerardo Elortza, Lurdes Idoiaga alkatea, Sabino Zuazabeitia parrokoa eta Ernesto Murgiondo zinegotzia.

Erakusketa urriaren 26ra arte egongo da zabalik, baina bisitak bi modutara antolatu dituzte: alde batetik, ekainean, irailean eta urrian, oñatiarrendako egongo da zabalik, zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era; domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta jai bezperatan, 17:30etik 20:30era. Eta beste alde batetik, uztailean eta abuztuan, Turismo Bulegoak kudeatuko ditu bisita gidatuak.

**30.000 EUROKO AURREKONTUA**

Klaustroan dagoen erakusketak 30.000 euroko aurrekontua izan du, Udalak, Ulmak eta Kutxak emandako diruari esker. Dena den, Lurdes Idoiaga alkateak erakusketa muntatzeko hainbat herritarrek egindako lana azpimarratu zuen. "Erakusketa hau taldean egindako lanaren eredu da, eta hori goraipatzekoa da".

Bestalde, Kofradiako kide Jesus Irizarrek erakusketaren helburu nagusia zein den azaldu zuen: "Korpus eguneko prozesioan, San Migel eta dantzariez gain, beste hainbat gauza eta pertsonaia daudela erakutsi nahi dugu. Gainera, santuak gertuagotik ikusteko aukera izango dute bisitariek". Biharko inaugurazioarekin, duela urte bete hasitako lana bukatutzat eman du Kofradiak. "Oso pozik gaude; ea, bada, guztion gustukoa den", esan zuen Jesus Irizarrek.

**15 PAUSO**

Parrokiako klaustroan dagoen erakusketak prozesioko ordena gordeko du. Hildakoen atetik sartuta, klaustrora sartzeko dagoen lehenengo atetik egongo da sarrera. Hasieran, prozesioko 15 pausoak jarri dituzte gorri koloreko alfonbraren gainean. Hain zuzen, Arantzazuko Ama, San Kristobal, Mikel Aozaratza, Andre Maria Sortzez Garbia, San Isidro, San Martin, San Roke, San Krispin eta San Krispiniano, San Juan, San Jose, San Sebastian, San Migel, Errosarioko Ama, Pragako Jesus umea eta San Frantzisko. Pauso bakoitzari dagozkion azalpenak Jerardo Elortzak idatzi ditu: "Zein santu den, zenbat urte dituen eta urtean zehar non gordetzen den kontatzen dut, eta azalpenak lau hizkuntzatan daude: euskaraz, gazteleraz, katalanez eta frantsesez".

Erakusketaren bigarren zatian palioa jarri dute, eta prozesioko hainbat detaile. "Bi maniki jarriko ditugu, bat dantzarien arropekin eta bestea, San Pedro apostoluaren jantziekin. Gainera, San Migelek erabiltzen dituen mozorroa, kaskoa eta armadura ikusgai egongo dira", esan zuen Irizarrek.

Kofradiako kide Jesus Irizarrek azpimarratu zuen azken hamar urteotan 50.000 euro gastatu dituztela prozesioko pauso guztiak berritzen.

**HURBIL ENPRESA**

Aretxabaletako Hurbil enpresako Enrike Foronda izan da erakusketa muntatu duena. Bestalde, erakusketa erdian , Inazio Irizarrek, 200 bat argazkiekin egindako ikus-entzunezkoa egongo da ikusgai.

### 1478. urtean jada, Gorpuzti eguneko prozesioa egiten zen Oñatin

Corpus Christi izeneko jaia Urbano IV. aita santuak sortu zuen 1264. urtean, baina Eliza katoliko osora ez zen zabaldu 1311. urtera arte. Hain zuzen, Klemente V.aren garai arte. Egun horren helburua zen, Eukaristiaren omenezko jaia egitea, Sakramentu Santuaren ohoretan dantza eta kantuz osatutako jaialdi eta prozesioarekin. Horretarako, egun zehatz bat izendatu zen liturgia katolikoaren barruan: Mendekoste ondorengo bigarren eguena. Gorpuzti eguneko ekintzarik nagusiena prozesioa zen. Espainiako Estatuan bezala, Euskal Herrian ere indar handiz sustraitu ziren Gorpuzti eguneko prozesioak, eta horien artean, ikusgarrienetakoa, Oñatin egiten zuten. Idatzitako agirietan jasotzen denez, Oñatin, 1478. urtean prozesioa ospatzen zuten. Dena den, XVI. mendearen erdialdetik aurrera lortu zuen egun duen oihartzuna. 1553. urtean, Minerva izenez ezagutzen zen Sakramentu Santuaren kofradia bat zegoen. Taldeko hamalau kide jantzi eta markaraz mozorrotzen ziren, hamabi apostoluak, Jesukristo eta San Migel pertsonifikatzeko. Haiekin batera dantzariek toki berezia zuten prozesioan.



Martitzenean, herriko eskoletako ordezkariek udaletxeko osoko bilkura aretoa bete zuten. IKER BARANDIARAN

**INGURUMENA** > ESKOLA ARTEKO AGENDA 21

# Kontsumoaren gainean jardun dute ikasleek

Herriko ikastetxeetan, ikasturtean, kontsumoaren gaineko hausnarketa egin dute, eta asteon alkateari jakinarazi dizkiote hainbat proposamen

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Herriko ikastetxeetan kontsumoaren gainean jardun dute ikasturte honetan. Hala, jasotako ondorioak eta udalerrian egin daitezkeen hobekuntzak alkateari aurkeztu zizkioten martitzen goizean.

**AGENDA 21**

Hala, Eskola Agenda 21 programaren barruan, ikasleak herriaren diagnostikoa egiten saiatu dira. Horren ostean, ikasle horien ordezkari batzuek, udaletxeko osoko bilkura aretoan, Udalari zuzendutako proposamenak jakinarazi zituzten. Horietako asko udal eraikin eta zerbitzuetan abian jartzeko modukoak dira.

Besteak beste, eraikin publiko guztietan argindarraren kontsumoa murrizteko bonbilla ekonomikoak eta berriz kargatzeko pilak erabiltzeko gomendioa egin dute. Baita ordenagailuak gutxiago kontsumitzeko konfigura ditzatela ere.

Bestalde, aipatu zuten ludotekan plastikozko edalontziak eta paper birziklatua jartzea komeniko litzatekeela, une honetan halakorik ez dagoelako.

**AUTOAK ELKARBANATZEA**

Dena dela, ikasleek uste dute, udal agintariez gain, herritarren esku ere egiteko asko dagoela. Adibidez, ezinbestekoa deritzote autoaren erabilera murriztea eta garraio bakarra ibiltzekotan pertsona gehiagorekin elkarbanatzea.

Uraren gehiegizko kontsumoarekin ere arduratuta daude; eta horren aurrean Udalari eskatu diote itur sistemak aldatu eta hobetzeko, ura alferrik gal ez dadin, hain zuzen ere. Eta Udalari egindako eskaerekin jarraituta, gaztetxoek uste dute zakarrontzi gehiago jarri beharko litzatekeela, batez ere jolaslekuen inguruan. Eta ez hori bakarrik, ohiko zakarrontziak zakarrak bereiztekoak direnekin ordezkatu beharko liratekeela uste dute. Hala, txikleendako zakarrontzi bereziak ipintzea ondo legokeela uste dute.

**DENDARIEN ERANTZUKIZUNA**

Herriko saltokiak ere ez dituzte ahaztu. Horietan poltsa berrerabilgarriak eta telazko poltsak banatzea; erosketak egiteko gurditxoak erabiltzea; dendetan gozoki gutxiago jateko kartelak ipintzea; eta gozoki dendak asteburuetan bakarrik zabaltzea eskatu dute.

Industriez ere ez dira ahaztu, eta gutxiago kutsatzen dutenei dirulaguntzak emateko gomendioa egin dute.

Pedro Lasagabaster alkateak erantzun zien esanaz lanean dihardutela, baina ingurumenaren alde egiteko erantzukizuna gaur egungo gazteek dutela.

**OSPAKIZUNA** > IKASLEEN JAIA

# Bihar, zapatua, Leintz Eskola Kirolak ikasturteko jaia egingo du herriko plazan

**I.B.** > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Leintz Eskola Kirolaren jaia egingo dute herriko plazan. Ekitaldiak 10:00etan hasiko dira, eta Leintz ibarreko hainbat ikasle batuko dira herrian.

Leintz Eskola Kirola eskolaz kanpoko kirol ekintzak antolatzeko egitura bat da, 2004-2005 ikasturtean abian jarri zutena. Horren barruan, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaioko Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik DBHko 2. mailara bitarteko ikasleak daude; hau da, 6 eta 14 urte bitartekoak. Hain zuzen ere, egitura horren barruko ekintzetan aipatutako herrietako 950 bat ume eta gaztetxok esku hartzen dute astero.

Astean bi saio egiten dituzte entrenamenduetarako, eta asteburuetan norgehiagokak jokatzen dituzte. Horren barruan kirol modalitate ugari sartzen dituzte. Hala, 50 begirale eta bost koordinatzaile dabiltza lanean.

**BIZIKLETA MARTXA**

Lehenik eta behin, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Urkulu eta Eskoriatza arteko ibilbidea duen bizikleta martxa egingo dute: 09:30ean Aramaion elkartuko dira; 10:00etan Arrasaten; 10:15ean Eskoriatzan eta 10:30ean Aretxabaletan.

Horren aurretik, baina, 10:00etan, patinaje-eskolak egingo dituzte Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolan.

**EKITALDIA HERRIKO PLAZAN**

Eguneko egitarau mardula bukatzeko, ekitaldi nagusia egingo dute 12:00etan herriko plazan. Ikasturteko sari banaketa eta oparien zozketa egingo dute. Hala, datorren urrira arte atsedenaldia hartuko dute.

> LANKIDETZA

### Afrikaren gaineko dokumentala eta mahai-ingurua

Astelehenean, ekainaren 2an, *Alamitou* dokumentala emango dute Ibarraundi museoan, 19:00etan. Horren ostean, mahai-ingurua egingo dute.

Alamitou Etiopiako nerabe bat da, eskolara joan aurretik etxean hainbat lan egitera behartuta dagoena.

Horren ostean, gobernuz kanpoko erakundeek Mozambiken egiten dabiltzan lana izango dute berbagai mahai-inguruan.

Mundumirak, Haurralde fundazioak eta Elkarhezitzenek antolatu dute.

HIRUGARREN ADINA > IKASTAROAK

# Adinekoak zaintzen dituzten familiartekoei zuzendutako ikastaroak

Hainbat adituk bost ikastaro emango dituzte ekainaren 16tik 20ra bitartean

Interesatuek izena eman beharko dute, ekainaren 11 aurretik, Gizarte Zerbitzuetan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Aldundiak elkarrekin Sendian programaren barruan dagoen ikastaro sorta antolatu dute. Ekainaren 16tik 20ra bitartean (biak barne) egingo dituzte, Ibarraundi museoan, eta mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten familiei zuzenduta daude. Ikastaroetan esku hartzeko, ezinbestekoa izango da aurretik izena ematea. Horretarako, interesatuek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute ekainaren 2tik 11ra bitartean 09:00etatik 13:30era bitartean; eguenean, berriz, goizez eta arratsaldez egongo dira, eta arratsaldeko ordutegia 14:30etik 17:00etara bitartekoa izango da.

**ADITUAK FAMILIEI LAGUNTZEKO**

Izenematea mugatuta dago, eta guztira 20 lagunek esku hartu ahal izango dute. Horregatik, komeni da interesatuak lehenbailehen apuntatzea.

Ikastaroak 15:00etatik 17:00etara bitartean egingo dituzte, *Zure nagusiak maite dituzunez, hobeto zaintzen ikasi* lelopean. Lehenean, ekainaren 16an, dependentzia daukan pertsona zelan zaindu, egoera bakoitzaren aurrean zelan jokatu eta beste aztertuko dute. Hizlariak Icavi elkarteko kideak izango dira.

Ekainaren 17an, berriz, Oskar Mondragon psikologoak erakutsiko die erlaxatzen, tentsioa eta antsietatea hobeto eramaten... Horretarako, hainbat aholku emango dizkie, eta erakutsiko dizkie arazo horiek ekiditeko hainbat teknika.

Hirugarren egunean, ekainaren 18an, herriko sendagile Gabriel Elorriagak gaixotasunen eta dependentzien oinarrizko ezaugarriak, sendakuntzak zelan egin, gaixoa zelan zaindu eta beste hainbat kontu azalduko ditu.

**AHOLKUAK ETA TEKNIKAK**

Laugarren egunean, hilaren 19an, Hurkoa fundazioko kideek alderdi legal eta etikoak izango dituzte aztergai. Hala nola dependentziak dituzten pertsonek erabakiak hartzeko dituzten eskubideak edota eskubide horiek senitartekoek noiz ordezka ditzaketen eta zergatik.

Azkeneko egunean, hilaren 20an, Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradun Beronika Solagurenek senitaterkoei deskribatuko dizkie Udaletik eta bestelako erakundeetatik zer laguntza jaso ditzaketen egoera bakoitzaren aurrean.

**BESTE HAINBAT JARDUERA**

Ikastaro horiek Sendian programaren barruan kokatu dituzte. Hala, programa horren helburua da adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza eskaintzea egiten duten lana modu egokian egin dezaten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 83 udalerritan lantzen dihardu programa hori udaletako Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan. Programa horren barruan beste hainbat jarduera egiten dituzte: adibidez, laguntzarako taldeak sortzen dituzte, mendeko pertsonak zaintzen dituzten familien artean komunikazioa eta harremana lantzeko eta euren artean laguntzeko; behar duten familia zaintzaileei laguntza psikologikoa eskaintzen zaie; asteburuetako atseden programa zerbitzua ere abian dute, egoitza eta eguneko zentroak erabilita; eta dirulaguntzak ere ematen dituzte.

INDUSTRIA > PABILOIEN SALMENTA

# Torrebasoko industrialdeko pabiloiak eta bulegoak saltzeko kanpaina abiarazi dute

Eskoriatzako Industrialdea SAk hainbat ekimen abiarazi ditu industrialdeari behar duen irteera emateko: publizitate kanpaina, erakundeekin elkarlana eta beste



Torrebaso industrialdean pabiloiak eta bulegoak saltzen dituzten errotuluak daude. IKER BARANDIARAN

I.B. > ESKORIATZA

Udalaren ardurapean dagoen Eskoriatza Industrialdea SAk hainbat erabaki hartu ditu Torrebaso industrialdean libre dituzten pabiloi eta bulegoen gainean. Hala, orain arte erakunde horretako gerente izan den Clemente Belokiri kontratua eten egin diote. Horrez gain, pabiloiak eta bulegoak salgai daudela jakinarazteko publizitate kanpaina abiarazi dute. Horren harira, industrialdean bertan errotulu erraldoiak jarri dituzte.

**SPRILUR ETA MANKOMUNITEA**

Horrekin batera, Eskoriatzako Industrialdea SA Sprilurrekin eta Mankomunitatearekin harremanetan dabil elkarlanean industrialdearen salmenta kudeatzeko asmotan.

Udalaren helburua da salgai dituzten gune horiei irteera ematea eta industrialdea behar den moduan betetzea.

Kontu hori martxoa ezkero dator. Hain zuzen ere, hilabete hartan Udaleko Ogasun batzordeak erabaki zuen industrialdearekin lotuta ekimen batzuk egin behar zituztela. Horren arrazoia da azken hilabeteotan ez dutela pabiloi eta bulegorik saldu, eta Eskoriatzako Industrialdea SA erakundea galerak edukitzeko puntuan zegoela. Horrekin lotuta, ondorioztatu zuten ez zutela industrialdearekin lotutako publizitate kanpainarik egin, eta horri lehenbailehen buelta eman beharrean zeudela.

Eskoriatzako Industrialdea SAren administrazio kontseiluak hainbat erabaki hartu zituen: publizitate kanpaina egitea, gerenteari kontratua etetea eta beste erakunde batzuekin elkarlana bultzatzea. Udaleko osoko bilkuraren babesa jaso zuten.

> OSASUNA

### Odol ateratzeak egingo dituzte datozen asteetan

Martitzenean, ekainaren 3an, eta baita ekainaren 9an ere odol ateratzeak egingo dituzte Eskoriatzan, aspaldiko ohiturari jarraituta.

Osasun etxean bertan izango dira odol ateratzeak, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Eskoriatzako odol emaileen elkarteak antolatu ditu, Gasteizko elkartearen laguntzarekin.

Eskoriatzako elkarteak jakinarazi du odola jasotzeko premia beti dagoela eta herritarrei eskatzen diete ahalegin hori egiteko.

Bestalde, azaldu beharra dago Eskoriatzakoak ez direnek ere bertan odola ematenko aukera izango dutela, egun horietan han badaude.

> KINTOAK

### 1950eko kintoek bazkaria egingo dute bihar, zapatua

Bihar, zapatua, 50eko kintoek urteko ospakizuna egingo dute. Hain zuzen ere, 1929an jaiotako Eskoriatzako gizon eta emakumeak urtero elkartzen dira bazkaria egiteko.

Azken urteotan 16 bat lagun batzen dira, eta datorren urtean, hasi zireneko 50 urte beteko dituztela jakinarazi dute.

13:00etan Santa Anako autobus geltoki ondoan batuko dira. Horren ostean, txikiteoa egingo dute eta 14:30ean Otzeta jatetxean mahaiaren bueltan bazkalduko dute.

**OHITURAK** > MAIRUAREN ALARDEA

# Astelehenean batzarra izango da alardeko aldaketei buruz

Hiru talde sortu nahi dituzte, historia, koreografia eta parte-hartzea lantzeko

Batzarra herritar guztiendako dago irekia, eta 19:00etan izango da, udaletxean


Aurtengo Mairuaren Alardean ez da aldaketarik izango, ideiak lantzeko denbora behar da-eta. JOSETXO ARANZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Mairuaren Alardearen gaineko ikerketa soziokulturala egin zuten Eusko Ikaskuntzak eta Udalak elkarlanean, eta azterketaren ondorioak herritarrei jakinarazi zizkieten urtarrilean.

Azterketaren harira, alardean hainbat aldaketa egitea proposatu zuen Eusko Ikaskuntzak. Udalak eta Mairuaren Alardearen Elkarteak proposamenak aztertu dituzte.

Orain nahi dute aldaketak lantzea eta, horretarako, herritarrekin hiru lantalde osatzea: historia landuko duena, koreografiaz arduratuko dena eta jendearen parte-hartzea bultzatuko duena.

Elkartu nahi dituzte alardearen gaineko mintegian parte hartu zutenak, azterketarako Eusko Ikaskuntzak elkarrizketatu zituenak eta interesa duten gainontzeko herritarrak. Lantaldeetan jardun nahi dutenekin batzarra egingo dute astelehenean, ekainaren 2an, udaletxean, 19:00etan.

Aurtengo alardean, ez dute aldaketarik egingo. Ideiak lantzeko denbora behar dela esan digu Alardearen Elkarteko presidente Jose Luis Kortabarriak: "Koreografiaz arduratuko den lantaldeak ordua, jantziak... landuko ditu. Lehen, dantzariak joaten ziren kalejiran, eta hori berreskuratzeko gogoa azaldu da, baina ez dakit denak plazan sartuko diren", dio Kortabarriak.

Zein aldaketa egin ikusteko dago, baina Kortabarriaren esanetan, "diskurtsoak asko baldintzatzen du ekitaldia eta horren arabera eta jendearen parte-hartzearekin egingo dira aldaketak".

## Pilota txapelketa

**EMAITZAK**

**Maiatzak 24, zapatua**

Agirre-Iturbe 18/Aristi-Aranburu 9
Aranburu-Irizar 18/Lezeta-Aranburu 11
Jauregi-Larrañaga 18/Balerdi-Bideluze 3
Urtzelai-Guridi 18/Ormazabal-Iturbe 10

**PARTIDUAK**

**Maiatzak 31, zapatua**

**09:00** Balerdi-Bideluze/Aranburu-Irizar
**09:45** Agirre-Zabalo/Jauregi-Larrañaga
**10:30** Aristi-Aranburu/Ormazabal-Iturbe
**11:15** Larrea-Aranguren/Agirre-Iturbe

> JAIAK

## Serafin Vicentek irabazi zuen Ondarreko zozketa

Ondarreko jaiak izan ziren asteburuan, eta, eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, antolatzaileen esanetan, oso ondo joan dira jaiak. Zapatuan, Ondarra plaza umez beteta egon zen. Bizikleta jinkanan 28 neska-mutikok hartu zuten parte. Unai Larrea izan zen trebeena eta azkarrena; bigarren, Urtzi Mugurutza; hirugarren, Iker Gardoki; eta laugarren, Mikel Jauregi. Gauean, afaria eta osteko erromeria primeran irten ziren. Domeka eguerdian ere herritar asko inguratu zen auzora; orduan egin zuten zozketa, eta 904 zenbakiaren jabe Serafin Vicentek eskuratu zuen saria. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete jaietan parte hartu zutenei.


Serafin Vicente. B. KORTABARRIA

**KULTURA** > IKUS-ENTZUNEZKOA

## Euskal Herrian bizikletaz egindako bira kontatuko dute

**I.A.** > ANTZUOLA
Martitzenean, ekainaren3an, diapositiba emanaldia izango da Olaranen, 19:00etan. Mikel Bringasek emazte Rosarekin eta seme Ekirekin Euskal Herrian barrena tandem batean egindako bidaia kontatuko du.

*Euskal Herria bizikletaz* liburuan jaso zuten bidaia eta emanaldian, liburuko etapen diseinu zehatza erakutsiko du, bizikletazale guztiendako egokiak diren 23 ibilbide aurkeztuta.

**PAISAIAK ETA LEHIAKETA**

Gero, lehen bidaia, Euskal Herriko itzulia, egin duen ume txiki baten bizipenak kontatuko ditu, Euskal Herriko paisaien irudi ugari erakutsita; eta amaieran, argazki-geografia lehiaketa egingo du animatzen diren ikusleekin.

Ikus-entzunezko horrekin erakutsi nahi dute abenturarik interesgarriena dela norberari ilusio handien sortzen diona. Bidaia hura euren eztei-bidaia izanik, benetan izan zen berezia.


Mikel Bringasek eta Rosa Lizasok semearekin tandemean egin zuten bidaia.

**KIROLA** > ERRETIRATUAK

## Egubakoitzean egingo dute kirol jaia ibarreko adinekoek

**I.A.** > ANTZUOLA
Ibarreko adinekoek kirol jaia egingo dute egubakoitzean, ekainaren 6an, arratsaldez, Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta.

Horrelako jaia egiten duten hamazazpigarren aldia da eta urtero ibarreko herri batean egiten dute. Aurten Antzuolari egokitu zaio txanda.

Jai horren helburua da adinekoek arratsalde polita pasatzea jarduera fisiko osasungarriak eginez eta baita elkar ezagutzea ere. Ibarreko adineko guztiendako daude zabalik jarduerak, baina gehienetan parte hartzen dute Udal Kirol Zerbitzuetan dihardutem erretiratuek, sasoian egoteko gimnasia saioetan ibiltzen direnek, besteak beste.

Adineko kirol zaleak 15:40an iritsiko dira Antzuolara eta 16:00etatik 18:15era bitartean kirol ekintzetan eta jolasean ibiliko dira.

**HIRU GUNE**

Horretarako, hiru gune bereiziko dituzte: pilotalekuan, esku pilotan, badmintonean eta boccian jardungo dute, eta amaieran aerobik saioa izango da; eskolan hiru txoko izango dira: aterpean golfean, tokan eta igelaren jokoan ibiliko dira eta psikomotrizitate gelan boleibol egokituan eta aretoan pilates saioak izango dituzte; kanpoan, herriko kaleetan barrena, orientazio saioa ere izango da.

Ondoren, merienda eta dantzaldia izango dituzte, kirolean utzitako indarra berreskuratzeko eta ondo pasatzen jarraitzeko. Eta azkenean, opariak banatuko dizkiete parte-hartzaile guztiei.

Antolatzaileek jakinarazi nahi dute jaian parte hartzen duten erretiratu guztiek kirol ekintzak egin beharko dituztela eta horretarako ezinbestekoa dela kirola egiteko arropa eroso eta egokia eramatea.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

**INGURUMENA** > ASTE BERDEA

# Aste Berdearen barruan, 'Iturriz iturri' delako ibilbidea egingo dute domekan, 09:30ean

Maala Guraso Elkarteak antolatuta, gainera, doako 'decoupage' ikastaroa egingo dute gaur, barikua, 18:30etik 20:30era



Uztailaren 4ra arte daude eskuragarri ur-erreduktoreak udaletxean. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako I. Aste Berdeari amaiera emateko mendi txangoa proposatzen du Udalak domekarako. 09:30ean Herriko Plazatik abiatuko da taldea eta Beizu-Azula aldera egingo du. Ibilbideak Karabietara joko du. Eltze iturrira, Larrosa iturrira, Lehenengo Errekara eta Intxortako Ubegiko zein Arrotako iturrietara. Atxiluko iturritik bueltan itzuliko dira Elgetara. "Ibilbide nahiko handia da, batez ere ume txikiendako", esan du Kiroletako zinegotzi Rebeka Uberak. "Guztia egin beharrean, umeekin animatzen direnak zati bat egin dezakete". Uberak ibilbidea finkatzeko lanetan Alex Arantzabalen eta Pello Gorrotxategiren laguntza izan du.

**'DECOUPAGE' IKASTAROA**

Maala Guraso Elkarteak antolatuta, *decoupage* ikastaroa egingo dute gaur, barikua, 18:30ean hasita. Doan da eta ume zein nagusiei zuzendua.

**KALTEAK** > MAALAN ETA KULTURA ETXEAN

# Maalan farolak konpontzeak 700 euroko aurrekontua du

Aurreko astean, hirugarrenez, su-itzalgailua hustu zuten kultura etxeko eskaileratan

**L.Z.** > ELGETA

Azkenaldian ugaritu egin dira Elgetan herri-altzarien aurkako erasoak. Eguenean, hilak 22, ezezagun batzuek su-itzalgailu baten hauts guztia kultura etxeko eskaileratan hustu eta zabaldu zuten.

Ez da lehenengo aldia antzeko erasoa gertatzen dela. Udalak jakinarazi du azken asteotan hiru aldiz gertatu dela eraso berdina. Honakoan, gainera, argindarraren erregistro tapa guztiak kendu dituzte.

**AZKENA, MAALA PARKEAN**

Herri-altzarien aurka egindako azken erasoa hilaren 23an, barikuan, gertatu zen. Maala parke inguruan dauden farola guztiak apurtuta agertu ziren zapatu goizean. Kolpeka apurtu zituzten eta kristalak lurrean aurkitu zituzten Udaleko ordezkari eta langileek.

Udalak jakinarazi du farola horiek guztiak konpontzeak 700 euroko gastua ekarriko duela, herritar guztien dirutik ordainduko dena.

**KIROLA** > TXIRRINDULARITZA

# Mendi kriteriuma egin edo ez eztabaidatzeko, bilera deitu du Txirrindulari Elkarteak

Gaur, barikua, egingo dute 19:00etan batzar irekia lasterketaren eta Elgetako txirrindularitza elkartearen etorkizuna erabakitzeko

**L.Z.** > ELGETA

"Prest nago bizpahiru urtean elkartearen egitekoak hartuko dituen lantaldeari nire laguntza guztia emateko, baina 23 urteren ondotik atseden hartzeko garaia iritsi da". Emilio Mandalunizek hartuta dauka federazioaren egutegian Elgetako mendi kriteriuma egiteko data, baina errelebua eskatzen du antolatzaile lanetan. "Ez nago bakarrik, bizpahiru lagunek dihardugu, baina ez dugu erreleburik ikusten eta erabaki bat hartu beharrean gaude. Gaurko bileran lasterketaren etorkizuna zein den argituko dugu. Ez badago erreleburik, hor geldituko da. Pena hartuko dut, urte askoko lana izan delako eta Elgetakoa izen handiko lasterketa delako, baina gauzak hasi eta amaitu egiten dira".

**UDALAREN BABESA**

Elgetako Udalak lasterketaren aldeko apustua egin du. "Diru sail bat daukagu lasterketarendako erreserbatuta", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Lasterketak jarraipena izan dezan nahiko genuke".

Azken 23 urteotan mendi kriteriuma, Emakumezkoen Birako sei etapa, Euskal Bizikletako etapa bat eta Chiapucci nagusitu zeneko Eroski-Elgeta erlojupekoa egin dira. "Lasterketa asko igarotzen dira Elgetatik eta bidegurutzeetan berdinak egoten gara beti. Lana da", adierazi du Mandalunizek.

**JAIAK** > ANTOLAKUNTZA

# Herri Eguna bultzatu gura du Jai batzordeak aurten

Bazkalostean, giroa bultzatzeko, erromeria egingo dute Herriko Plazan

**L.Z.** > ELGETA

Hilabete gelditzen da herriko jaietarako eta Udalak gertu dauka egitaraua. Ekainaren erdialdean jasoko dute herritarrek etxeko postontzian.

Egunez ere festa giroa bultzatzeko ahalegin berezia egin du Udalak eta zapatuko Herri Egunean ipiniko du arreta berezia. "Gauean festa giro handia egoten da herrian, eta nahiko genuke giro hori egunez ere lortzea", esan du Oxel Erostarbe alkateak.

Egun horretan baserritar jantzeko deialdia egin die herritarrei: "Goizean, asto karreraren aurretik koadrilen hamaiketako egiteko asmoa daukagu. Herri bazkariaren ondotik, bestalde, erromeria ipiniko dugu plazan; izan ere, egunari bultzada eman gura diogu modu horretan".

**ELKARTEEN PARTE-HARTZEA**

Jaietako hainbat zereginetan inplikatu dira aurten herriko elkarteak. Ozkarbi elkarteak salda emango du bariku eguerdian. Intxortakoek zapatu eguerdian emango dute. Herri Eguneko paella Goibeko euskara elkartekoek banatuko dute eta kafea, berriz, Erretiratuen Elkartekoek. Gaztetxekoek, urtero moduan, kontzertuak antolatuko dituzte.

**ZEZENAK PLAZA INGURUAN**

Salbador kaleko lanak erritmo onean doaz, baina ez dago jakiterik jaietarako amaituta egongo den edo ez. Udala sokamuturra plaza inguruan egitea aztertzen ari da.

Pilota partiduak bariku iluntzean egingo dira eta eguneko haur jokoetarako galiar herrixka baten itxura hartuko du Herriko Plazak. Barikuan, berriz, umeendako puzgarriak goizez zein arratsaldez egongo dira aurten. Ekainaren 9an, 21:00etan, egingo du hurrengo bilera Jai batzordeak. Ateak zabalik dituzte herritar guztiek.



Iazko bazkaria, Herri egunean. L.Z.

> ERRETIRATUAK

### Ekainaren 18rako irteera antolatu du Kutxak, Karrantzara

Astelehenean, hilaren 26an, zabaldu zuten irteeran izena emateko epea Kutxaren bulegoan.

Elgetako erretiratuek Karrantzan egun pasa egiteko aukera izango dute ekainaren 18an, eguaztena. Herriko plazatik 08:15ean abiatuko dira. Autobusa bete arte egongo da izena emateko epea zabalik.

> IKASTAROA

### Patinaje ikastaroan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago

Udalak eta Egokik patinaje ikastaroa antolatu dute ekainaren 11tik uztailaren 2ra arte. Zortzi saio izango dira. Sei urtetik gorako herritar guztiek eman dezakete izena. Asmoa da bi talde osatzea: hastapenekoak (18:00-19.00) eta hobekuntza taldekoak (19:00-20:00). Prezioa 20 euro da, 15 euro 16 urtetik beherakoendako.

> IKASTAROA

### Sendabelarren gaineko ikastaroa emango du Alberto Altubek

Maya ingurumen taldeak antolatuta sendabelarren inguruko ikastaroa emango du Alberto Altube bergararrak ekainaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an.

Saioak 18:00etatik 20:00etara izango dira Ozkarbi elkarteko sukaldean. Prezioa 10 euro da. Interesatuek udaletxean eman dezakete izena.

**UDALA** > NEURKETA

# Argindarraren kalitatea, uhin bidez neurtuta

Udaletxean, kanposantuan, Untzillan, Azkoagan eta Gellaon sarea osatzen duten antenak ipini dituzte

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Uhin bidezko sistema bati esker, Aramaioko Udalak herriko argindarraren kalitatea neur dezake denbora errealean. Izan ere, Aramaion Gipuzkoatik, Iberdrola enpresatik, jasotzen dute argindarra eta Udala da banaketa egiten duena. Hori horrela, Udalarendako garrantzitsua da jakitea argindar hori zein kalitaterekin iristen zaien.

Puntuz puntukako uhinezko sistema ipini dute martxan. Udaletxean, kanposantuan, Azkoagan, Untzillan eta Gellaon sare hori osatzen duten antenak ipini dituzte. Antena horiek sortzen duten kutsadura magnetikoa, baina, oso txikia da: metro bateko distantziara mugikor batek sor dezakeen kutsadura baino txikiagoa. Antena horiek dauden etxoletan, gainera, kamerak jarri dituzte. "Oso puntu delikatuak dira eta horietan informazioa manipulatuz gero kaltea handia izan daiteke", azaldu du Javier Arriolabengoa udal teknikariak. Udaletxean daukaten ordenagailu batetik ikusten dituzte irudiok, eta kalitatea ere bertatik neurtzen dute. Etorkizunean helburua da herritarrek Udalaren webgunean euren kontsumoa eta kalitatea ikusi ahal izatea.

Oraingoz, uhin bidezko sare horretan argindarraren kalitatearen inguruko informazioa bakarrik jasotzen dute. Baina sistema horrek aukera gehiago ematen ditu, etorkizunean oso interesgarriak izango direnak. "Udaletxearendako oso erabilgarria izan daiteke. Sare horretan informazio mota asko sar daiteke. Esaterako, Udalak bere deialdien berri eman ahal izango du etxez etxe sistema horri esker. Telebista kate bat sortuko litzateke, eta hor deialdiak ikusteko aukera izango luke erabiltzaileak pasahitz bat sartuta", adierazi du Arriolabengoak.

Aramaio argindarraren kalitatea neurtzeko uhin bidezko sistema bat daukan Arabako lehenengo herria da.



Kamerak ipini dituzte etxola guztietan. ARRITXU BARRUSO

**Jesus Arregi** > Aramaio Zainduz elkarteko kidea

# "Diru apur bat batzeko antolatu dugu izarrak ezagutzeko tailerra"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

**Aramaio Zainduz elkarteak izarrak ezagutzeko tailerra antolatu du. Aramaioko 42 familiak osatzen dute Aramaio Zainduz elkartea; Suña, Untzilla, Azkoaga eta Zabolako auzokideak dira guztiak. Abiadura Handiko Trena euren auzoetatik igarotzea aurreikusten da eta horrek eragingo dituen kalteak murriztea da haien helburua. Diru apur bat batzeko antolatu dute tailerra.**

**Nola sortu zen Aramaio Zainduz elkartea?**

Abiadura Handiko Trena gure auzoetatik igarotzea aurreikusten da. Hasierako proiektuan gure auzoetan ez zuen horrenbesteko kalterik eragiten. Baina trazatua aldatu egin dute, orain, eta sekulako kalteak eragingo dizkigu horrek. Gure helburua da, beraz, Abiadura Handiko Trenak gure auzoetan sortuko dituen kalteak ahalik eta gehien murriztea lortzea. Horretarako, abokatu talde bat ere kontratatu dugu.

**Izarrak ezagutzeko tailerra antolatu duzue. Zer dela eta?**

Diru apur bat lortzea da gure helburua. Elkarteko kideek kuota bat ordaintzen dugu hilero, baina hori ez da nahikoa. Jakina da abokatuen zerbitzuak garesti samarrak izaten direla. Ekimen ugari antolatzea da asmoa; hasteko, izarrak ezagutzeko tailer hori egingo dugu.



Jesus Arregi Aramaio Zainduz elkarteko kidea eta Fisika irakaslea da EHUn. Hark emango du tailerra. A. BARRUSO

**"Diru apur bat lortzea da gure helburua; kuotak ordaintzen ditugu, baina hori ez da nahikoa"**

**"30 euro ordaindu behar da, baina tailerrera datozenek planisferio bat jasoko dute"**

**Noiz egingo duzue tailerra?**

Bi irteera egingo ditugu: ekainaren 6an eta irailaren 26an. Izan ere, hilabete batetik bestera zerua asko aldatzen da eta aldaketa horiek ikustea interesgarria da. Bietan ere, 21:30ean Azkoagako plazan elkartuko gara.

**Zenbat ordaindu beharko da?**

30 euro ordaindu beharko da. Dena dela, tailerrera datozen guztiek oparitxo bat ere jasoko dute: planisferio bat emango diegu, urte guztian barrena zeruari begiratzeko. Dena dela, familia beretik pertsona bat baino gehiago joaten bada, pertsona bakarrak ordaindu beharko ditu 30 euro. Gainontzekoek 15 euro bakarrik ordaindu beharko dituzte, kasu horietan planisferio bakarra emango dugueta. Tailerrean parte hartu nahi dutenek elkarteak Euskadiko Kutxan daukan kontuan egin beharko dute diru-sarrera.

> MAHAI-INGURUA

## Biomasa eta biogasa izango dituzte hizpide, besteak beste

Aramaioko Udalak herrian energia berriztagarriak sortzeko dauden aukerak aztertzen dihardu azken hilabeteotan. Egurra erregai gisa erabilita energia sortzeko aukerak zeintzuk diren ere aztertu zuten pasa den hilean Frantziara egindako bidaian.Oraingoan, energia berriztagarrietan aditu Christian Couturier etorri da Aramaiora.

Udalarekin makina bat bilera egin du eta Aramaioko zenbait baso ustiapen ere bisitatu ditu. Gaur, 10:00etan, mahai-ingurua egingo dute udaletxean biomasaren inguruan. Euskal Herriko zenbait aditu etorriko dira mahai-inguru horretara.

> JAIAK

## Santikurtz eguna ospatuko dute etzi, domeka

Santikurtz ermita konpontzeko lanak atzeratu diren arren, egun handia ospatuko dute domekan, ekainaren 1ean, Santikurtz ermitan. Urtero moduan aramaioar asko joango dira mendi tontorrera egun pasa.

Eguerdiko hamabietan meza nagusia egingo dute ermitan bertan. Ondoren salda beroa eskainiko dute eta giroa alaitzeko trikitilariak ere izango dituzte. Arexolako eta Arriolako gazteek antolatutako jaia da.

ERRETIRATUAK > IRTEERA

# Elizondora doaz erretiratuak, eta izena emateko epea zabalik dago

Eguaztenean doaz, Leitza aldean egingo dute hamarretakoa, eta gero Elizondora joango dira; Baztan hotelean bazkaltzeko asmoa dute



ERRETIRATUAK Toki Eder elkarteko erretiratuak. GOIENKARIA

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Nafarroara antolatu dute irteera Toki Eder elkarteko erretiratuek: Leitza eta Elizondo ikusiko dituzte, hain zuzen. Eguaztenean, ekainaren 4an, joango dira, baina domekara bitartean oraindik badago izena emateko aukera. Horretarako, zuzendaritza batzordeko kide Tere Aranburuzabalari edo Juan Mari Makazagari jakinarazi behar diete interesatuek. Orain arte 20 bat lagunek eman dute izena –iaz ia 30 izan ziren– eta azken orduan gehiago animatuko direla uste dute antolatzaileek. Hala ere, autobus txikian joango dira.

**UDAZKENEAN FERIARA**

Nafarroako iparraldea ezagutuko dute bidaiariek, eta Leitza aldean egingo dute hamarretakoa. Ondoren Elizondora joango dira, eta bertan bazkalduko dute: Baztan hotelean, hain zuzen. Oraindik ez daukate argi zer ikusiko duten Elizondon; izan ere, museoa badago, baina aste bukaeretan bakarrik zabaltzen dutela jakin dute. Edozelan ere, ondo pasatuko duten itxaropena daukate Toki Eder elkarteko antolatzaileek. Feriaren bat ikustera joateko gogoa zeukan Juan Mari Makazagak, baina oraingoan ezin izan dute halakorik antolatu: "Udazkenean saiatuko gara halako irteeratxoren bat antolatzen", jakinarazi digu.

GIZARTE ZERBITZUAK > GIDA

# Gizarte Zerbitzuek gida baten jaso dute herritarrendako dauden laguntzen berri

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Gida egin du Bideberri mankomunitateak oraintsu, eta Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten laguntza guztien berri jaso du. Joan zen astean banatu zieten gatzagarrei. Hala ere, argibide gehiago gura izanez gero edo eskaeraren bat egin, Ainara Gabilondo gizarte laguntzailea martitzen goizetan egoten da udaletxean. Hitzordua aurrez egitea komeni da udaletxera deituta.

**HAINBAT GAI JASO**

Antzuola, Elgeta eta Gatzaga herriek osatutako Bideberri mankomunitateak aspaldi azaldu zuen gida egiteko asmoa, eta dagoeneko esku artean daukate herritarrek. Gidaren helburua da Udaleko Gizarte Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri izatea herritarrek; horregatik, bereziki baserrietara ailegatzea gura dute gizarte laguntzaileek. Hona jaso dituzten hainbat gai: adinekoek eta gazteek dituzten laguntzak; familiei eskainitakoak; dirulaguntzen zenbatekoak eta zelan bideratu; drogomenpekotasunaren gaineko argibideak; etorkinak integratzeko bideak; eta eskean datozenendako laguntzak.

Azken hilabeteotan hainbat aldaketa izan dituen mendekotasun legearen gaineko argibideak eta xehetasunak ere jaso dituzte egindako gidan.

**ETXERIK ETXEKO ZERBITZUA**

Mendekotasun legeari dagokionen, jesan behar da Udalaren ardurapean daudela autonomoak, hau da, norberaren kasa moldatzen direnak, eta Aldundiarenean gainerakoak. Bestalde, eguneko zentrora joan behar duten gatzagarrak Eskoriatzara bideratzen dituzte.

Etxerik etxeko zerbitzua GSR enpresak ematen du Gatzagan urriaz geroztik.

> ERRETIRATUAK

### Imsersoren bidaietara joateko izenematea, zabalik

Imsersok erretiratuendako antolatzen dituen oporraldietara joateko izenemate epea zabalik dago. Bidaien gaineko argibide gehiago izateko eta interesatuta daudenek eskaerak egiteko udaletxeko Gizarte Zerbitzura jo behar dute martitzen goizetan (Ainara Gabilondo). Aurkeztu behar diren dokumentuak bi dira: nortasun agiria eta norberaren pentsioaren diru kopuruaren berri ematen duen agiria. Izena emateko azken eguna ekainaren 13a da.



Alberto Iñurrategi batera eta bestera dabil bere azken filma –*Begiz begi*– erakusten. Ibarrean oraindik ez du lan hori aurkeztu, datorren astelehenean egingo du lehenengoz, Arrasateko Amaia antzokian (20:00). Hurrengo egunean Pakistanerako bidea hartuko du; begiz jota du G4 mendia.

**Alberto Iñurrategi** > Mendizalea

# "Filmak tonu probokatzailea du, gogoeta eragitea izan da helburua"



Alberto Iñurrategi, martitzen eguerdian, Untzillako elkartearen ondoan; atzean, Anboto eta

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

**Alberto Iñurrategi (Aretxabaleta, 1968) beti bezain argal dago, sasoian, gain-gainean du-eta beste espedizio bat. Joan aurretik, azken unera arte hara eta hona ibiltzeko asmoa du, bere hirugarren filma –*Begiz begi*– aurkezten. Lan horren gainean izan gara harekin berbetan, Untzillan.**

***Begiz begi* hainbat lekutan aurkeztu duzu, baina Debagoienean oraindik ez dugu lan hori ikusi.**

Gustura erakutsiko dut lana hemen. Egia esan, egin ditugun lan guztiak ibarrean erakutsi ditugu, ez bada herri baten bestean. Arrasaten, esaterako, garai batean Monterronen hasi ginen betiko proiekzioak egiten, eta azken lanak Amaia antzokian aurkeztu izan ditugu.

**Zera irakurri dugu azken lan horren gainean: "*Begiz begi* garatzeko bidean dauden herrietara egin ohi diren bidaiei buruzko ikuspegi bortitza da". Horrenbesterako da?**

Bai, tonu probokatzaile edo zirikatzailea du. Lan horren helburua oso xumea da, jendeari gogoeta eragitea. Eta hor lantzen diren gaien inguruan hausnarketa egiteko tonu aproposa dela uste dut.

Ez bagenu horrela egingo, gure buruari ez genioke inongo galderarik egingo. Eta, tonu hori erabiltzea bada kontzientziak eragiteko modua. Alde horretatik, esango nuke lana badabilela bere helburua betetzen.

**Autokritika ere bada; izan ere, zeuok ere gainontzekook moduan antolatzen dituzue bidaia eta espedizioak.**

Gaur egun oso modan dago ondokoa kritikatzea. Askoz ere zailagoa da autokritika egitea, baina baita sanoagoa eta objektiboagoa ere. *Begiz begi*-n Koldo Izagirre idazleak neuk eramandako irudiak barneratu eta zalantzan jartzen du mendizaleok espedizioetan dugun jarrera. Eta, hortik dator film honek duen tonua eta edukia, hor du indarra.

**Izagirrek testuak erakutsi zizkizunean, sorpresa hartu zenuen?**

Ez, ez da sorpresa izan. Urteak dira ezagutzen dudana, 1995ean hasi ginen-eta elkarrekin lanean. *Gure Himalaia* lanak ere eduki gogor samarra zuen, hura ere autokritikan oinarritzen zen. Eta orain ere ez nau ezustean harrapatu.

Bestalde, eta neure buruari begira jarriz gero, hor esaten diren guztiak onartzen ditut.

**Lana aurkeztu aurretik zenituen lagun mendizale guztiek lagun izaten jarraitzen dute, ala norbait mindu egin da?**

Nik dakidala inor ez da nirekin haserretu. Badut lagun bat diskurtso horrekin bat ez datorrena, baina hori ere normala da, sekula ez du-eta denon gustura euria egiten. Kiroltasun osoz hartzen ditut kritika horiek. [Barre]

***Fast food* gizartean bizi garela esan ohi da. Mendizaletasunera ere iritsi da hori?**

Duda barik. Mendia ez da aparte dagoen mundu bat, gizartearekin batera doa-eta. Gaur egun espedizio bat antolatzen dugunean denok funtzionatzen dugu berdin. Hemendik kontratatzen ditugu zerbitzu guztiak, erraz-erraz; gailurra ere askotan ahora ematen digute, eta oso azkar egiten da dena. Lehen, espedizio batek 4-6 edo 8 hilabete irauten zuen, eta orain hilabete eta erdian etxean gaude; eta, prezio guztiak izugarri borrokatuta. Hori ez bada janari azkarreko kultura...

**Espedizioak horrela antolatzeak badu beste gauza txar bat: diru hori gutxi batzuen eskuetan geratzen dela, ala?**

Hori da globalizazioak dakarren beste ondorio bat. Zenbat eta zerbitzu gehiago batera kontratatu, bertakoekin orduan eta harreman txikiagoa dago. Horrela, mendiaren magalera iristen gara ia-ia bertakoak ikusi ere egin barik. Pentsa, askotan helikopteroz joaten dira oinarrizko akanpalekura.

Lehen, gutxienez, mendirako hurbilketa martxetan dirua zamaketari askoren artean banatzen zen. Bertako herrietan gosaldu, bazkaldu edo afaltzen genuen, hango merkatuetan egiten ziren erosketa asko... Orain, ministeriora doa zati bat eta agentziara beste zatia.

**Espedizioak gaur egun antolatzen diren moduan antolatuta, zer galtzen du mendizaleak?**

Ikuspegi soziala, gizatasuna. Alde horretatik mendizaleok izugarri galtzen dugula esango nuke, eta gizatasun hori oso garrantzitsua da, gero mendian ere beste jarrera bat izateko. Baina bidaian ez badaukagu gizatasunik, mendian ere ez dugu izango; hori seguru.

***Begiz begi*, mendizaleendako lana baino gehiago, bidaiariei zuzendutako lana da?**

Egia esan, gure lanak sekula ere ez dira mendizaleei zuzendutako lan teknikoak izan. Gure lanetan ez dugu mendien zailta-

**"Ez da autokritikan oinarritu dugun lehen lana; 'Gure Himalaiak' ere eduki gogorra zuen"**

**"Lanean, Koldo Izagirrek zalantzan jartzen du mendizaleon jarrera; filmak hor du indarra "**

**"Mendizalea geroago eta lehiakorrago ikusten dut, zentzu txarrenean, gainera"**

**"Filma egiteko 2002tik hona hartutako irudiak erabili ditugu, artxibo handia geneukan"**





Etxaguengo haitza. XABIER URTZELAI

sunen gainean berba egin, graduak azpimarratu, tontorrera igotzeko ze estrategia erabili dugun, logistika... Gehiago izan da mendia oinarri moduan hartuta ikuspegi zabalagoa erakustea.

**Mendira joaten hasi zinenetik hona, zertan aldatu da mendizaletasuna?**

Batez ere lehiakortasunean aldatu da mendizaletasuna. Mendizalea geroago eta lehiakorrago ikusten dut, zentzurik txarrenean, gainera. Gaur da eguna jendeak tontorra baino ez duena ikusten, eta berdin dio zelan igo den, nondik igo den eta zeinekin igo den. Uste dut lehen ez zela horrela, kordadak beste balio bat zeukan, izugarri baloratzen zen bidearen zailtasuna, talde-lana...

Mendira gerturatzeko modua ere beste bat zen, baina bueno, gizartean beste gauza asko aldatu diren moduan, hori ere aldatu egin da.

**Dena dela, zortzimilakoa egiteak betetzen ditu egunkarietako kirol orriak.**

Bai, hala da. Sekula ez da galdetzen nondik igo den, zelan, eta are gutxiago arrastorik zabaldu behar izan duten.

**Egun gutxi dela, berri txar batek bete ditu egunkarietako orriak, Iñaki Otxoa de Olzaren heriotzak.**

Bai, eta zer pentsatuta ematen du, duda barik. Baina, ez da lehenengoa izan, eta ez da izango azkena. Badakigu zertan gabiltzan, hortan, kontuz ibili eta horrelakorik ez gertatzeko ahal diren neurriak hartu.

**Nongo irudiak erabili dituzue filma egiteko?**

Himalaiako irudiak erabili ditugu, baina munduan beste hainbat lekutan egindako eskalada, izotz eskalada, mendi igoera, basamortuko irudi eta bestelakoetan oinarritutako lana da. Jon Belokiren, Gotzon Arribasen eta neure irudiekin egin dugu filma, 2002tik hona batu izan ditugun irudiekin.

**Hurrengo espedizioa ere gertu duzue. Ze asmo?**

Bai, billeteak hartu ditugu dagoeneko. Martitzenean abiatuko gara Pakistan aldera, G4 mendia igotzeko asmoz.

**Eta, ikus-entzunezko lan berririk buruan bai? Laugarren film bat edo...**

Ez, ez. Nire kasuan, gainera, ez dakit zorrotza naizelako, edo txarra, baina espedizio bateko materialarekin ez naiz ezer kontatzeko gauza. Beste askok, aldiz, hori egiten dute, eta oso ondo gainera. Esaterako, nik ezagutzen ditudanen artean Juanjo San Sebastian, Jose Carlos Tamayo... espedizio bakoitzetik bueltan euren bizipen eta esperientziak kontatzen dituzte, baina bi horiek oso komunikatzaile onak dira. Ni ez naiz hori egiteko gauza.



Eskoriatzako iazko mendi bizikleta zeharkaldiko irudia, goizeko lehenengo orduan. JOSETXO ARANTZABAL

**MUNDUMIRA** > KIROL HITZORDUAK

# Mendiko bizikleta eta eskalada Mundumiran

Datorren zapatuan, hilak 6, mendiko bizikleta zeharkaldia egingo dute Bergaran, eta domekan boulder txapelketa izango da

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Datorren asteburuan egingo duten Mundumira jaian hainbat kirol hitzordu izango dira, eta neurri batean, Lokatzakoek antolatutako mendiko bizikleta zeharkaldia eta boulder txapelketa izango dira hitzordu garrantzitsuenak.

**GUZTION NEURRIRAKOA**

Bizikleta zeharkaldiari dagokionez, antolatzaileek ahalegina egin dute txirrindulari guztiendako moduko hitzordua prestatzen (zapatua, 16:00), hau da, aukera bat baino gehiago izango da norberaren gorputzaldiaren arabera. Hala, ibilbide txikiak 22 kilometro izango ditu (600 metroko malda), ibilbide ertainak 38 kilometro (1060 metroko malda), eta indartsu daudenek 44 kilometroko ibilbidea egingo dute (1261 metroko malda); azken horrek ez du bromarik, oso ondo egotea komeni da, behar dena baino gehiago ez sufritzeko.

Zeharkaldi horiek egiteko, federatuta daudenek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuta ez daudenek 20 euro. Prezio horren barruan daude osasun eta asistentzia medikua, segurua, material zozketa, opariak, jatekoak eta bestelakoak.

**BOULDER TXAPELKETA**

Domekan, berriz, boulder txapelketa egingo dute, 11:00etan hasita. Txapelketan parte hartu behar duten eskalatzaileek, baina, 10:00etan Bergarako Mintegiko patioan egon beharko dira. Izena emateko 10 euro sartu behar dira ondorengo kontu korrontean, ekainaren 6an baino lehen: BBVA 0182 2346 11 0100732008. Informazio gehiago *www.mundumirafesta.com* helbidean.



URTZI AMIANO

## Arizmendikoak datorren denboraldirako prestaketa lanetan

Futboleko txapelketak amaitu badira ere, Arizmendikoak dagoeneko datorren denboraldira begira dabiltza, eta aste barruan aurkeztu dituzten datorren denboraldian izango dituzten taldeak.

Taldeen aurkezpenean Arizmendikoek izango duten jantzi berria ere aurkeztu zuten; eta hor badago nobedaderik, izan ere, Natur House dietetika eta nutrizio alorra jorratzen duen enpresaren babesa izango dutelako. Laguntza denak dira ongietorriak.




EUSKAL HERRIA
www.euskalherria-aldizkaria.com
aurkezten du

Mundumira
munduko kulturen festa

IV mendi azoka

ekainak 6/7/8
Bergara-Debagoiena

*Giroa berotzeko...*

**Ikusentzunezkoak**

**Maiatzaren 31n,**
Hiru tenpluen ibilaldia (45km) Loiola, Antiguako baseliza eta Arantzazu artean, GR –120 bidetik.
06:00etan Oñatiko Aloña Mendi Elkartearekin.

**Ekainaren 2an,**
ALAMITOU, Garapena Mozambiken. Emakumezkoen aldeko apustua. Posible al da?
19:00etan, Eskoriatzako Ibarraundi kultur aretoan.

**Ekainaren 3an,**
Euskal Herria bizikletaz: Nire lehen bidaia. Mikel Bringas
19:00etan Antzuolako Olaran etxean.

www.mundumirafesta.com
info@mundumirafesta.com
902 181 471



**> ANTZERKIA**
'Las bodas de Fígaro' antzeztuko dute; Amaia Cid da aktore bat **> 45**



**> TOMTOM**
Autorako nabigatzailea euskaraz ere badago orain **> 51**

**> JULEN KORTABARRIA**
Oñatz dantza taldeko kidea da -oraintsu ibili da dantzarien kapitain Korpuseko prozesioan- eta baita triatleta ere **> 50**



Arrasate Euskaldun Dezagun 25



**AURKEZPENA** AEDko 25. urteurreneko ospakizunen aurkezpenean, eguaztenean, bildutako lagun taldea.

IKER BARANDIARAN

# Aurkeztuta AEDren 25. urteurrena

Aurkezpen ekitaldi berezia egin zuten eguaztenean

Urtemugaren helburuak dira ekimenez gozatzea, euskalgintza sendotzea eta egitekoa zehaztea

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

AED elkarteak joan den eguaztenean aurkeztu zituen 25. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldiak. Hain zuzen ere, aurkezpen ekitaldia, prestatu duten egitarauaren antzera, berezia izan zen. AEDkoek, horrenbestez, ez zuten urteurrena ohiko prentsaurreko baten bidez aurkeztu nahi izan.

Hala, ekitaldiaren sarrera Goiena Komunikazio Zerbitzuetako kazetari Xabier Urtzelaik egin zuen. Gero, Joxemari Muxika Txaxilipurdiko lehendakariak eta Leire Aperribai Ekin Emakumeak elkarteko presidenteak AEDren historia azaldu zuten. Horren ondoren, urteurrena antolatzearen arduradunak, Olaia Murua AEDko teknikariak, antolatutako ekitaldi guztien berri eman zuen, eta, amaitzeko, euskara elkarteko lehendakari Zigor Masipi egokitu zitzaion aurkezpen ekitaldia ixtea. Argazki proiekzioak ere izan ziren tartean.



Irudian, euskararen egoera aztertzeko gaztetxean egin zen gogoeta saioa. GOIENKARIA

# Aurkeztuta AEDren 25. urteurrena

(43. orrialdetik dator)

**LAN HANDIAREN FRUITUEZ GOZATU**

Dagoeneko 25 urte pasa dira Arrasateko euskaldun eta euskaltzale anonimo batzuek euskara elkarteen artean aitzindaria den Arrasate Euskaldun Dezagun sortu zutenetik, herriko euskararen egoera larriaz kezkaturik –garai hartan hamar arrasatearretatik batek baino ez zuen euskaraz egiteko ohitura–. 25 urte euskaren aldeko militantzian, 25 urte herri euskaldunagoaren alde buru-belarri lanean. Eta urte haietan ereindako haziak eman dituen fruitu guztiak definitzeko zerrenda luzea beharko genuke. Hori bai, fruituon artean, ezin gara AEDk utzitako ondare zehatz bat bereziki aipatu barik geratu. Etxe honetaz ari gara, Goiena Komunikazio Zerbitzuez, alegia. Arrazoia erraza da ulertzen: egungo GOIENKARIA edota GOITB ezin dira ulertu 1991n jaio ziren *Arrasate Press* edota Arrasate Telebista barik Arrasateko Komunikabideak.

**OSPATU, BAINA LANEAN SEGI**

Euskara elkartekoek lehen helburu moduan zehaztu dute ospakizunez gozatzea. Merezi dutelako, egindako lana goraipatzeko unea da. AEDn izan zirenei eta dihardutenei errekonozimendua egiteko momentua.

AED sortu zenetik euskalgintzak aurrerapauso nabarmenak eman ditu, bai Euskal Herrian zein Arrasaten bertan. Arrasateri dagokionez, euskararen egoerak nabarmen egin du hobera. AEDk emandako datuen arabera, 1983an hamarretik batek erabiltzen zuen euskara, eta gaur egun, berriz, hirutik batek egiten du euskaraz.

Lorpen horietan zerikusi handia izan dute bai AEDk eta baita AEDtik sortutako erakundeek ere, lan mardula egin dute-eta euskara arrasatearren bizi esparru guztietara zabaltzeko. Meritua, noski, ez da AEDrena bakarrik. Horregatik, euskara elkartetik dei egiten diete euskararen alde lan egin duten guztiei urteurrenerako antolatu diren ekitaldietara hurbiltzeko, eurekin batera ospatu nahi dute-eta data berezi hori. Hala, AEDk urtemugako ekintzetan parte hartzera animatzen ditu AEDko bazkideak, euskalgintzan diharduten beste erakundeak, herrikideak, kultura taldeak eta administrazioa.

Era berean, euskara elkartetik adierazi dutenez, mende laurden honetan egindako lan oparoa ospatu bai, baina "oraindik ere egiteke asko dago".

**EUSKARA ELKARTEAK SENDOTU**

Urteurrenak, bestalde, euskara elkarteak berrindartzeko ere balio behar duela jakinarazi dute antolatzaileek. Helburu hori lortzeko, AEDkoen ustez, lehen urratsa elkarteko bazkideak bertako kide izateaz harro sentiaraztea da. AED eta AEDtik sortutako elkarteetako bazkide izateaz harro sentitzen dena gehiago inplikatzen da eta bazkide berriak lortzeko ahalegin handiagoak egingo ditu, euren esanetan.

Bigarren helburua hertsiki lotuta dago lehenari. Izan ere, euskararen aldeko inplikazioa lortzea ezinbestekoa da euskaldun eta euskaltzaleen jarrera aktiboa sustatzeko. Azken horrek, era berean, eta nork bere esparruan, euskararen erabilera aregotzeko lan boluntarioaren premiaz kontzientziaraziko luke herritarra.

Azkenik, AED eta AEDtik sortutako elkarteen arteko elkarlana bultzatzea ere oso garrantzitsua da euskararen garapenerako. Azken helburu horretarako, beraz, Arrasateko Euskalgintzako erakunde guztien artean eta euskara elkarteen eta herriko beste erakundeen artean elkarlana indartzea beharrezkoa dela diote AEDtik.

**URTEURRENA, INFLEXIO PUNTUA**

Euskararen alde asko egin bada ere, asko dago egiteko. Hau da, euskararen egoera orain dela 25 urte baino hobea den arren, hainbat esparrutan badago zertan hobetu –gazteengan euskarak duen presentzia, esaterako–.

Horrenbestez, AEDkoek 25. urteurrenaren ospakizun ekitaldietan aukera paregabea ikusten dute euskalgintzan etorkizunean egin beharko den lanari begira jartzeko. Hala, urteurrena erronka moduan hartu dute, "jardunaldi baten bitartez ekarpen teknikoko aberatsa" egiteko asmoz. Gainera, euskara elkartetik diotenez, aurreko beste bi helburuak –ekitaldiez gozatzea eta euskara elkarteak sendotzea– ondo bideratzen badira, 25. urteurrena "inflexio puntu garrantzitsua" izango litzateke euskara arrasatearren bizi esparru guztietara zabaltzeko.

**LELOA, ABESTIA, DVD-A ETA LOGOA**

Urteurrenerako leloa aukeratu dute: *Arrasate Euskaldun Dezagun*. Prentsa oharrean jakinarazi dutenez, "AEDren izenak berak ezin hobeto islatzen ditu Arrasateko euskara elkarteon zerizana eta batasuna". Abestia ere egin dute AEDren 25. urtebetetzerako. Goseren kantuaz gain, herriko zenbait musika taldek irailerako grabatuko duten kantu baten bidez egingo diote AEDri omenalditxoa. Bestalde, Arrasate Komunikabideen (ARKO) historia kontatuko duen DVD bat argitaratzeko lanak martxan dira dagoeneko. Bestalde, Goienan bidez, bloga ere izango dute; Goiena.net blogosferan, *aed25urte.com* helbidean.

URTEURRENEKO ABESTIA

## Mezu argia, helburu argia lortzeko

Urteurreneko kantuaren izenburuak –*Ez gorde museotan*– argi eta garbi uzten du; zain dezagun, beraz, euskara, "sukalde txokotan".

*Ez dut alerik leku denetan*
*ez nago saltoki handietan.*
*Ez gorde museotan*
*zaindu sukalde txokotan.*

*Ez naute ulertzen edonon ta beti*
*nahiz ta izerdia iradoki.*
*Ez gorde museotan*
*sentitu gozatzekotan.*

*Mundu hontan*
*ta mundu hau bizi dugu*
*denona den altxor hau hartzazu*
*te zeurea sortu munduz mundu.*

*Ezinak, gabeziak, minak,*
*grinak, ametsak ta ahaleginak.*
*Ez gorde museotan*
*geure dira doinu hontan.*

*Gorrotoak, amodioak.*
*Historia ta istorioak.*
*Ez gorde museotan*
*Ez gorde museotan*

*BIZI GARA*
*BIZI DUGU*
*ZEURI TA NEURI ESKER*
*GEUREA SORTZEKO MUNDUZ*

*Hitzak: Jokin Labaien*
*Musika: Gose*
*Kolaborazioak: Jul Bolinaga*

25. URTEURRENERAKO ANTOLATU DIREN EKITALDIAK

**> EUSKARARI ERAKUSKETA**

Iaz azaroan Topaguneak hamargarren urteurrena ospatzeko antolatutako erakusketa izango da ikusgai. Erakusketa hori euskara elkarteen izaera, funtzioa, eginkizuna eta dinamika islatzeko helburuarekin aurkeztu zuten orduan.

Oraingoan, gainera, AEDkoek panel informatiboa ipiniko dute bertan, Arrasateko euskara elkarteei buruzko datuekin.

**Non:** Kulturaten

**Noiz:** gaurtik ekainaren 15era bitartean. Gaur bertan izango da inaugurazioa, 20:00etan.

**> UDALEKUETAKO OMENALDIA**

Aurten uztailean 20 urte beteko dira Txatxilipurdik lehenengo udalekuak antolatu zituenetik. Hala, 1988ko udaleku haien antolatzaile eta begiraleei omenaldi xumea egingo diete.

**Non:** Zaldibar frontoian.

**Noiz:** ekainaren 25ean, San Juan jaietan Txatxilipurdi elkarteak antolatzen duen Eguzki Laru Egunaren barruan.

**> 'DENOK ELKARREKIN' JAIALDIA**

Egun osoa iraungo duen jaialdia da. Helburuak bi ardatz nagusitan sailka daitezke: batetik, urteurrena arrasatear guztiekin ospatzea; eta bestetik, herrian bizi diren jatorri askotariko pertsonen arteko ezagutza eta harremanak sendotzea. Herri bazkaria eta herriko musika taldeen kontzertua aurreikusi dute egun horretarako.

**Non:** Arrasateko kaleetan.

**Noiz:** irailaren 20an.

**> GOGOETA SAIOAK**

Euskararen egoera abiaburu hartuta, urtemuga dela-eta gogoeta sakona egiteko aukera ezin hobea ikusi dute AEDkoek.

Gogoeta saio horiek aurrera eramateko bi ekimen sustatu dituzte: *Euskararen jatorria, egungo egoera eta geroari buruzko zikloak* eta *Nazioarteko jardunaldia*, hain zuzen ere. Lehen ekimeneko bi hitzaldi burutu dituzte dagoeneko eta azkena, euskararen geroari dagokiona, urrian egingo dute.

*Nazioarteko jardunaldia* azaroaren 14an izango da, Kulturaten.

**> 'AED ESKOLETAN' EKIMENA**

AEDren sorrerak herriaren euskalduntze prozesuan izandako garrantzia belaunaldi berriei ulertaraztea ezinbestekoa da, gazteek etorkizunean euskararen aldeko jarrera aktiboa izan dezaten.

Hori guztia azaltzeko lantalde bat eratu dute Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendi ikastolako irakasle batzuk elkartuta. Lantalde horren asmoa da hezkuntza ziklo bakoitzean gaia lantzeko metodologia eta material bereziak prestatu eta baliatzea.

**Non:** herriko ikastetxeetan.

**Noiz:** iraila eta abendua bitartean.

**> EKITALDI NAGUSIA**

AEDko sortzaileak omendu, euskararen alde lan egin duten guztiei eskerrak eman eta belaunaldi berriei lekukoa emateko ekitaldia izango da.

**Non:** Kulturaten.

**Noiz:** abenduaren 3an.



**ANTZERKIA** > ORTZAI TALDE GASTEIZTARRA

# 'Figaro-Garate, las bodas de Figaro', gaur Santa Anan

## Amaia Cid oñatiarra dugu laneko protagonista, Susanaren rola eginez; emanaldia 22:30ean izango da eta sarrerak 6 eurotan salgai daude

**EDU MENDIBIL** > OÑATI
Ortzai taldeak *Figaro-Garate, las bodas de Figaro* antzezlana eskainiko du gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana aretoan, 22:30ean.

Iker Ortiz de Zarate taldeko zuzendariaren arabera, komedia garratza, kritikoa eta erabat dibertigarria da gaur Oñatira ekarriko dutena. Beaumarchais idazlearen lanak hautsa harrotu zituen Frantziako Iraultzaren bezperatan, XVIII. mendean. Dena dela, Ortzaiko kideek trama gaurkotu nahi izan dute eta Gasteizen girotu dute lana, XX. mendekjo Euskal Herrian, 1910. urtean hain zuzen ere. Edozein modutan, protagonisten izenei eutsi diete eta beste batzuk euskaldundu egin dituzte. Antzezlanean euskara eta gaztelera tartekatzen dituzte.

**AMAIA CID PROTAGONISTA**
Protagonistetako bat Amaia Cid oñatiar aktorea dugu. Ezkontzaren bezperan, kondeak lehenbiziko gaua, senargaiarekin ez, berarekin igaro beharko duela esango dio *Susana*-ri, Amaia Ciden pertsonaiari. Hortik abiatuta, trama jarriko dute martxan laneko 11 aktoreek.

Gaurko emanaldia antzezlanaren aurre estreinaldia izango dugu. Ortiz de Zarateren hitzetan, "aurreko lanarekin, *Las azarosas andanzas de dos pícaras pellejas*, harrera beroa jaso genuen oñatiarren partetik, eta Amaia bertakoa izanda, ilusio handia egiten zigun bueltatzeak. Gainera, xarma berezia duen aretoa da Santa Anakoa.

Emanaldirako sarrerak 6 eurotan salgai jarriko dituzte.

Ortzai Antzerki Laborategia 2005eko urrian sortu zuten, Gasteizen. Hain zuzen ere, Pintore kaleko 39. zenbakian daukate egoitza joan den urtetik. Iker Ortiz de Zarateren ekimenez sortuta, eskarmentu profesional handiko irakasleen artean, Puri Santamaria eta Janire Lasa daude.



Amaia Cid oñatiarra (bigarren ilaran, ezkerretik hasita azkena, zuriz) dugu antzezleetako bat. ORKAITZ

### El Puchero del Hortelano gaur Arrasaten

Gaur, egubakoitza, El Puchero del Hortelano taldeak joko du Arrasateko 3.60 aretoan. Orain dela 20 urte sortutako Granadako talde horrek flamenkoa eta rocka uztartzen ditu. Euren diskoen artean, *Aficiones* (2000), *Once temas de conversación* (2002) edo *Candela* (2005) nabarmen daitezke. Alberto Rodriguezen *Siete vírgenes* filmeko soinu bandan ere hartu zuten parte. *Harumaki* da euren azken lana. Gaurko kontzertua 23:00etan hasiko da eta sarrerak 10 eta 12 eurotan jarriko dituzte salgai.



GOIENKARIA



Anestesia zarauztarrek *Terapia* lana aurkeztuko dute gaur Oñatin. GOIENKARIA

**MUSIKA** > OÑATI

# Lau musika talde gaur Errekaldeko jaietan

## Anestesia, Discipulos de Dionisos, Los Cretinos eta Latzen taldeek joko dute Oñatin, 21:00etan

**E.M.** > BERGARA
Oñatiko Errekalde jaietako egitarauaren barruan, gaur, egubakoitza, Anestesia, Discipulos de Dionisos, Los Cretinos eta Latzen taldeek joko dute, 21:00etan hasita. Anestesiak ibilbide luzea darama 1988tik hona. Hainbat geldiune *anestesiko* izan dituzten arren, *Terapia* da euren azken lana. "Agian abiadura handiko abesti gutxiago dago, eta abesti oso sinpleak direla esan genezake, apainketa gabekoak, soinuari dagokionez bloke sendo bat lortzeko eta jotzerakoan ere gozatu ahal izateko", diote zarauztarrek. Discipulos de Dionisos donostiarrek 1996an kaleratu zuten euren lehen diskoa: *Adictos al porno guarro*. Porno-punk deitzen duten estiloari eutsiz, hitzek berebiziko garrantzia daukate *Garganta profunda* edo *Playa nudista* kantuetan.

Jim TNT (ahotsa, harmonika eta gitarra), Barbi Mysterian (bateria) eta Ibai (baxua) arrasatearrek osatzen dute Los Cretinos. Latzenek etxean *jokatuko* du oraingoan, eta *Hellmuga* euren azken CD/DVDa aurkeztuko dute.

**ZINEMA** > ELKARHEZITZEN LAN TALDEAREN ESKUTIK

# Mugarik gabeko zinema, ekainaren 9tik 14ra arte

## Doako emanaldiak eskainiko dituzte Amaia antzokian eta Ibarraundi museoan




**E.M.** > BERGARA
Mugarik gabeko zinema jaialdia egingo dute Arrasaten eta Eskoriatzan, hurrengo astetik. Ekainaren 2tik 9ra bitartean, doako emanaldiak izango dira Arrasateko Amaia antzokian eta Eskoriatzan, Ibarraundi museoan. Filmak, dokumentalak, film laburrak eta animaziozko filmak eskainiko dituzte jaialdiaren lehenbiziko ekitaldi honetan.

**ELKARHEZITZEN-EN ESKUTIK**
Elkarhezitzen Lan Taldeak antolatu du jaialdia, Jaurlaritzaren eta Arrasateko eta Eskoriatzako udalen laguntzarekin, besteak beste. Elkarhezitzen garapenerako hezkuntzarako ekimena da, ibarreko gobernuz kanpoko bost erakundek bultzatzen dutena: AMS, Hiruatx, Serso Euskalherria, Mugarik Gabeko Ingeniaritza eta Harreman elkarteak daude proiektuaren atzean.

Jaialdiaren aurretik lehen emanaldia egingo dute astelehenean, hilaren 2an. Alberto Iñurrategiren *Begiz begi* emango dute Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan. Ekainaren 9rako *Paseo* film laburra eta *Madres* filma iragarri dituzte, ordu eta toki berean.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi balkoi eta trastelekua. Garajearekin. 687 11 07 21.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38

**Arrasate.** Otalora Lizentziadunan duplexa salgai. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta 20 metro koadroko terraza. 13 urteko eraikina. 696 79 43 89

**Bergara.** 75 metro koadro. Bigarren solairua. Hiru logela, trastelekua eta arropak esegitzekoa. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkalekurekin. Eguzkitsua eta leku lasaian. Berritua eta egoera onean. 216.000 euro. 943 76 07 50.

**Bergara.** 80 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena kanpoaldera. Berogailua eta igogailuarekin. Deitu 652 76 86 68 telefono zenbakira.

**Bergara.** Basalgo auzoan baserria salgai, lursailekin. Deitu 610 73 65 40 edo 943 76 19 28 telefono zenbakietara

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

**Oñati.** 68 metro koadroko etxebizitza salgai herri erdian. Bi logela,sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. Terraza, garajea eta ganbara. Guztiz jantzia. 608 34 85 23

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua argipatioan. Igogailuarekin. Leku lasaian kokatua. 652 70 12 49

**Oñati.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai Moyua kalean. Hiru logela, ganbara, sukaldea, egongela eta komuna. Berritua. 228.384 euro. 655 90 97 72

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagarriak. Deitu 625 71 41 39 telefonora.

**Oñati.** Sukaldea, hiru logela, bainugela eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua. Guztiz berritua. Deitu 665 72 87 89 edo 657 72 25 70 zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**El Puerto de Santa Maria (Cadiz).** Bi logelako apartamentu berria ematen da errentan udarako. Valdelagraman. 70 m2. Bi terraza (bat handia). Hondartzako bigarren ilaran. 605 43 29 31.

**Granadako Alpujarran** natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxea errentan. Terraza handia ikuspegi ederraz. Prezio interesgarria. Argazkiak: *www.blogak.com/losmonteros*. Harremanetarako *jasonemendizabal@euskalnet.net* edo 943 79 42 33.

**Jaca.** Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa, bi igerilekurekin (nagusia eta umeentzat) eta bi tenis pistarekin. Inguruan umeendako jolastokia. 665 73 95 65.

**Peñiscola (Castello).** Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. Deitu 948 41 00 79 edo 616 95 04 00 telefonora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate,** Eskoriatza edo Aretxabaletan etxe txikia errentan hartuko luke neska batek. 635 12 87 82.

**Arrasate.** Etxebizitza behar da errentan Arrasaten irailetik aurrera, hiru lagunentzako. Deitu 665 73 12 05 edo 669 85 87 78 telefono zenbakira.

**Arrasate** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. Deitu 657 72 84 12 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko luke familia batek. Lehenbailehen. Deitu 647 10 58 85 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko genuke errentan familia batendako. Deitu 650 62 12 94 edo 685 70 76 25 telefonora.

**Bikote gaztea** etxebizitza errentan hartzeko prest. Bergara, Antzuola, Soraluze edo Osintxun. Deitu 663 46 93 60 edo 660 47 58 58 telefonora.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Presazkoa da. Deitu 617 88 20 93 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxea osatzeko. 688 62 71 30.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai kalean. 627 90 74 48.

**Bergara.** Garaje itxia errentan Boni Laskurain plazan. Auto bat edo birentzat. 677 91 68 38.

**ARRASATE**

**Amets tabernan zerbitzaria behar da. Euskara beharrezkoa. 943 77 09 23 Belen / Miguel**

**ARETXABALETA**

**Aste bukaeratan lan egiteko zerbitzaria behar da. 647 05 42 75**

**ARETXABALETA**

**Jatetxeak sukalde laguntzailea behar du. 662 13 27 55**

**ARAMAIO**

**Asteburuetarako zerbitzaria behar da jatetxe batean. 690 85 52 25**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da etxean garbiketa lanak egiteko. Egunean bi ordu. 649 66 49 85.

**Leintz Gatzaga.** Pertsona bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoa ezinbestekoa. 607 49 83 50.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaintzeko. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Arrasate.** Neska gertu ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. 669 95 05 97.

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea gertu. 943 08 12 80.

**Bergara.** Bikotea gertu goizez tabernak edo elkarteak garbitzeko. Deitu 650 62 12 94 edo 685 70 76 25 telefonora.

**Bergara.** Emakume esperientziadunak adineko pertsonak zainduko lituzke. Orduka zein etxean bertan bizi izanda. 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 664 74 82 97.

**Debagoiena.** Emakume gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest, baita etxeak edo lokalak garbitzeko. Deitu 646 56 80 22 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. 14:00etatik 21:00etara bitartean. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo bertan lo egiteko gertu nago. 679 13 74 19.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo umeak zein nagusiak zainduko nituzke. Zerbitzari ere lan egiteko prest nago. Deitu 646 56 80 22 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaindu edo garbitasun zein tabernatan lan egiteko. Astelehenetik egubakoitzera. 636 05 36 18.

**Debagoiena.** Neska gaztea lanerako prest. Esperientzia dut zerbitzari eta garbitzaile lanetan. 650 59 93 91.

**Debagoiena.** Paperak dituen esperientziadun emakumea lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin, plantxa egin, josi edo gauetan gaixoak zainduko lituzke. 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Sukaldean eta zerbitzari lanetan izan ezik, beste edozein lanetarako gertu. 14:00etatik 21:00etara bitartean. Deitu 618 82 02 41 telefono zenbakira.

**Hortz** protesigilea gertu Debagoienean lan egiteko. Deitu 635 74 34 55 telefonora.

**Neska** gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 661 06 07 23.

**Sukalde** laguntzaile lanak egiteko gertu tituludun emakumea. Maitegatik galdetu. 696 88 93 73.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** First titulua duen ingeles irakaslea behar dut. Deitu 943 76 40 54 telefonora.

**Debagoiena.** Inteligentzia artifizialeko eskola partikularrak hartuko nituzke udan. Deitu 652 70 49 10 telefonora.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Sea Dinghy 2, 2.8 JTDI. 2002koa. 125 ZP, aire girotua, toldoa, bizikletak eramatekoa (3), literak. Sei bidaiarirentzat. IAT 2008ko apirilean. Bateria eta gurpil berriak. 92.000 km. 24.000 euro. 605 70 45 50.

**BMW R 850 R** motorra salgai. Hiru maletarekin, ABS, pantaila eta esku babesleak. 44.000 km. 6.000 euro. 688 62 00 04.

**Karabana** salgai. Roller Aloha 410 D. 3.000 euro, negoziagarriak. 943 78 16 88.

**DEBAGOIENA**

**Autokarabana berria errentan ematen da. 943 71 25 30**

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. 678 72 75 72.

**Pointer** arrazako txakurrak salgai. Lau hilabetekoak. Deitu 615 73 58 38 zenbakira.

**Setter** arrazako txakurkumea salgai. Jaio berria. Ekain erdialdean emateko. 635 20 18 56.

### 703. EMAN

**Katakumeak** oparitzen ditut. 943 78 05 13.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Apalategi metalikoak** salgai. 100x60 neurrikoak. 943 76 11 21

**Autorako bozgorailuak** salgai. 50 euro. 617 13 17 51

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72

**Baxu elektrikoa** salgai. ESP LTD TA 600Tom Araya. Beltza. Ia berria. Funda eta guzti. 650 euro. Jon. 609 41 78 97

**Bikientzako motxila** salgai. Weego Twin modeloa. Oso ondo dago. Lehen egunetik 6 hilabete bete dituzten artean ibiltzekoa. Edozein lekutan lasai asko ibiltzeko. 619 92 91 18

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51

**Errepideko bizikleta** salgai. Egoera onean eta oso merke. 120 euro. Iñigo. 656 78 17 28

**Errepideko bizikleta** salgai. Gutxi erabilia. Emakume edo gaztetxoentzat egokia (tamainaz ertaina). 635 71 80 28

**Eskusoinu** handia salgai. Tekladuna. Oso egoera onean. Kutxa barne. Prezio onean. Aukera ona euskal kulturara hurbiltzeko. 658 10 29 35

**Garajeko atea** salgai. Erabili gabe. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 metro. Gaineko finkoa: 0,50 metro. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. Deitu 605 75 96 11 zenbakira.

**Gitarra.** Mosrite gitarraren kopia, Dillionek egindakoa. Edizio mugatua, kolore zuria. Estatu Batuetan erosi berria. 400 euro, negoziagarriak. 607 21 19 69

**Ilerako plantxak.** Ile apaindegian erositako Gamma Profesional ilerako plantxak salgai. Gutxi erabilita. 645 72 58 41

**Karabina** automatikoa salgai. 22 kalibrea. Ia berria. Deitu 943 76 56 94 telefonora.

**Karro-denda** salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. 1.100 euro. Deitu 615 72 47 43 telefonora.

**MP4a** salgai. Oso gutxi erabilia. Deitu 945 44 52 96 telefono zenbakira.

**Mahai obalatua** salgai. 136x92 cm, luzagarriarekin. Asier. Deitu 617 17 15 88 zenbakira.

**Mahaiak eta aulkiak.** Bergaran, zortzi mahai, aluminiozko 42 aulki eta publizitaterik gabeko eguzkitako bi salgai. Prezioa adosteko aukera. 650 80 80 39

**Orbea Arin bizikleta** salgai. 2005ekoa. Euskaltel-Euskadi taldekoaren erreplika. Dura-Ace taldearekin. 54 neurrikoa. 1.700 euro. 656 76 89 44

**Samsung telebista** salgai. 29 hazbetekoa. Bost hilabete ditu. Oso egoera onean. 618 17 30 87

### 807. AURKITU

**Zapatak.** Txarolezko zapatatxo bat agertu da INEMeko bulegoan. Maiatzaren 8an galdu zen. Pasatu INEMetik. 943 79 71 45.

**Giltza.** Citroen markako autoaren giltza bat aurkitu da Bergarako Zubiaurre kalean. Giltzaren jabea Martoko kaleko Mirari jantzi dendara joan daiteke hura hartzera. Deitu 635 25 54 44 telefono zenbakira.

## ETXE AGENTZIEN ATALA

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 $m^2$. Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 $m^2$. Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 $m^2$. Oso ondo.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Zubieta 75 $m^2$. Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80$m^2$. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Fraiskozuri 102 $m^2$. Bi balkoi.
- Ibargarai 106 $m^2$. Duplexa.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 $m^2$. Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 $m^2$. Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi. Etxe onak.
- Etxe berriak 178 $m^2$. Duplexak eta adosatuak.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Bifamiliarra. Berria.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 $m^2$. Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 $m^2$. Eguzkitsua. Erdi berritua.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 $m^2$, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 $m^2$, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 $m^2$, ia berria.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka, 89 $m^2$, oso ondo eta garajea.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Madura, Masterreka, Zubiaurre eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Rekalde, 100 $m^2$, oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**

**Euskara irakaslea eta lan poltsa**
Bergarako Udal Euskaltegiak euskara irakasle bat kontratatu eta lan poltsa osatu behar du lehiaketa-oposizio bidez.

**Lehiakideen baldintzak**
- Irakasle agiria edo unibertsitateko diplomatura.
- 4. hizkuntz eskakizuna. Titulua izan ezean, proba egiteko aukera egongo da.

**Instantziak**
Instantziak aurkezteko epea 2008ko ekainaren 11n, eguerdiko 12:30ean, bukatuko da.

**Oinarriak**
Udal Euskaltegian (Zabalotegi, 13). 2008-05-22ko GAOn.
*www.udaleuskaltegiak.net*

**Informazioa**
943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

**LAIXAN Euskera Elkarteak behar du**
**T e k n i k a r i a**

Laixan

**Eskakizunak:**
- Harremanetarako gaitasuna.
- Bulego lanak euskaraz egiteko gaitasuna.
- Informatikako jakintza, erabiltzaile mailan.

**Eskaintzen du:**
- Egun erdiko lana
- Urte bukaera arteko kontratua

**Epea:** 2008-V-31
**Argibideak:**
Tel.: 943 71 63 11 edo 695 73 69 61.
*laixan@laixan.org*
**Bidali curriculuma:**
LAIXAN Euskera Elkartea,
Bidebarrieta 18 behea. 20560. Oñati.



**Andoni Guenetxea** aretxabaletarra eta **Ainhoa Irizar** oñatiarra hilaren 31n, ezkonduko dira Arkarazoko San Millan elizan. Ospakizuna Gure Ametsa jatetxean egingo dute, eta bidaian Kanadara joango dira. Zorionak guztien partetik, bikote!



**Gorka Navajo** *ziorlarra* eta **Ainara Marquez** bergararra maiatzaren 31n ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Bazkaria Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egingo dute eta ondoren Mexikora joango dira bidaian. Zorionak eta ondo pasa, familia eta lagunen partetik!



**Kontxita** eta **Jose Mari** Eskoriatzan ezkondu ziren 1958ko maiatzaren 27an. Urrezko ezteiak ospatuko dituzten honetan, muxu handi bana. Familiaren partetik, zorionak, bikote, eta besarkada handi bat. Jarraitu orain arte bezalako zoriontsu!

## hildakoak

- **Juan Carlos Gil Vaca.** Arrasaten, maiatzaren 23an. 44 urte.
- **Felix Iraola Otadui.** Arrasaten, maiatzaren 24an. 94 urte.
- **Sebastiana Untzueta Idigoras.** Arrasaten, maiatzaren 25ean. 97 urte.
- **Jesus Gonzalez Mondragon.** Arrasaten, maiatzaren 25ean. 82 urte.
- **Joxepa Otadui Ezpeleta.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 90 urte.
- **Faustino Uribarren Azkoaga.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 84 urte.
- **Iñaki Alkorta Mantzisidor.** Antzuolan, maiatzaren 27an. 46 urte.
- **Esteban Mondragon Altuna.** Arrasaten, maiatzaren 27an. 89 urte.
- **Miguel Mendieta Madinabeitia.** Arrasaten, maiatzaren 28an. 81 urte.
- **Angel Uribe Orobengoa.** Eskoriatzan, maiatzaren 28an. 80 urte.



Bergarako **Andoni Rodríguez** eta **Tzeitel Martin** maiatzaren 31n ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Bidaian New Yorkera eta Maia Erriberara joango dira. Zorionak, ondo pasa eta muxu bana gurasoak eta anaia-arrebak.



**Paco Lazkano** eta **Begoña Iturralde** senar-emazte bergararrek 50 urte beteko dituzte ezkonduta. Ospatzeko, San Pedro elizan meza izango dute bihar, maiatzaren 31n. Zorionak bikote, eta beste horrenbeste izan daitezela! Etxekoak.


# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22 **Elgeta** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**






**Juan Aiastui** eta **M. Angeles Arana** oñatiarrak maiatzaren 31n ezkondu ziren orain dela 50 urte. Bihar, zapatua, ospatuko dute denok batera. Zorionak, bihotz-bihotzez, familia guztiaren partetik eta jarraitu zoriontsu izaten!



Bihar, maiatzaren 31n **Maria Teresa Etxaniz** eta **Honorio Sampietro** bergararrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Familia guztiarekin ospatuko dute hain egun berezia. Seme-alaba eta biloba guztien partetik, zorionak eta urte askotarako!

OROIGARRIA

## Iñaki Alkorta Manzisidor

2008ko maiatzaren 27an hil zen.

ANTZUOLAKO HERRI ESKOLAk
bat egiten du senideen saminarekin.

ANTZUOLA HERRI ESKOLA

Antzuolan, 2008ko maiatzaren 30ean.

OROIGARRIA

## Iñaki Alkorta Manzisidor

2008ko maiatzaren 27an hil zen.

Urte luzez herriaren alde
lanean, adiskidetasunean,
beti umore onean
Esker onez



Antzuolako Udal Korporazioa
Antzuolan, 2008ko maiatzaren 30ean.

OROIGARRIA

## Iñaki Alkorta Manzisidor

2008ko maiatzaren 27an hil zen.

*...eta zerua*
*irriz margotzea*
*lortu duzu*
—
Mila esker zutaz gozatzeko
aukera eman diguzulako
Aupa Iñaki.



Antzuolako Udaletxeko lankideak
Antzuolan, 2008ko maiatzaren 30ean.


Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Berritsua / Kolomak | | Nafarroako herria / * Irudiko hiriburua | | Gauzak, gaiak / Artegako biztanle | |
| | | | | | | | | |
| | | | Gure planeta / Ontziaren albo | | | | | |
| Jakintza mota / Mila , mila eta mila | | Beldurti / 51 | | | | | | |
| | | | | | | Bizkaiko herria / Iodoa | | |
| Mirakuluak / Musika nota | | | | | | | | |
| | | Baita / H2O | | | | Kontso-nantea / Errep., gorotza | | Modu atzizkia |
| Pl., hegazti mota / Sobera | | | | | | | | |
| | | | Ate-inguru | | | | | |

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | | 5 | | 7 | 1 | | | 3 |
| 9 | 6 | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 6 | | | 2 | 3 | | 5 | | |
| | 4 | 9 | | | | 6 | 3 | |
| | | 1 | | 6 | 8 | | | 7 |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | 8 | 4 |
| 3 | | | 5 | 9 | | 2 | | 1 |

## hieroglifoa

Noiz hasten da lanean?

TAST

## hizki salda

6 arrainen izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | L | E | G | A | T | Z | A | M |
| B | E | R | A | T | E | I | M | A |
| B | I | T | Z | U | O | Z | U | R |
| P | E | X | M | L | P | O | R | R |
| E | P | R | I | D | T | K | E | A |
| Z | E | I | D | G | O | I | X | Z |
| N | I | T | M | E | U | N | N | O |
| B | A | K | A | I | L | A | O | A |
| A | X | I | P | T | P | A | T | Z |

## soluzioak



**Jerogilifikoa:** Astelehenean.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 2 | 5 | 6 | 7 | 1 | 8 | 9 | 3 |
| 9 | 6 | 7 | 3 | 8 | 2 | 1 | 4 | 5 |
| 8 | 1 | 3 | 4 | 5 | 9 | 7 | 6 | 2 |
| 6 | 7 | 8 | 2 | 3 | 4 | 5 | 1 | 9 |
| 2 | 4 | 9 | 7 | 1 | 5 | 6 | 3 | 8 |
| 5 | 3 | 1 | 9 | 6 | 8 | 4 | 2 | 7 |
| 1 | 9 | 2 | 8 | 4 | 7 | 3 | 5 | 6 |
| 7 | 5 | 6 | 1 | 2 | 3 | 9 | 8 | 4 |
| 3 | 8 | 4 | 5 | 9 | 6 | 2 | 7 | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | K | ■ | B | ■ | E |
| | | | H | A | B | E | A | K |
| | | | ■ | L | U | R | R | A |
| ■ | K | ■ | K | A | K | A | T | I |
| M | I | L | A | K | A | ■ | E | A |
| ■ | M | I | R | A | R | I | A | K |
| S | I | ■ | E | R | E | ■ | G | ■ |
| ■ | K | U | L | I | S | K | A | K |
| L | A | R | ■ | A | T | A | R | I |


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | L | E | G | A | T | Z | A | M |
| B | E | R | A | T | E | I | M | A |
| B | I | T | Z | U | O | Z | U | R |
| P | E | X | M | L | P | O | R | R |
| E | P | R | I | D | T | K | E | A |
| Z | E | I | D | G | O | I | X | Z |
| N | I | T | M | E | U | N | N | O |
| B | A | K | A | I | L | A | O | A |
| A | X | I | P | T | P | A | T | Z |


## bono fotoa



**Nola du izena Aizkorriko mendilerroan kokatuta dagoen mendi horrek?**

**Argazkia eta galdera** > Imanol Soriano

Super BM IFA

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..............................................

..............................................

IZEN-DEITURAK..............................................
TELEFONOA ..............................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Calvo atun argia**
80 g-ko 3ko paka

**1,75 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Arrasateko **MIKEL TELLERIA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena:**
**Orkatzategi, Andarto, Kurtzebarri eta Mugarriluze.**


UDESIGN-SHOP.COM
Juan Carlos Guerra Plaza – Arrasate – 902 540 071
Dekorazioa
Proiektuak
Erreformak
Erraztasunak ordaintzerako orduan
Bisita ezazu gure webgunea
www.udesign-shop.com
ibai-arte

GOIENKARIA
2008ko maiatzaren 30a

**Julen Kortabarria** > Dantzaria eta triatleta

# "Dantzan jarraituko dut inori bidea ixten ez diodan artean, ahal dela, kapitain"

Askok dantzarien kapitain moduan ezagutzen duten oñatiko gazte hau aurrez futbolari moduan ezagutu zuten, hamar urtez jokatu zuen-eta Aloña Mendi taldean, atezain postuan. Futbola utzi arren, kirola ez du baztertu eta triatloi taldeko kide da. Lagun artean parranda egitea ere oso gustuko du eta, irekia izanik, lagun asko dauzka herrian.

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

**Gorpuzti jaietako biharamuna eta nekea oraindik aldean dituela egin dugu berba Julen Kortabarriarekin. Parrandaren arrastoak albo batera utzi eta kirola egitera joan da elkarrizketaren ostean. Dantza eta kirola dira haren zaletasun handienak.**



**Dantzarien kapitaina zara. Gorpuztiak pasa berri dira. Esanahi berezia dute zuretzat?**

Bai, kapitain izateak nolabaiteko ardura dakar, are gehiago Oñatin, Gorpuztiko prozesioak duen garrantziarengatik. Begiak beti joaten dira kapitainaren aldera. Hala ere, taldean inor berria badago, jendea segituan konturatzen da eta hari ere begiratzen dio. Nik hamar urte daramatzat Gorpuztietan dantzan eta lau urtez kapitain, eta jendea ni ikustera ohituta dago. Baina dantza taldean bat gehiago naiz, inguruko beste dantzarien balio edo maila bera dut. Prozesioan nondik nora ibili, noiz dantza egin… esaten dut. Gainontzean, urteko ekintzetan, erabakietan, denok dugu pisu bera.

**Oñatin badago dantzarako zaletasuna. Eta inguruan?**

Ibarreko Dantzari Eguna egiten dugunean nahiko monotonoa da, nahiz eta orain saiatzen garen dantza berriak egiten. Ez da erraza bost taldek dantza berriak ikastea eta denok egiteko modukoak izatea. Bestalde, gurean ez, baina beste batzuek badirudi jende aldetik nahiko arazo dutela taldeak osatzeko. Oñatin Gorpuztiek badute eragina taldea mantentzeko, baita taldeko giroak ere. Dantzan ez ezik, bidaiak egiten ditugu, afariak… Sekula ez zaie itxi bidea gazteei; konpetentzia egon badago, baina aukera denoi ematen zaigu.

**Nondik datorkizu zaletasuna?**

Umetan hasi nintzen, baina hamar urterekin utzi nuen, aspertuta. Talde polita osatzen genuen eta ondo konpontzen ginen, eta kasualitatez 14-15 urterekin futbolean bat egin genuen talde horretako jende askok. Dantza taldeko arduraduna gurekin harremanetan jarri zen eta esan zigun mutil faltan zeudela eta ea prest egongo ginatekeen dantzan hasteko. Bederatzi mutil hasi ginen eta pixkanaka giroan sartu eta lotu egin ninduen dantzak. Beti izan dut gustuko dantza eta ingurukoak hasi zirenean berriz ekin nion, eta gaur arte jarraitu dut, gustura.







IRATI AGIRREAZALDEGI

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Mekanizazio Bidezko Produkzioko eta Erregulazio eta Kontrol Sistemetako goi mailako zikloak. **Dantza bat?** Luzaideko dantzak. **Futbolari bat?** Luis Arkonada, ni neu Aloña Mendiko atezain izandakoa naiz-eta. **Gorroto duzun zerbait?** Gazta. **Miresten duzuna?** Inor ere ez. **Bidaia bat nora?** Alaskara. **Parranda bat non?** Oñatin, Errosario biharamunean. **Musika talde bat?** Metallica. **Amets bat?** Etorkizunean baino gehiago, gaur egunean bakarrik pentsatzen dut.

**Jaietan, ekitaldi berezietan… dantza egitera ohituta zaude. Bestela, dantza egin zalea zara?**

Herriko jaietan ez da askorik egiten, baina beti izaten da ospakizunen bat, Inauterietan ere egiten dugu, kanpora ere joaten gara… Euskal dantzetatik aparte ez dakit nik beste dantza askorik, eta nahiko geldia naiz berez, baina egin behar bada egiten dut.

**Noiz arte jarraituko duzu?**

Ez naiz aspertzen dantza egiteaz, giro ona dago taldean eta bidea inori ixten ez diodan bitartean jarraituko dut. Lana dantzarekin ez dut konparatu nahi, baina lanean enkargatu denari ez zaio gustatzen peoi postura bueltatzea; nik ere kapitain jarraitu nahi nuke. Hala ere, inoiz esango balidate beste kapitain batek hasi behar duela eta lagundu egin behar diodala, lagunduko nioke.

**Kirolzalea ere bazara.**

Bai, Oñatiko Triatloi Taldean nago federatuta. Udaberrian duatloietan ibili naiz eta uztailera bitartean triatloiak egingo ditut. Entrenatzen nabil.

**Futbolean jarraitzen duzu?**

Lagunekin jokatzen dut herriko txapelketan, eta kopako finala irabazi dugu. Urtean zehar nahiko gaizki ibili gara, baina ondo amaitu dugu. Talde polita dugu, eta giro ona. Lehen, Aloña Mendin ibili nintzen, baina utzia nuen, eta orain, igerian, korrika eta bizikletan ibiltzen naiz.

**Dantza, kirola, lana… Nondik ateratzen duzu denerako astia?**

Egunak ez ditu 24 ordu baino gehiago eta gorputzak ere ez du horrenbesterako ematen. Parranda asko gustatzen zait, baina horiekin guztiekin ezin da. Hala ere, denboraldia amaitutakoan, Oñatiko jaiak bitartean aprobetxatuko dut parranda egiteko. Oñatin, egoera geografikoak, inguruko herriekin lotura txarrak, bultzatzen du herrian giro ona sortzera, eta jendeak herrian duen antolakuntza gaitasunarekin nahiko gauza izaten da.

**Beste zaletasunik baduzu?**

Arrantzara joatea gustatzen zait, baina aspaldian ez daukat astirik. Mutikotan ehizara joatea ere gustuko nuen, baina beste zaletasunei eman diet lehentasuna. Aitarekin perretxikotara joatea ere gustatzen zait, eta oraindik noiz edo noiz hartzen dut egunen bat horretarako.



Iban Arantzabalek eta Leire Narbaizak Elgetako eta Eibarko euskaran grabatu dute; besteek, batuan. EIBAR.ORG

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > TOM TOM NABIGATZAILEA EUSKARAZ

# GPS nabigatzailerako ahots berriak grabatu dituzte euskaraz

Eibar.org elkarteko lantalde batek grabatu ditu ahotsak eta lau izango dira aukeran; horiek jarraituz autoak errepidean barrena euskaraz eramango du gidaria

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ESKORIATZA

Eibar.org elkarteak autorako TomTom GPS nabigatzailearen sistema euskaratu du. Elkarteko kide batzuek auzolanean egindako lanari esker lortutako emaitza da hori. Lau ahots ditu aukeran, ibilgailuko aparailuan gehitzeko eta autoak errepidean barrena euskaraz eramango du gidaria.

GPSrako ahots berriak grabatzea nahiko erraza zela ikusita pentsatu zuten euskarazko ahotsak grabatzea. Aurrez Iñaki izeneko norbaitek egindako grabazioa saretik desagertuta zegoenez Eibar.org elkarteko lantalde batek egin zituen grabazio berriak apirilean Eibarren, CodeSyntax enpresaren bulegoan. Grabazioaz eta fitxategien moldaketaz Jatsu Argarate eta Gari Araolaza arduratu dira eta diseinu grafikoaz Zaloa Etxaniz.

**BATUAN ETA HERRI HIZKERAN**

Euskarazko testuen moldaketa lau hizlariek modu bateratuan egin duten arren, bakoitzak bere izaera propioa eman nahi izan dio. Luis Aranberri *Amatiño*-k eta Mikel Iturria *Iturri*-k euskara batuan egin dute, eta Iban Arantzabalek eta Leire Narbaizak Elgetako eta Eibarko euskaran.

**INSTALATZEKO PAUSOAK**

Berez, TomTom markako GPSentzat balio dute ahots fitxategiek, baina badago modua beste gailu batzuetan ezartzeko, eta Supratech Dedalo modelo batean egin dute jadanik.

TomTom-ean, ahots fitxategiak kargatzeko, honako pausoak jarraitu behar dira: ZIP formatuan konprimatutako nahi den ahots fitxategia deskargatu; ZIP formatuko fitxategi hori erauzi eta barnean hiru fitxategi aurkituko ditugu, .chk, .bmp eta .vif luzapenekin; TomTom-a USB bidez ordenagailura lotu eta barruan *voices* karpeta bilatu; erauzitako hiru fitxategiak *voices* karpetan kopiatu; eta deskonektatu GPSa ordenagailutik, piztu eta aukeratu ahots berria.

Interesatuek helbide honetara behar dute instalazioa egiteko: *eibar.org/materixala/gps.*

## teknologia berriak

> TELEFONOA

### Ordularia eta eskuko telefonoa biak batean ditu soinean eramateko moduko aparailuak

Bere baitan telefonoa duten ordulariak ez dira aparailu gomendagarriak izaten gehienetan. Ez hardware edo bateragarritasun arazoengatik, soinean eramango duen inor aurkitzea zaila delako baizik. Baina CECT ordularia eramangarritasunaren muga-mugan dagoela esan daiteke.

Erlojuak dauka GSM konexioa, 1,3 hazbeteko koloretako LCD pantaila, 1,3 megapixeleko kamera, esku libreko telefonoarendako euskarria.

Salneurria: 186 euro.



Telefono-ordulariak 150 minutuko elkarrizketarako baliagarria den bateria dauka.

> ARGAZKIAK

### Telefunken etxeak So You argazki marko digital merkeak kaleratu ditu

Telefunken etxeko So You marko digitalen ezaugarriena euren salneurri merkea da.

Argazki markoek 3,5 hazbeteko pantaila dute eta baita 320 x 240 pixeleko bereizmena ere. SD/MMC txartelen irakurgailua du barneratuta eta USB bidez karga daiteke, horrela, markoari bi orduko autonomia ematen dio daukan bateriarekin. Aparailu txikia da 9,5 x 7,5 x 1 zm neurtzen ditu; bidaian eramateko aproposa.

Salneurria: 60 euro.



Merkea izan arren trantsizio efektuak eta gainazal belusatua ditu.

> BIDEOA

### Youtubera zuzenean bideoak igotzeko aukera eskainiko du JVC etxeko kamera berriak

JVC etxeko Everio MS1000 bideo kamerak grabatutakoa zuzenean Youtube-ra igotzeko aukera ematen du ordenagailu edo softwarerik barik, WiFi konexioarekin. Nahikoa da botoi bat zapaltzea baina grabazioa egin bitartean zapalduz gero Youtubeko bideoen iraupen muga gainditzean gelditu egingo da berez. Espainian ekainaren 9an merkaturatuko dute aparailu txiki eta arin hori. 35x-eko zoom optiko eta 2,7 hazbeteko pantaila ditu.

Salneurria: 350 euro.




Bideo kamerak memoria txartelak erabiltzen ditu, hortaz, nahi beste handitu genezake edukiera

zahaRRak BERRI

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:
EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean



NOIZ: Ekainak 4 eta 5

ERREPORTAJEA: Oñatikoerretiratuen asteko ekintzak.

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

Zure intereseko **elkarrizketak**, **erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu GOITBn

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Babeslea:
kutxa URREZKO ZERBITZUA

## berriak

> 'ZAHARRAK BERRI'

### Pake Lekuko aste kulturala eta dietistaren aholkuak

Datorren eguaztenean *Zaharrak berri* saioko tarte handiena hartuko du Oñatiko erretiratuen elkarte Pake Lekuko aste kulturalak. Hala, erretiratuek astean egin dituzten ekintzak jasoko dituzte. Horretaz gain, astero moduan, Amaia Diaz de Monasteriogurren dietistak elikaduraren gainean emango dituen aholkuak ere entzungo dituzue. Hori eta beste hainbat gauza eguaztenean, 20:15ean.

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'

### Gerra garaia eta ostea gogoratuko dute gure nagusiek

Gure nagusiek 30eko eta 40ko hamarkadan bizi izan dituzten une latzak gogoratuko dituzte martitzeneko *Zaharrak berri* saioan. Hain zuzen ere, Espainiako gerra garaian eta ondorengoetan bizi izandakoak ekarriko dituzte. Gure nagusiak bizi izandakoaz, garai hartako giroaz, elizaz, politikaz eta beste hainbat kontutaz arituko dira. Hori guztia ikusteko piztu GOITB martitzenean, 22:15ean.

> ARRASATE IRRATIA

### Sanjuanak eta biharamuneko pilula, datorren astean

Sanjuanen oihartzuna geroago eta handiagoa da; besteak beste, herritar ugari dabilelako herriko jai nagusien prestaketa lanak egiten. Irratian ere jarraipena egin eta jaietan protagonista izango direnetako batzuk aurkeztuko dituzte. Horrekin batera, biharamuneko pilula berbagai izango dute sexologiari dagokion eguneko tartean, Larraitz Arando Udaleko Sexologia Zerbitzuko arduradunaren eskutik.

> ARRASATE IRRATIA

### Udari begira jolasak oparituko dituzte Arrasate Irratian

Udan aisialdirako asti luzeagoa egoten dela kontuan hartuta, datorren astean Txatxilipurdi elkartearen *Salamalekum Euskal Herrira* izeneko jolasa zozkatuko dute irratiko lankideek entzuleen artean. Etxeko guztien artean jolasteko moduko jolasa da, 5 urtetik gorakoen artean. Parte hartzeko hiru bide daude: 943 25 05 05 zenbakira deituta edo mezua bidalita *irratia@goiena.com* helbidera edo *goiena.net* webguneko irratiko blogera.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Arantxa Gurmendi aktorea izango da 'Ilunpean' saioan

Antzerkigintzan eta musikagintzan ekarpen garrantzitsuak egin ditu 'Goenkale'-ko aktore Arantxa Gurmendik

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Horrenbeste urtean ETBko telesail famatuena izan den *Goenkale*-n egin zen ezagun Arantxa Gurmendi; hain zuzen ere, telesail horretako Hortentxi pertsonaiari eman dio bizitza urtetan zehar. Horren aurretik, baina, euskal kulturgintzari ekarpen handia egin dion emakumea ere bada. Hain zuzen ere, euskal musikagintza eta antzerkigintza jorratu ditu 60ko hamarkada ezkero. Jarrai antzerki taldeko kide, Ez Dok Amairuren sortzaileetariko bat izan zen. Horren guztiaren gainean jardungo dute *Ilunpean* saioan, gaur, 22:15ean.



Arantxa Gurmendi Goenkalen egin zen ezagun. GOIENKARIA

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENA, 21:47

# Aretxabaletako kaleak erreka bihurtu zireneko erreportajea GOITBn

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Joan den domekan Aretxabaletan gertatutakoa jasoko du datorren asteleheneko erreportajean Julen Iriondo kazetariak.

Hain zuzen ere, bota zuen zaparradaren ondorioz, Durana kale azpitik pasatzen den errekan aurrez pilatutako zikinkeriak ekarri zuen estoldek gainez egitea. Zikinkeria horrek uraren bidea oztopatu zuelako eragin zuen ura mailaz igotzea eta ondorioz kaleak erreka bihurtzea. Horrek, kaleak urpetzeaz gain, hainbat komertzio eta garaje ere kaltetu zituen, ura barruraino sartu zen-eta. Herrian hainbat kalte material eragin zituzten uholdeek, nahiz eta balorazioak egiteke dauden oraindik.

Asteleheneko erreportajean, hurrengo egunetako garbiketa lanak erakusteaz gain, Iriondok herritarren eta merkatarien hitzak ere jaso ditu. Bertatik bertara, beraz, Aretxabaletako estolderia ezagutzeko aukera izango duzue, beste hainbat konturekin baera,esandako moduan, datorren astelehenean, GOITBn, 21:47an.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

## Bitik bat

Apustuetako bat galdu egin nuen, bestea ez. Chikilicuatre lehen bosten artean egotea eta telebista ikusleen artean, bitik bat Eurovisionera begira egotea, ziren jokoan jarri genituenak.

Kanta lehiaketa hasi orduko konturatu nintzen aurtengo edizioan Chikilicuatre asko zeundela, herrialde askotakoak zirela ridikulu samarrak eta espainiarrak ez zuela inondik ere destakatzen, ez originaltasunean ezta kantatzeko edo dantzatzeko moduan ere. Chikilicuatre gehiegi, kantari eta aurkezle lanetan ere. Beraz: "Lespañe, en puan" eta "Gris tuelf points" bata bestearen segidan joan ziren.

Uda parteko herrietako jaiak hasi arte, beraz, jai du Chikilik. Hori bai, orduan itzuliko da inoiz baino indartsuago, bereagoa den eremuan jaun eta jabe izatera. Orduan, mundu guztiak erakutsiko du noraino duen gustuko "Uno, el brikindans, dos el krusaito".

Bigarren apustua, esan dudan modura, irabazi egin nuen. Telebistaren aurrean geunden euskaldunetatik erdiak (%49,6) Eurovisionekoa aukeratu zuen. Auzo lotsa ala gure kantari propioa eduki arteko inbidia ote zen. *Perrea, perrea.*

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEK-ko Komunikazio arduraduna; *Ibili munduan* geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano, Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,30**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Euskaldunok hizketan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Korpus eguna 08. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Animalia. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 31**

**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**28klip. **12:30** Euskaldunak hizketan. **13:00** Korpus eguna 08 **13:30** Oñatiko bertsoak. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Erreportajea. **19:30**Ikusten. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Animalia. **21:00**Teknopolis. **21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 1**

**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Erreportajea.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Euskaldunak hizketan. **14:00**Erreportajea.**14:30**Ikusmira. **15:00**Animalia. **15:30**28 klip**16:00**Marrazki bizidunak.**19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** korpus eguna 08. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Oñatiko bertsoak.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 2**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusten. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 3**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Euskaldunok hizketan. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 4**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Euskaldunok hizketan. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Animalia. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. **20:45** Berriak. **21:15** Euskal artzainak. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Euskal artzainak. **22:15**ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **23:45**Gaurkoak.**23.47**Jazzmina.**00:15**Emisio amaiera.

**Eguena, 5**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Euskal artzainak. **14:45**Berriak. **15:15**Euskaldunak hizketan. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta lur. **16:17**Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. 1**8:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Teknopolis. **00:15**Emisio amaiera.

# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA
943 71 45 66 www.hotelazkoagaenea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua




## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79

**Eskaintza**
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Karta
- Aste bukaerako menu bereziak
- Eguneko menuak
- Bi jangela

**Domeka gauean itxita**




## Tartufo jatetxea

San Juan Auzoa 35. Elgetara bidean / BERGARA
943 76 35 51

**Eskaintza**
- Terraza eta parrilla zerbitzua
- Eguneko menua
- Asteburuetan 20€-ko menu berezia, eta gauetan oilasko erreak bertan jan eta eramateko
- Jai pribatuak antolatzen ditugu



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**

# Maiatzak 30-Ekainak 5

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguaztenekoeguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Kontzertua



ARRASATE

**> Flamenko-fusio-rock talde El Puchero del Hortelano 3.60 aretoan izango da**

Andaluziako El Puchero del Hortelano flamenko-fusio taldeak *Harumaki* laugarren diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan. Oraingoz, bi single atera dituzte, *Asuntos serios* eta *Tú eres eso*, harrera onarekin.

## Antzerkia



OÑATI

**> 'Las bodas de Fígaro' antzezlana estreinatuko dute, Amaia Cid oñatiarrarekin**

Ortzai Antzerki Laborategiak *Las bodas de Figaro* antzeztuko du gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Amaia Cid oñatiarra da aktoreetako bat. Sarrerak erosteko aukera dago kultura etxean, 6 eurotan.

## Ospakizuna



DONOSTIA

**> Bergarako musika eskolako banda gazteak Reala animatuko du bihar**

Anoetan batuko dira, 16:45ean; jokalariei ongietorria egingo diete, 29. atean; gero, zelaiari buelta emanez pieza pare bat joko dute; eta partiduan zehar Reala animatuko dute musikarekin. Ume bakoitzeko bi sarrera emango dituzte.

## Musika

ARRASATE

**> Arrasate Musikalek hainbat kontzertu egingo ditu**

Arrasate Musikal eskolako orkestra txikiak eta harizko taldeak kontzertu egingo dute gaur, egubakoitza, zaharren egoitzan, 18:00etan. Ekainaren 3an, martitzena, tronboi, bonbardino eta tuba ikasleen emanaldia egongo da, Iker Olazabalen eta Mikel Markegiren ardurapean, Kulturaten, 18:30ean; ekainaren 5ean, eguena, klarinete eta saxofoi ikasleen txanda izango da, Kulturaten hori ere, 18:30ean; eta, azkenik, ekainaren 6an, egubakoitza, Arrasate Musikaleko orkestra gazteak eta biolin taldeak egingo dute musika emanaldia, parrokian, 20:00etan.

Gaurko kontzertua, zaharren egoitzan, 18:00etan.

OÑATI

**> The Beethoven String Triok Mozarten musika joko du**

Poloniako The Beethoven String Trio taldeak –Anna Przylecka biolin-jolea, Jerzy Wojtysiak biola-jolea, Tomasz Przylecki biolontxelista eta Claudi Arimany flauta-jolea– Mozarten flauta eta sokarako kuartetoen osokoa joko du. Musikegunak egitarauaren barruan dago emanaldi hori.

Sarrerak eros daitezke kultura etxean, 6 eurotan, 10:00-13:00 eta 16:30-20:30 ordutegian.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:30ean hasita.

BERGARA

**> Disko-jartzaileen emanaldiak izango dira Ziripot tabernan**

Gaur, egubakoitza, Kolro (intermusic) vs. Mitximal disko-jartzaileek egingo dute emanaldia; eta bihar, zapatua, Revolutionary Brothers (soundsystem) eta King Konsul disko-jartzaileek.

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

OÑATI

**> The Silent Band-en musika film baten eta zarzuela baten**

Musikegunen barruan, The Silent Band taldearen emanaldia izango da etzi, domeka, Santa Ana antzokian. Buster Keatonen *El maquinista de la general* filmari eta *La revoltosa* zarzuelari musika ipiniko diete.

Etzi, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

OÑATI

**> Malawiren gaineko berriketaldia eta kontzertua**

Malawiko Mzuzu hiritik etorritako Body, Mind & Soul musika taldeko kideek berriketaldia egingo dute Topalekuko gazteekin. Malawiko kulturaz, gazteez eta musikaz hitz egingo dute; eta hilaren 5ean, eguena, kontzertua egingo dute.

Taldeko burua Davie Luhanga da. Taldea Music Crossroads Southern Africa eta Jeunesses Musicales International egitasmoak ezagutarazten lagundu du Europan. Body, Mind & Soul taldeak reggaea, Malawiko musika eta jazzaren eragina jaso du.

Berriketaldia, ekainaren 4an, eguaztena, Topalekuan (gaztelekua), 18:30ean; kontzertua, hilaren 5ean, 20:00etan.

## Lehiaketak

ESKORIATZA

**> Jaietako esaldia aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko**

San Pedroetako esaldi lehiaketa ekainaren 6a arte egingo dute. 13 urtetik gorako eskoriatzar guztiek parte har dezakete, hiru eta bost lagun arteko taldeetan. Gura adina esaldi aurkez ditzake talde bakoitzak, jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko; jaiak, euskara eta gazteak elkartuz; jaiak neurrian ospatzea desiratuz… Esaldiok udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzte posta kutxetan bota behar dira.

Hiru eta bost lagun arteko taldeetan parte hartu behar da.

ARRASATE

**> 10 urte arteko umeendako marrazki lehiaketa, Badabilen**

Badabil dendak marrazki lehiaketa deitu du, eta ekainaren 14a arte egongo da zabalik. Bi maila osatu dituzte: 0-6 urtekoak (txikiak) eta 7-10 urtekoak (juniorrak). A4 formatuko orrietan marrazkiak egin eta dendara eraman beharko dira. Honako sariak daude: txikien mailan, arbel bat eta 30 euroko erosketa txartela; eta, juniorrendako, eskuz egindako zurezko zangomaila pare bat eta 50 euroko erosketa txartela.

Argibideak, Badabil arropa dendan (Arrasate pasealekua, 3).

## Bertsolaritza

OÑATI

**> Oñati eta Zumaiako bertso eskolen desafioa izango da etzi**

Errekalde auzoko jaien barruan, Oñatiko eta Zumaiako bertso eskolek desafioa egingo dute.

Etzi, domeka, Errekalde auzoan, 19:30ean.

## Erakusketak

BERGARA

**> Venezuelako giza-integrazioaren gaineko erakusketa**

Saprendeh-Venezuela eta Aprendeh-Euskadi Gobernuz Kanpoko Erakundeek argazki erakusketa zabalduko dute ekainaren 5ean. Venezuelako Saprendeh erakundea gutxitasun fisikoa edo burukoa dutenei laguntzen die, eta giza-integrazio arloan lan egiten dute. Erakusketa Espoloiko Hamaika tabernan egongo da.

Ekainaren 5ean, eguena, zabalduko dute erakusketa, Hamaika tabernan, 19:00etan.

BERGARA

**> Bergara Hiria lehiaketako argazkiak, erakusketan**

Bergara Hiria argazki lehiaketan jasotako lanekin erakusketa ipini dute Aroztegi aretoan. Bisitatzeko aukera dago ekainaren 1a arte.

Bisita ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan, 12:00-14:00.

ARRASATE

**> Aste Berdearen barruan, jostailuen erakusketa**

Aste Berdearen egitarauaren barruan, Katrakak konpainiak birziklatutako jostailuen erakusketa ipiniko du. Tailerrak eta jolasteko aukera izango da.

Bihar, zapatua, Seber Altuben, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

ARRASATE

**> Kulturateko margo ikasleek erakusketa ipini dute**

Kulturaten pintura ikasten diharduten lagunek erakusketa ipini dute Harresi aretoan, eta bisitatzeko aukera dago ekainaren 1era arte.

Ordutegia: lanegunak, 18:00-20:00; zapatua eta domeka: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

PROPOSAMENA

OÑATI

### > Hainbat ospakizun izango dira aste bukaeran Errekalden

Errekalde auzoko jaien barruan, Latzen taldeak (irudian) kontzertua egingo du gaur, egubakoitza. Horrez gain, garagardo festa (gaur, 20:00etan), Oñatiko taldeen kontzertua (bihar, 20:00etan), mariatxien kontzertua (bihar, 23:45ean), zinema-bikoizketak (bihar), bertso desafioa (etzi, 19:30ean), txorimaloak, sagardo eta txorizo-dastatzea, 4x4 auto trabesia eta beste izango dira.

Kontzertua gaur, egubakoitza, 21:00etan hasita.



OÑATI

**> Korpus prozesioko irudiak erakusketan ipiniko dituzte**

Korpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek. Parrokian izango dira ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30. Bestalde, uztail eta abuztuan, turismo bulegoko bisita gidatuen barruan egongo da erakusketa.

Maiatzaren 31tik urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik.

# Ospakizunak

BERGARA

**> Maiatzeko erromeriak bukatzeko, ekitaldi berezia**

Bihar, zapatua, bukatuko dira maiatzeko erromeriak Bergaran, eta honako ekintzak izango dira: Bergarako trikitilariekin kalejira (18:30-20:00) eta erromeria (20:00-20:30); afaria Munibe plazan (20:30) eta erromeria, Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin (22:30).

Afarian parte hartu nahi dutenek 12 eurotan dute erosgai txartela kultura etxean eta Kortazar tabernan.

Bihar, zapatua, Munibe plazan.

ESKORIATZA

**> Leintz Eskola Kirolaren azken jaia ospatuko dute bihar**

Leintz Eskola Kirolak azken jaia ospatuko du: patinatzaileen topaketa, bizikleta martxa, herri kirolak… izango dira. Gero, 12:00etan, ekitaldi nagusia egingo dute Herriko plazan, eta dominak eta sariak banatuko dituzte.

Bihar, zapatua; ekitaldi nagusia, 12:00etan, plazan.

OÑATI

**> Jaiak ospatuko dituzte etzi, domeka, Koixkarren**

Koixkarreko jaiak ospatuko dituzte. Goizean, meza entzungo dute auzoko ermitan; gero, joan diren guztiek luntxa izango dute, eta trikitilariek emanaldia egingo dute.

Etzi, ekainak 1.

# Bestelakoak

ESKORIATZA

**> Mozambikeko garapenaren gaineko ikus-entzunezkoa**

*Alamitou* ikus-entzunezkoa emango dute, Etiopiako Fitch herrian bizi den Alamitou nerabearen gainean: goizean goiz jaikitzen da eskolara joateko, baina, aurretik, etxeko lanak egin behar ditu. Segidan, mahai-ingurua izango da: *Desarrollo en Mozambique, una apuesta por el género femenino. ¿Es posible?* Bukatzeko, bidezko merkataritzako produktuak emango dituzte.

Elkarhezitzen eta Haurralde erakundeek antolatu dute ekainaren 2rako, Mundumiraren egitarauaren barruan.

Ekainak 2, Ibarraundin, 19:00etan.

# Zinema




## Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal ***

**Zuzendaria:** Steven Spielberg.
**Aktoreak:** Harrison Ford, Cate Blanchett, Shia LaBeouf, Karen Allen.
AEB, 2008.
124 min. Denondako.

Uste dut Indiana Jonesen jarraitzaile sutsuenak ziztu bizian zinemara gerturatuko direla *Indiana Jones y el Reino de la Calavera de Cristal* ikustera. Ia 19 urte pasa badira abenturazalearen azken istoriotik, Spielberg eta George Lucasen heroiak nahiko sasoi onean jarraitzen du. Orain arte ikusleak pozik azaldu badira, ez da beharrezkoa formulari aldaketa nabarmenik egitea. Abenturak, etsaiak, aurkitu nahi duten altxorra edo argitu nahi dituzten enigmak oso antzekoak dira; basoko animaliak, motorrez, autoz edo txalupaz egindako jazarpenak…Osagai horiek guztiak ezagunak egiten zaizkigu. Sagaren jarraitzaileek ez zuten aldaketa gehiegirik onartuko eta, horrela, Spielbergek, aldaketa txiki batzuekin, betiko Jones ekartzen digu.

Komikia, abenturazko film klasikoak (filmatzeko erabilitako teknika batzuk) eta Spielberg eta Lucasen filmen osagaiak garbi agertzen dira. Pertsonaiak nahiko azalekoak dira: trazu gutxirekin, euren itxurak nolakoak diren adierazten digute. Sinesgarritasuna ez da garrantzitsuena, ikusgarritasuna baizik. Gertatzen dena ez da askorik inporta; bai, ordea, gertatutakoa nola azaltzen zaigun. Hau da, urtean zehar badira aurrekontu eta efektu espezialez egindako film pila bat, baina gehienak, talentu gutxirekin. Spielbergek maisutasunez filmatzen daki, badu ikuskizunaren zentzua, eta etekina ateratzen dizkio akzio eszena guztiei. Alde horretatik, filma benetan distiratsua da; baina, istorio eta pertsonaien aldetik, zerbait hutsa.

Spielberg hasierako *En busca del arca perdida*-ra bueltatzen da abenturazalearen sagari bukaera emateko; behintzat, horrela dirudi filma ikusterakoan. Lortutako emaitzarekin, Jonesen jarraitzaileak gustura izango direla pentsatzen dut.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Como la vida misma**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Diario de una niñera**
Domeka: 17:00.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**La familia Savages**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
17:00, 19:45, 22:15.

**Speed racer**
17:30.

**La niebla**
17:30, 20:00, 22:30.

**Antes que el diablo sepa que has muerto**
17:30, 20:00, 22:30.

**La boda de mi novia**
17:30, 20:00, 22:30.

**Fuera de carta**
20:00, 22:30.

**Algo pasa en Las Vegas**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Elegy**
17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
17:30, 20:00, 22:30.

**La antena**
20:00.

**Mil años de oración**
18:00, 20:00, 22:30.

**The dead girl**
18:00, 20:00, 22:30.

**Un poco de chocolate**
18:00, 20:15, 22:30.

**Una chica cortada en dos**
18:00, 20:15, 22:30.

**El último viaje del juez Feng**
18:00, 20:15, 22:30.

**La banda nos visita**
18:00, 22:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
12:15, 16:00, 17:00, 18:30, 19:30, 21:00, 22:00, 23:30, 00:30.

**Dueños de la calle**
18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**La niebla**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Speed racer**
12:15, 16:10, 18:40, 21:10, 23:40.

**Sentencia de muerte**
20:35, 22:35, 00:35.

**Algo pasa en Las Vegas**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**La boda de mi novia**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Iron man**
12:15, 16:15, 18:45, 21:15, 23:45.

**88 minutos**
20:25, 22:25, 00:25.

**Una noche para morir**
20:30, 22:15, 00:00.

**La crisis carnívora**
12:15, 16:30, 18:15.

**Como locos... a por el oro**
12:15, 16:15, 18:20.

**Papá por sorpresa**
12:15, 15:45.

**Fuera de carta**
19:45, 22:00, 00:15.

**21: blackjack**
17:45, 20:00, 22:15, 00:40.

**Todos estamos invitados**
12:15, 16:30, 18:30.

**La noche es nuestra**
20:15, 22:30, 00:45.

**Horton (infancia)**
12:15, 16:50, 18:35.

**Las crónicas de Spiderwick**
12:15, 16:00, 17:50.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
16:00, 17:00, 19:00, 20:00, 22:00, 22:35, 00:45.

**Dueños de la calle**
20:25, 22:45, 01:00.

**La niebla**
17:00, 19:30, 22:10, 01:00.

**Speed racer**
16:20, 19:00.

**Sentencia de muerte**
20:20, 22:30, 00:45.

**Algo pasa en Las Vegas**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**La boda de mi novia**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**Iron man**
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

**88 minutos**
20:15, 22:30.

**Una noche para morir**
16:15, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.

**La isla de las almas perdidas**
16:05, 18:10.

**Rudy, el cerdito de carreras**
16:20, 18:20.

**Papá por sorpresa**
16:00, 18:15.

**No tan duro de pelar**
19:45, 22:00.

**Elegy**
22:00.

**Casual day**
20:20, 22:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Harrison Ford, Shia LaBeouf, Cate Blanchett, Karen Allen.
124 min. Denondako.
1957an girotutako abentura honetan, Indiana Jonesek ihes egin die sobietarrei. Etxean bueltan, irakasten duen unibertsitatetik bota nahi dutela jakingo du. Halako baten, gazte abenturazale batek tratu bat proposatzen dio: arazo batetik irteten laguntzen badio, gazteak Akatorreko Kristalezko Burezurra aurkitzen lagunduko dio.

**Antes que el diablo sepa que has muerto** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Sidney Lumet. Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Marisa Tomei, Albert Finney.
123 min. 18 urtetik gorakoendako.
Andy enpresaburua da eta Hank, haren anaia, diru premia larrian daude. Halako baten, gurasoek New Yorken duten bitxitegia lapurtzea erabakitzen dute.

**La duquesa de Langeais** ****
Frantzia-Italia, 2007. Zuzendaria: Jacques Rivette. Aktoreak: Jeanne Balibar, Guillaume Depardieu.
137 min. 7 urtetik gorakoendako.
Armand de Montriveau generala Antoinetterekin maitemintzen da, baina emakumeak sedukzio-joko bat darama aurrera.

**La niebla**
AEB, 2008. Zuzendaria: Frank Darabont. Aktoreak: Thomas Jane, Marcia Gay Harden, Laurie Holden, Andre Braugher.
127 min.
Stephen King idazlearen istorio baten oinarrituta dago. Maineko hirixka baten, ekaitz baten ondoren, behelaino beldurgarri bat agertzen da, eta jendea hiltzen doa.

**La boda de mi novia**
AEB, 2008. Zuzendaria: Paul Welland. Aktoreak: Patrick Dempsey, Michelle Monaghan.
101 min. 13 urtetik gorakoendako.
Tom konturatzen da Hannah lagun minarekin maiteminduta dagoela. Baina Hannah ezkontzera doa, eta Tom bere "ohorezko dama" izan dadin nahi du.

**El último viaje del juez Feng** ***
Txina, 2006. Zuzendaria: Liu Jie. Aktoreak: Li Baotian, Yang Yaning, Lu Yulai.
101 min.
Epaimahai ibiltari bateko epailea da Feng zaharra. Antzinako arau eta tradizioak eta Estatuak nekazarien jakinduriarekin topo egiten duen modua erakusten du filmak.

**Una chica cortada en dos** **
Alemania-Frantzia, 2008. Zuzendaria: Claude Chabrol. Aktoreak: Ludivine Sagnier, Benoît Magimel.
115 min. 13 urtetik gorakoendako.
Arrakasta bila doan neska bat idazle batekin maitemintzen da, baina gazte dirudun batekin ezkontzen da.

**nire aukera**



Bibi Andueza
Bubisher Elkarteko kidea
Bergara

## "Bidaiatzea asko gustatzen zait"

Zapatu goizetan, normalean, lana edukitzen dut; orain ezkontza asko daude eta, sarri, berandu amaitzen dira, beraz, arratsaldeko laurak arte argazki kamerarekin ibiltzen naiz. Arratsaldea libre dudanean, futbolera joaten naiz. Semea igoera fasean jokatzen dabil, eta partiduak ikustea gustatzen zait. Domekan, ortuan egoteko edo mendira joateko ohitura dut, baina, azkenaldian, gutxi joaten naiz.

Orain, herri inguruan ematen ditugu asteburuak, baina, eguraldia hobetzen denean, furgoneta hartu eta kanpora joango gara asteburua pasatzera.

**Zure zaletasun handiena bidaiatzea da?**
Bidaiatzea asko gustatzen zait, bai. Furgonetarekin, Maroko zeharkatu dugu birritan, Korsikan eta Kroazian egon gara, Atlasetan...

**Saharan ere askotan egon zara.**
Bai, bost-sei bider egon naiz hantxe. Urtean egiten diren bi bidaiak aprobetxatuz, haraino hurbildu nintzen.

**Saharatik ekarri duzun oroitzapenen bat...**
Lurralde pobrean bizi arren, fisikoki oso gogorrak dira. Menpeko herri bat da, eta tristura handia sortzen du horrek.

**Sahara bisitatu nahi duenak zer egin behar du?**
Gurekin edo Fronte Polisarioarekin kontaktuan jarri behar da. Gero, Fronteak han egoteko familia bat aurkituko dio. Norbera bere kabuz ere joan daiteke Aljeriatik, baina gomendagarriena Frontearen baimenarekin joatea da.

**Zure bidaiei buruz aritu gara. Bestelako zaletasunik baduzu?**
Ortuan ibiltzea gustatzen zait, eta bertan pasatzen ditut arratsalde asko. Argazkigintza ere gustuko dut; bidaietan, ez dut kamera lagatzen etxean. Paseatzen ere primeran pasatzen dut.

**Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-05-30

# Latzenekin 'Hellmuga'-raino

**ZUZENEKOA** Eskoriatzan otsailean egindako kontzertuko irudiak eta soinua osorik jaso dituzte DVDan

**DOKUMENTALAK** Bi dokumental eta bi argazki galeria aurkituko ditugu lan horretan irudi zaharrekin eta berriekin

**KONTZERTUAK** Bost aurkezpen emanaldi egingo dituzte: Oñatin, Atarrabian, Bilbon, EHZ jaialdian eta Amoroton

**I. AGIRREAZALDEGI/T. MADINA** > OÑATI
Latzen taldeak *Infernuko ateetan tour* izeneko kontzertu bira egin zuen 2007ko urrian hasita, zortzi urtez jo gabe egin ostean. Otsailean bira amaitu eta asteon aurkeztu du, azken agurrerako opari moduan, *Hellmuga tour* DVD eta CDa.

Lanak material asko jasotzen du: otsailean Eskoriatzan egindako kontzertua osorik; bi dokumental, Latzenen historia jasotzen duena bat eta *Infernuko ateetan* biraren gainekoa bestea; bi argazki galeria argazki zaharrekin eta azken birakoekin; eta Latzenen kontzertu guztien zerrenda. Gutxi gorabehera lau orduko edukia du. "Birarekin eta DVDarekin taldearen ibilbidea modu borobilean amaitu nahi genuen. Lanak laburtu nahi du taldea izan dena garai guztietan. Zuzenekoak harrapatzen du taldea momentu musikalik onenean. Dokumentalak, berriz, taldea nondik datorren, ibilbidea…", esan digu Latzeneko gitarra-jotzaile Iker Martinez de Zuazok.

**IRUDI BITXIAK**
Latzenekoak pozik daude lanarekin: "Goi mailako DVDa egin dugu soinuari eta irudiari dagokionez, baita alderdi emozionaletik ere", dio Martinez de Zuazok.

DVDan irudi bitxiak ikus daitezkeela ere esan digu Latzeneko gitarra-jotzaileak: "Agertzen dira Latzenen bigarren kontzertuko irudiak, Latzeneko kideak lagun baten etxean erraketekin eta talde bat irudikatzen…".

DVDa kalean, kontzertu bira laburra egingo dute bultzada modura. Lehenengoa gaur bertan Errekalden izango da eta ondoren egongo dira Bilbon, Amoroton, Euskal Herria Zuzenean jaialdian eta Iruñean. Benetako amaiera kontzertuak, seguru aski, abuztuan egingo dituzte, baina lekua eta egunak zehazteke daude. Oñatin Aker, Ona eta Boga tabernetan eros daiteke DVDa, eta gainontzean, laster Elkar dendetan eta merkataritza etxe handietan.

Latzenen izena goian utziz eta lan on batekin *Hellmuga*-raino gustura iritsi dira.



AURKEZPENA Iker Martinez de Zuazo, Aitor Uriarte eta Joxe Mari Azpitarte lan berriaren aurkezpenean. TXINTXARRI

## ahobero

### "Txinari Tibetekiko errepresioarengatik emandako zigorra da maiatzaren 12ko lurrikara"

**Sharon Stone** > Aktorea

Alferrik du Cannes-en esan eta Txinan lurrikara sortu duten berbengatik orain barkamena eskatzea eta berak iragartzen duen makillajearekin estaltzea. Budismora bihurtu zela eta karma kontuetan babestu den arren, ipurdi bistan utzi dute hitz desegokiok txinatarren aurrean.

## iturri onetik

### Giokela festa antolatu du Oñatiko bertso eskolak uztaileko azken zapaturako

Oñatiko bertso eskolak Giokela festa egingo du uztailaren 26an, 25. urteurrenaren harira. Giokelak ipinitako saiheskia erre eta haragi pintxoak salduko dituzte, eta Zapiain sagardotegitik ekarritako kupela ere izango da. Lortutako dirua bertso eskolaren urteurreneko ekitaldien gastuei aurre egiteko erabiliko dute. Egun horretan, giroa alaitzeko, trikitilaririk eta bertsolaririk ez da faltako.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Korporazioa

Ohituta geunden EMECECE esaten, eta Debagoienean zaila egiten da Mondragon izenarekin hori ordezkatzea. Beraz, zilegi bekit korporazio hitza erabiltzea, zuek jakin dezazuen zertaz ari naizen.

Hain zuzen, albiste izan da kooperatiba taldea, bi kidek alde egitea hautatu dutelako. Ez naiz sartuko joan direnen arrazoietan, eta edozein kasutan zorte ona opa diet. Baina, denon hobe beharrez, bai eskatuko nioke korporazioari indartu dezala bere lidergoa, behar direnean har ditzala erabaki zailak ere, eta izan dadila taldearen gidari sendoa. Entzuna baitut –barrukoen ahotik– badituela ahulezia horiek korporazioak. Ezin izan diezaioten esan, taldetik doazenek, Facundo Cabralek zioen hura: "Ez da ni banoala, baizik zu gelditzen zarela".

## ai, ene!



### Etxean bertan autoa aparkatzeko aukera

Aparkatzeko arazoak? Horrelako etxeekin ez genuke toki faltarik izango, baina abilezia behar da gero horrela aparkatzeko.

www.yupifotos.com

Arizmendi Ikastolaren LANBIDE HEZIKETA
BIHARKO profesionalak


>> goi mailako zikloak
>> gorputz eta kirol ekintzen animazioa
INGURUMEN KIMIKA
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
>> erdi mailako zikloak
ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK
ARRETA SOZIOSANITARIOA
AURREMATRIKULA EKAINAREN 2tik 13ra // 902 11 20 25
lanbide@arizmendi.ikastola.net // www.arizmendi.ikastola.net/lanbide
Arizmendi ikastola